

txillardegi

**HUNTAZ
eta
HARTAZ**

ELKAR

© ELKAR, S. A., Esterlines, 10 – Donostia

Depósito Legal: NA. 829-1983

ISBN 84-7529-095-7

Inprimatzaile: Gráficas Lizarra, S. L., Ctra. de Tafalla, Km. 1. Estella (Navarra).

*Udazkenean batez ere,
igande-arratsaldeetako
tristura ixillak
hunkitzen dituen guziei*

EGILLEAK.

Kristautasuna eta mundutar garaitzapena

ZENBAIT urte huntan, guduaren eta armadaren gora-beherak dirala bide, kezkatzen hasiak ditugu mundu guziko kristauak. Zer egin behar du kristauak, kristau dan aldetik, gerla egin beharretan gertatu ezkerro ? Arjelia'ko hauzia izan dute berrikitan frantses katolikuek, Tunizia'koaren eta Indotxina'koaren ondoren; gauza bera espainolek, katalanek eta euskaldunek 1936-ean; eta berriz ere orain, Euskal Herria askatasunerako bidean abiatzeko zoria hurbil dugularik, gertu dago hautatu beharra, eta etorkizuneko sukargiroaren lehenengo zantzuak aditzen hasi dira.

Ba dago problema bat. Lehen ez.

Politikazko jokabideen aldetik, nik uste, Gandhi'k markatu bide du gehienik gure mendea. Politikari guziek, egia aitortzeko, jokabideei gagozkiela, ez dute ezer ere ez berritu ez asmatu : berritzen edo asmatzen ere ez baitira entseatu ! Machiavelo'ren aholku lotsagabeak jarraitu dituzte hertsiki, ala ezinbestean laxoki; eta kitto. Politikaz ari izatean, moralezko betebeharririk ez dagoela zirudien. Oharkabean ala oharrean, agirian ala izkutuka Moralak eta etikak alkarrekiko loturarik batere ez balute bezela jakatu izan da. Hitz ederrik eta xede gorenik ahobeteka erabilli arren, Politikaren Morala, Moralik ez izatean zetzan eskuarki.

Horregatik uste dut Gandhi izan dala denetan inportanteena. Gandhi'rekin prestatutasun-nahi bat agertzen da politikazko arazoetan : ez teorian eta hitzen maillan bakarrik, egintzetan eta jokabideetan baizik. Inglesek, beraz, politiku maltzur baten kontra ari dirala uste dutenean, ongi ulertu ez dutela erakusten dute, Gandhi ez zan politiku « maltzurrago » bat.

« Satyagraha » eta « Indarkarik-Ez »-aren jokabideak politikazko maillan eredutzat eta nahi-ta-ezko eginbidetzat ezarritz,

kristau elizetako ez zan batek astindu ditu kristau elizak. Gandhi'ren eragiñez, kristautu egin gera kristauok.

Gandhi baiño lehenagoko Eliza Katolikoak, esate baterako, bortxaz jokatzeari sarritan onetsi izan du : ez xedearen eremuan beharbada, baiña bai Istorian eta egiñetan. Hunengatixek, hain zuzen, Vaticano'ko makiabelismoa aipatzen danean, txorakeria funtsezkorik ez dagoela uste dut.

Ikus dezagun puntu hau xehetasun tipi batzuen bidez.

Edozein erresumatako armadetan ezarri ditu Vaticano'k apaizak, gonbarazio baterako, kapellau gisan; eta armadari datxekon kutsu pozoatsuà itsats dakien beldur ez da izan. Harrigarri da, horrengatik, « apaiz-langille » en kontrako debekua. Zeren-eta hauek langilleen munduko kutsua sobera hartu bazuten, ukatzerik ez dago ere armadetako kapellaei milla urtetan zehar itsatsi zaien militarzeria, gauza nabarmena dala, eta ez oso kristaua. Hots, besterik frogatu artean bederen, lantegietako langille-giroa ez dago, nik uste, kristautasunetik urrunago armadako girotik baiño; eta metrailletaz eta hiltzearen teknikaz bizi izatea ez da, nik uste, tornuez eta burdiñazko tresneriez bizi izatea baiño kristauago !

« Gerla zuzena » dalakoaren teologia, era berean, ez da gaurko kontu bat : aspaldian osatu zuen Erroma'ko Elizak, eta behar baiño usuago baliatu izan dute nun-nahiño agintari indartsuek beren gerlarik itsusienei zuzentasun-itxura` eransteke. Bistan baita ere, iduriz, gerla bat galtzen dutenek ez dutela sekulan arrazoinik, bidegabe hutsetan abiatuak dirala, gerla zuzengabe eta itsusitan kutsaturik...

Irabazteko bidean barrena zoatzien armadek errazkiagi bedeinkatu ditu Erroma'k betidanik, eta galtzera zoatzienak biziki bakanka. Aipa nezakean lerrokada luzean (garaitzaille izan direnetara itzuli naiz, noski) Franco'ren armaderi emandako « Guruzada » izena gogoraziko dut bakarrik, azkeneko bedeinkazioa hauxe baita; baiña berandu xamar (1937) emana izan zala oñantzi, gabe, Franco'ren garaitzapena aski garbiki ordurarte agertu ez balitz bezela...

Elizak antziñan izan zituen presondegiak, piztarazten zituen suak, egiñarazten zituen gudu « santuak », politikazko etsaien kontra egozten zituen eskomikuak, zertarako aipatuko ? Elizaren eta Europa'ren beraren lotsagarri dan Inkisizioa, zertarako oroitaraziko ?

Zer da « garde suisse » dalakoa, Elizaren armada zaharraren azken aztarna baizik ? Vaticano'ko gaurko hiri librea, zer da antziñako erresuma handi eta aberats izan zanaren arrasto apaia baizik ?

Ahal izan duenean, bere buruaren alde erabilli du indarra Eliza Katolikoak : gerla egin izan du, bortxaz jokatu da anitzetan; eta ahulaldietan xoilki (orain, esate baterako) eskatu ditu libertatea eta leguntasuna. Etsaien aurka, indarka jokatu da : Torquemada eta Franco goratu ditu; edo ezinbestean lege-berdintasuna eskatu. Veuillot'i bahitu zaion esanak, zorixarrez, egia dirudi :

« Tant que vous êtes au pouvoir, nous vous demandons la liberté au nom de vos principes; lorsque nous y serons, nous vous la refuserons au nom des nôtres ». Erran nahi baita : « Agintean zaudeteño, zeron helburuen izenean eskatzen dautzuegu askatasuna; gu egotean, aldiz, gihasuren izenean ukatuko dautzuegu ».

Oraintsu arte, beraz, horrela gertatu dira gauzak.

Gandhi'ren politika-bidea gure artera hedatu, eta ezaguna izan ala, politikan ere zuzen eta prestuki jokatu beharraren nahia eta premia sortu dira; eta eztabaida ere biekin batera. Kristaurik argienak, edo aurrerakoenak bederen, hasi dira zalantzan, diotelarik : « Gu baiño kristauago izan da Gandhi : induista eterodotso batek erakutsi bide digu kristau eginbidea gerlaren eta bortxaren maillan zertan datzan. Ikas dezagun; joka gaitezen aurrerakoan behar dugun modura. Ahalkegarri da kanpoko batek guk baiño xuxenago ikustea; baiñan egia hutsa da. Balia gakizkion ».

Horrela sortu dira, Gandhi'ren eragiñez nik uste, kristau pakezaleak eta armadaren kristau etsaiak. Lehenago ere izan ziran kuakeroak, anabaptistak eta menonitak. Bai. Baiñan jakiñarazten ziguenez, egun baiño oihartzun apalago lortu zuten orduko kristauren artean : Gandhi'ren goratasuneko norbait behar zan ideiak aurrera joan ah l izateko.

Gandhi'ren « Indarkarik-Ez » hortan aurkitu uste dute kristau pakezaleek kristautasunaren bertute nagusia. Beren ustez, bortxaren etsaia izan zan aurrenik Jeuskristo; eta bere bizi guziak, eta heriotza aitzineko hauzi dorpeak bereziki, hauxe erakusten du garbiki. Jesukristo'ren mezua, pake-mezu eta maitasun-mezu bat zaie batez ere, eta bortxa-mota eta indarkako bide guzien uko guzizko bat.

Ez da dudarik : halakorik ba da. Ba da hori ere Jesukristo'ren mezuan; horixe da gehien bat. Alde huntatik kristauagotzat jo diteke Gandhi, nik uste, apezpiku guduazale asko baiño. Mendiaren gainetikako predikua eta dohatasunak kristau agintari askok baiño ziñezago siñetsi b litu bezela...

Nik neuk, egia esateko, kristau pakezaleengan atxeman uste dut egiazko kristautasuna. Merezi, horietxek merezi dute kristau izena : guduari eta armadari uko egin diotenek, zer gerta ere « ez » biribil bat esaten ausartu diranek. Gaiñerakoak, segidan agertuko dan bezela, hein batean bakarrik dira kristau, tatzaz bezturik.

Eskuindar kristauak — eta Vaticano'ko integristek bereziki — ez dute hunelakorik entzun ere nahi. Ez dira « Guruzadez » lotsatzen; nahiz hauek, Leclercq'ek ongi dionez, izenaz besterik ezer ez izan kristaurik. Integristek gerlak eta atomo-bomba bera ez dituzte errotik arbuiatu nahi, beharbada komunismoa zapaltzeko erabilli beaharko diralakoan... Gottfred de Bouillon eta El Cid beti dituzte aurrean, Francisco Franco bera ez dutenean. Indarra maite dute, armadari berari ongi deritzate; eta « ongiaren » alde indarra erabilliz, Jungoikoa zerbitzatu uste dute.

Ebanjelioak gaingiroki behintzat ausnartu ondoren, ordea, guztiz agerian dago Jesukristo'ren jokabidea beti izan zala bortxamota guzien aurkakoa. Gogora ekar ditzagun frogabide batzuk.

Azken gauean tribunaletara eramateko Judas'ekin datorren multzoak preso altxatu zuenean, Pedro'k Jesus gerizatzekotan, soldaduari belarri bat ebaki zionean, Jesukristo'ren erantzueratik entzun zan. Gogora dezagun Matiu'ren arabera (26 gn. kap., 51-52) : « Eta hara Jesus'ekin zirenetarik batek, eskua hedaturik, ateratu zuela bere ezpata, eta apez handiaren sehi bat jorik, moztu zioen beharria. Orduan Jesus'ek erran zioen : bihur zazu ezpata bere tokira; ezen ezpata hartuko duten guziak, ezpatatik goanen dire ». Jaungoikoa bera ezpataz defenditzea, eta are gutxiago norberaren burua, ez da Ebanjelioetan zillegi agertzen; eta horrela gure autodefentsa mota guziak (eta besterenak zer esanik ez) kristaua ez-baiñan erromatarrengandik hartutako kutsua dirala dirudi, zenbait kristauk dionez. Entzun dezagun berriz jondone Matiu (5 gn. kap., 38 eta urrengo) : « Entzun duzue errana izan dela : Begia begiaren, hortza hortzaren. Nik derratzuet aldiz ez bihurtzeko gaizkiari; bainan norbaitek jotzen bazaitu eskuineko matelan, itzul biozozu bertzea ere. Eta zurekin hauzitan hari, eta soipa eraman nahi darotzunari, utz biozozu kapa ere. Eta norbaitek behartzen bazaitu mila urratsen egitera, zoaz harekin bertze mila ere ». Nun da hor ageri norberaren defentsaren arrastorik ?

Eta nola ulertu, beraz, Arc'eko Jeanne eta Castilla'ko Fernando hirugarrenaren santutasuna, ezpada Fraitzia'ko eta Espaiña'ko erresuma katolikoekin hartu-emanak hestutu nahiz ? Armadako buru baten santutasuna ez zait gauza ageria iruditzen bederen. Bidea ez baita, Kristo'k berak dionez, neholaz ere ezpatazkoa, ezpataz kanpokoa baizik. Ezpatak ez baitu gurutzera gerturatzten, gurutzetik urruntzen baizik. Ezpata eta gurutza alkarrekin ezkondu nahi izatea paganismo edo jentiltasun hutsa da. Hautatu egin behar da hain zuzen : ala ezpata, ala gurutza. Biak batera, nondik eta nolatan ?

Askatasunean, eta bortxarik batere gabe, jendeen izpiritua erakartzea eta kristautzea : horra hor Ebanjelioetan agertzen dan betiereko jokabide bakarra. Kristau fedea dutenen ustez, ahalmen guzia zeukan Jesukristo'k Jaungoikoa bera izaki. Nola ez zuen, beraz, armada indartsu bat sortu, Jaungoikoaren Legea (eta Egia bera, hortaz) onar-arazteko ? Egiak eskubide guziak merezi baditu, eta makurtasunak ezta batere, nola utzi ote zuen dana koloka, bortxaz nun-nahi legetzat harrarazi beharrean ?

Horra hor ere Naturalezaren bidea. Ez gera czertara hertsiki lerraturik jaiotzen : hein batean makurturik bai, ez ordea loturik eta gateaturik. Hain zuzen ere, Jaungoikoa gutxiegi nabarmentzen dala esan diteke, gehiegi izkutatzen zaigula, gutxiegi bultzatzen gaituela bere Egiaren aldera, hurrikiegi erakusten duela bere burua nondik jo dakigun, edo illunpetan argiari errepara dizaigun.

Indarkarik-Ez oso horri heldurik, hasierako kristauek ez zuten soldadutzarik egin nahi izaten; eta, hori zala-ta, anitz martiri gertatu da lehenengo mendeetan.

Hunat hemen, adibide bakar bat erakutsi nahiz, Maximiliano martiriaren azkeneko hitzak, 295 gn. urtean : « Ezin nafteke ni soldadu izan. Kristaua naiz. Ez dut zillegi Jaungoikoa laidotzea ». Eta borroeroek erantzun : « Hil nahi ez bahaiz, izan hadi soldadu; kasu emaiok hire gaztetasunari, eta soldadu billaka hadi ». Eta Maximiliano'k berriz iharduki : « Ebak ezaidazute burua. Jaungoikoaren soldadu naiz, eta mundu huntako armadetan ez dut zerbitzatuko ». Hitz kementsu horien ondorioz, Kartago'ko Gobernariaren seme izanagatik ere, lepoa ezpataz ebakita hil zan.

Zenbat gehiago horrelatsu urte haietan ! Ezin zekiketen berek, ordea, « sanctus militaris » (sic) izenez ezagutaraziko zituztela geroko integristek eta guduzaleek... soldadu izan nahi izan ez zutelako hil ziranak berak.

Ez da zalantza larririk : egiazko kristautasunak arras debeatzen du hiltzea. Armada eta kristautasuna bi dira, ez bat. Ezin adiskida, ezin ezkon. Istoriak batzutan alkaturik agertzen badizkigu, kristautasunaren muiña ukatuz alkaturu dira. Ez alderantziz armada kristaturik. Armadaren eta guduaren bidez herriek herriak zapaltzea, eta indartsuak ahula menderatzea, zaharrago dira gizadian kristautasuna baiño. Hainbeste aldiz hola-hola gertatu ondoren, Vaticano'k amor-eman izan duela esan behar da; eta beharrezko aitor hunek tentelak eta ez-ikasiak soillik izu ditzake.

Ez dut nik ukatuko, beraz, gorago esan dudan bezela, bortzarik ez erabiltzea kristautasunetik muiñetik hurbil danik. Aititik. Guruzadaren gogo hori jentiltasun hutsa dala diot.

*
**

Baiñan indarka eta bortiztasunean auziak garbitu, eta erabakiak edo siniskaiak betearazi nahi hortan, ba dago ere, nik uste, zerbait gehiago, zerbait sakonagorik; eta « zerbait » hori zertan datzan agerrarazten saiatuko natzaizu.

Bortxakoen jokabidea aztertzeak biziki lagunduko nau .

Bortxaz baliatzen danak ez du neholaz ere galdu nahi. Hunat hemen kakoa.

Indarzaleen xederik izkutuena, baiñan aldakaitzeta eta gotorrena ere, horixe dugu : galdu neholaz ere ez. Garaitu egin behar. Nolanahi garaitu nahi izatea, zernahi zapalduz ere gailen atera, eta galdu ez. « Hay que conseguir el triunfo social y oficial de Cristo » : horra hor ia hitzez hitz espainiar eskuindarrek diotena. Pakean eta eztiki, edo askatasunean, galdu baño, hobe dudarik gabe indarka, tiroka edo gerlaz etsaia bantutzea eta ixillaraztea. Garaipide bat da bortxadura. Eta — hunat kakoa — helburuak garaitu behar duen ezker, egia nola edo hala sinistarazi behar da, eta legeen bidez finkatu eta gotortu. Erexiak, bistan da, erauzi egin behar dira sustraietik. Kataroen kontrako jazarpena hori zan : horra hor, beraz, guduzaleek bihotzean atxikitzen duten garaipidea.

Halere, ondoko lerroetan erakusten saiatuko naizenez, kris-

tautasunaren muiñaren muiña iruditzen zait mundutarrekiko galtzen jakitea, munduak zorotzat kristaua hartzea, munduarekiko hutsegitea. Mundutar garaitzapena arbuia : horri deritzat nik kristautasunaren mamia. Egoki zioten hamabost apaizlangillek Biltzar Nagusian joan dan Urrillan : « Dans la mesure où elle (l'Eglise) acceptera de disparaître comme puissance, l'Eglise peut révéler au monde la signification profonde des valeurs qu'il vit. »

Bizi zalarik, hutsegite eta frakasu hutsa izan zan, munduarekiko eta mundutarren arabera, Jesukristo'ren biziera; eta hil ondoren, hutsegite eta frakasu handia ere jarraitzaileen artean. Hil zanean, bere dizipuluek doi-doi konprenitzen zuten bere dotriñako arrastorik; eta hinka larrietan gizonki jokatzeko ausardia faltatu zitzairen. Hiltzerakoan, nor zuen Jesukristo'k gurutzaren ondoan? « Urrundik, berriz, ba zagoen han emazteki multxo bat, Jesus'i Galilea'tik jarraikia hura zerbitzatuz. » (Mat. XXVII-55). Arrakastaren haundia !! Non dira herriko agintariak, aberatsak eta puntuzkoak?

Eten gabe gaitzesten du Jesukristo'k munduan arrakasta nahi izatea. Haundikiak eta aiton- semeak alde bat utzi behar dira. Aipagarri da, huni buruz, Lukas'ek dioena (XIV-13) : « Barazkari bat egiten duzunean, deit itzazu behar:ak, herbalak, mainguak, eta itsuak. » Eta bereziki hau : « ez auzo aberatsak ». Zer izan diteke hori baiño txorakeria haundiagorik, mundutar aipamen eta « kategoria » horri begiratuta, aholku hau baiño? Zein mundutarrek egiten du hunen laurdenik? Eta, larriago dana, zein kristauk?

Munduan gailendu nahi izan, munduko agintaritza eta aipamena gutziatu, mundutar arrakasta, garaia eta loria billatu : horra hor pekatu nagusia, nik uste, egiazko kristautasunaren arabera pentsatuz.

Itsuski burrukatzea, mundutarren artera maiz joatea, indarka ari izatea, diru-billa aberastu ondoren ere biribillatzea, funtsean, mundutar ospe hori nolapait seguratzeko bideak baizik ez zaizkit iruditzen.

Pekatu guzien iturria, horrela, ez da bortxa erabiltzea, munduan irabazi eta jaundu nahi hori baizik. Horixe dio Jondoni Jakue'k ere : « Mundu hunen adiskide dena, hortaz beraz Jainkoaren etsai egiten da. » (IV-4.)

Eta bertute nagusia beste hau : mundutarren katramiliez eta nahikundeez ez zipitzik ere axolatzea.

Hunen arabera, Indarkarik-Eza mundutar-frakasu hori onartzearen parte bat baizik ez da. Eta ez alderantziz. Gandhi baiño kristauago Buda da. Eta jakingarria da huni buruz, Buda kristau santuetako bat billakatu dala jakitea : Joasaph santua, Azaroaren 27-an. (Oso irakurgarria da puntu hau : « La Rencontre du Bouddhisme et de l'Occident », Aita H. de Lubac, 28 gn. horrialdetik aurrera.)

Ez da oso harrizkoa. Budismoaren kakoa munduaren ukamera guzizkoa baita.

Gogora ekar ditzagun Jondoni Joanes'en hitz batzuk : « Eman diotet zure hitza, eta gaitzetsi ditu munduak, zeren ez baitira mundutikakoak, hala-nola ez bainaiz ni ere mundutikakoa » (XVII-14) ; edo « erran darozkitzuet horiek, gaizbidetan ez zaitzeten eror. Sinagogetatik kenduko zaitzute ; eta heldu da ordua, non edozeinek hil zaitzaten, usteko baitu Jaungoikoaren nahira egiten duela » (XVI, 1-2). Kristautasunaren garaitzapena ez da nehun agertzen.

Deabruaren tentaldiek (bigarrenak bereziki) gauza bera erakusten dute. Erorpiderik lerrakorrenak munduaz nagusitzeari dagozkio : « Eta debruak eraman zuen mendi gora baten gainera, eta begi itzuli batean erakutsi ziozkan lureko erresuma guztiak, eta erran zioen : emanen darotzut botere hori guzia eta horietako ospea, ezen erresuma horiek emanak izan zaizkit, eta nik nahi dudinari ditut ematen » (Luk. IV-5-6). Munduko ospea eta boterea dira tentagaia. Bestetik ere mundua Satan'i « eman zaiola » esaten da. Ezin mintza garbikiago.

Tabor'ko itxuraldatzean joera bera ikusten da. Pedro'k han gelditzea proposatzen duenean, « ez daki » zer ari dan. Garaitzapen horren, ueña ez baita iritxi.

Eta garaitu nahi hortan, Pasioaren bezperan tentatzen du, oharkabea, Pedro'k berak. Ikus Matiu, XVI ; 21-22-23 : « Orduetik abiatu zen Jesus bere dizipuluei agertzen ,premia zela Jerusalem'era goan zadien, eta hainitz jasan zezan zaharren eta iskribauen eta apeznen buruzagiengandik ; hil zadien, eta berriz pitz hirugarren egunean. Eta bazterrerat harturik, Piarres abiatu zitzaioen erantzuka edo gaizkika, zioelarik : Balinba ez, Jauna ; ez ahal da zuretzat holakorik izanen. Itzulirik, Jesus'ek Piarres'i hau erran zioen : Zoazkit, Satan ; eragozgailu edo galgarri zaizkit, zeren Jainkoaren gauzetan ez baituzu gozorik hartzen bainan bai gizonetan. » Mundutar garaitzapena proposatzeagatik, eta frakasurik nahi ez izateagatik Kristo'rentzat, « Satan » deitu zuen Jesukristo'k !

Munduaren ustez orobatsu dira mundutar garaitzapena eta diruzko aberastasuna. Jakingarri da, beraz, diruari eta ondaneiei buruz Jesus'ek dioena. Eta, huntaz ere, gauza jakia da, Jesus ezin diteke gogorkiago mintza : « Kameluari orratz baten xilotik iragaiten errexago dakioko, ezen ez aberatsari zeruetako erresuman sartzea » (Mat. XIX, 24). Edo beste hau, Lukas'en arabera, XVIII ; 24-25 : « Jesus'ek berriz hura ikusirik ilundua, erran zuen : Ala nekez sartuko baitire Jainkoaren erresuman aberatsak ! Ezen errexago da kamelua orratzaren xilotik iragan dadien, ezen ez diruduna sar dadien Jainkoaren erresuman. »

Alperrik entseatzen dira ustelak eta epelak Ebanjelioari gordintasuna gozatzen. Harrigarri da, gonbarazio baterako, zenbat eta zenbat azalpen ez ote dan billatu aberatsak hain arras galduak ez dirala sinistarazteko... « gamelu » hori « hari mota bat » omen da, orratza ez dakigu ongi zein ate hertsu (edo zabalxko...), eta abar. Ebanjelioko hitzak, ordea, garbi esanak dirudite. Ez dago hor « aholkurik », ez ; agindu edo manu hestu eta premia-

tsu bat baizik. Hauxe esaten du Aita Leclercq'ek ere, argi eta garbi, « Le Chrétien devant l'Argent » deritzan liburuan, 26 gn. horrialdean, eta urrengo : « Si les riches pouvaient être de bons chrétiens en gardant leurs richesses, comment expliquer le « Malheur aux riches ? ». Hau da : « Beren ondasunak atxikiz ere, aberatsak kristau onak izan balitezke, nola azal diteke « Zorigaitz aberatsei » hori ? »

Baiñan erants dizaiogun huni guziari, halere, orain artekoari aski ez iritzirik, zalantzak ezabatzeke falta zitekeana.

Entzun ditzagun dohatsunak eta madarikazioak, azkenean lañoak barreiatzeko.

Entzun ditzagun lehenengoak Matiu'ren arabera : « Dohatsu nigar egiten dutenak, emanen baitzaiote gozakari. Dohatsu zuzenbidearen gosez eta egarriz daudezenak, aseak izanen baitire... Dohatsu jazarpenak zuzenarengatik egartzen dituztenak, zeren hekiena baita zeruetako erresuma. Dohatsu zarete izanen, aha-paldika hariko zarozkitzuetenen, eta enegatik zernahi gaizki gezurrez erauntsiko dutenean zuen kontra. » (V; 5, 6, 10, 11.)

Eta bigarrenekoak Lukas'en arabera : « Baina zorigaitz zuei, aberatsak, zuekin baituzue zuen gozoa. Zorigaitz zuei, aseak zaretanak, zeren gosez egonen baitzarete. Zorigaitz zuei, orai irriz zaudeztenak, zeren eginen baituzue nigar eta marraska. Zorigaitz zuei, laudatuko zaituztenean gizonek ; ezen hala-hala egiten zaroetan horien arbasoek profeta aizunei. » (IV; 24, 25, 26.)

Nork merezi du zorigaitza ? Aberatsek, aseak diranek, irriz bizi diranek, eta munduak laudatzen dituen gizonek. Zoriona merezi dute, aldiz, negarrez ari diranek, zuzenbidearen falta pairatzen dutenak, zuzentasunarengatik jazarpenak sofritzen dituztenek. Hitz batez : dohatsu dirateke munduak zapaltzen dituenak, eta zorigaitzoko munduak txalotzen dituenak.

Mundutar garaitzapearen arabera partekatzen ditu Jesu-kristo'k bere bedeinkazioak eta madarikazioak. Munduan garaitu ala hutsegín.

Gaizpiderik sakonena mundutar arrakasta eta garaitzapeari datxekonari deritzat. Eta, dudarik ez da, alde huntatik begiratu, Elizaren makurrik haundiena (pekaturik larrienari baitagokio) Constantino'ri baietza ematea izan da.

« Estrukturak, legeak, kristautu behar dira », esan dute beti eskuindar kristauak : Cesarea'ko Eusebio'gandik hasi, eta Constantino'k, Charlemagne'k, Felipe II Espainia'koak, Ottaviani'k eta Opus Dei-koek. Halere, Jesukristo'k ez zuen bere aroan ezertxo ere egin erromatarren gobernua « kristautzeko », edo esklabogoa kentzeko. Estrukturak « kristautzea » (ez kristau moldera jartzea bakarrik, hau beti egin diteke; baiña klerikalismoan « kristautzea »), munduan garaitu-nahi horren mota bat da. Erresuma konfesionala, kristau pentsaeraren eta kristau bertuteen kontrako okerreriari erona iruditzen zait. Kristautasuna lege billakatzen danean, Erljioa Politika billakatzen da ere ; eta pekatua ez da Ifernuan ordaintzen, erresumako gartze-

lan baizik. Jaungoikoaren mundua, lekuko erresuma billakazten da.

Gauza bera esan ditekete kristau errazionalismoaz, ikusi gabe sinistea baita fedea. Entzun dezagun jondoni Joanes : « Ikusi nauzulakoz, Tomas, sinetsi duzu ; dohatsu ez ikusi, eta sinetsi dutenak » (XX-29). Ikusiz eta konprenituz, eta zalantzarik gabe eta guztiz ziur egonda, sinistea, ez da kristautasuna, zientzia baizik ; eta Ebanjelioan ez da zientziaren arrastorik ere agertzen. Oso egokiro dio Jean Rolin'ek : « Le rationalisme est la forme originelle de la volonté d'efficacité, en tant qu'il affirme que l'univers est perméable et docile à la pensée ». Konprenitzearen maillan garaitu egin nahi dugu berriz ere, ziur egon nahi dugu. Berriz joera bera.

Ez da horri kristauari proposatzen zaion bidea : « Egiaz derratuzuet, nork ere ez baitu hartuko zeruko erresuma haur batek bezala, ez da hartarako » (Luk.XVIII, 17). Hots, ezagutzaren moduari gagozkiola, haurrak eta zientzi-gizonak ez dira oso ahaide...

Ez da harritzekoa, hortara, tenploaren gertakaria, lan ebanjelariak aipatua : « hurbil zen Juduen Bazko, eta Jesus igan zen Jerusalem'era ; eta tenploan atzeman zituen idi, ardi, eta uso saltzaile batzu, eta diru aldatzaileak jarriak. Eta azotea bezalako bat eginik sokatto batzuz, tenplotik irazi zituen oro, ardiak eta idiak ere, eta ixuri zituen aldatzaileen diruak, eta mahainak uzkaile. Eta uso saltzaileei erran zioten : ken zatzue horiek hemendik, eta ene Aitaren etxeaz ez egin tratuko etxe bat » (Joanes, 11, 13, 14, 15, 16). Bere onetatik aterata bezela agertzen da Jesus lehenengo aldiz, zeren-eta ikusi baitu Jaungoikoaren etxeaz baliatuz, tratuak eta diru-kontuak egiten dirala ; alegia, erlijioaz abantail bat ardiesten ari dirala. Eta hunek hasarratzen du beste ezerk baiño bortizkiago : fedea mundutar probetxu bat atera nahi izatea zaio pekatu larriena.

Munduan garaitu nahi ez izatea : horra hor, beraz, kristau modura pentsatuz, nahi-ta-ezko bidea, nik uste. Munduaren aurrean ez garaitzetik iragaiten da gurutzaren bidea. Indarkarik-Ez dala-kotik bai, noski ; baiña, sakonkiago, munduari uko egitetik. Jaungoikoaren mailla ezagutaraztetik (alegia : beste mailla hortako balore eta nahi-ek sendiaraztetik), mundutarrek errotzat hartzetik, haurrek bezala jokaztetik, eta « praktikoi » guziena apalestearen jasatetik.

Zer esango kristau « zuhurrez », « bai, bai » eta « ez, ez » sekulan esaten ez dakiten horietaz ? Nola ezkon ditezke kristautasuna eta munduko « eskolak » eta estakuruak ? Muñuak prezatzen dituen baloreei buruz, nor ibilli da, Buda Sakyamuniz kanpo, urrunago Kristo baiño ? Mendebaldean nehor ez ; zeren-eta nehor ez baita ari izan hain errotik zeruko aginduen arabera, eta mundutar garaitzapanetik bereziko.

Egiazko kristauak ezaxola izan behar du munduarekiko, antsigabeki begiratu behar ditu munduko itxaropenak. Ongi dio Congar'ek, huni buruz : « Apostoluen izkiribuek, eta Ebanjelioek ere berdin, kristau izatearen eta predikatze libroaren kezka

erakusten dute, bai; baiña kulturarekiko, politikazko edo sozial legeekiko, aberastasunarekiko eta txirotasunarekiko, axolagabete şun sakon bat erakusten dute ». Edo-ta J. Leclercq'ek : « Kristo ez da soziedadeaz arduratzen, eta ez denboretako baloreez ere. Arimez ari da... Erreñua at dago ».

Lasai, irribarrez, eta mundukoien istimutan bizi nahia : horra hor kristau batek neholaz ere onar ezin dezakean tentazioa. Gaiñerakoak hurri dagozkion ondoreak zaizkit.

Esan ditekete, beraz, kristautasuna, jatorriz eta pentsaeraz, Asia'koa dala. Munduan siñistu, ala mundua ukatu : horra hor benetako banaketa eta benetako muga.

Gu europatarrok, « bai » esaten diogu munduari; eta asiatarrek, berriz, « ez ». « Asiatarrek » esatean ez dut Txina'n pentsatzen : ez oraingoan eta ez antziñakoan ere. Txina beti izan da « europatarra », Kung Fu Tseu'gandik hasirik.

Komunismoa eta kapitalismoa, biak, funtsean haurride dira : « prometeotar » eta Europa'ko seme. Bietan dago mundutar garaitzapenarekiko egarri bizi bat.

Ebanjelioetako kristautasunean ez; eta gaurko kristautasunean zer nahi esanagatik ere bai eta bai. Kristautasuna europartu egin da errotik; eta bere beheeraka ez da Europa'ren beheerakaren isla baizik.

Kristauak uko egin behar dio munduari, eta ez dio egiten, ez bada hain zuzen ere gaur kristauen beren artean mesprextatuak diran ordena batzutan. Kristautasunak, ordea, jatorrizko bere « asiatar » kolorea berriz eskuratzen ez badu, gure zibilizazioaren parte bat baizik ez izanik, gure zibilizazioarekin batera iraungituko da.

Zergatik uka, beraz, budismoaren hedatzeak kristautasunari kalte baiño on handiago egingo diola ?

Ni behintzat, gure arteko munduan garaitu-nahiak eta teknikeriaren izurriteak higuindurik, hortan nago. Eta pozik ekarriko ditut Henry de Lubac'en hitzak : « (Le progrès scientifique et technique) par lui même il ne conduit à rien. Il ne remédie nullement à notre misère essentielle. Il n'apporte aucun salut. Il ne délivre pas de la mort. C'est pourquoi, sans avoir par rançon fatale une décadence, un tel progrès, par son ampleur même, ouvre une crise ».

Halaxe da.

Oraindik ere karlismoa nagusi Eskual-Herrian

BA genekien guk (eta Euskal Herriko kondaira pittin bat czagaturik konturatzea ez da zaila, egia esan) euskaldunok aldakaitz, temati, iraunkor, atzerakoi, eta kontserbadore generala.

Baiñan XIX-garren eta XX-garren mendeek alkarrekin duten antza norainokoa dan, ez dakit nik behar bezenbat aztertu eta nabarmenerazi ote dan.

Euskal Herriak, dudarik ez dago, beste era batera jantzi du bere burua XX-garren mendean. Euskaltzaletasunak, Euskal Herriarenganako maitetasunak, « euskal abertzaletasunak », hitz berri batez esan nahi badugu lelo berririk asmatu badu ere, funtsezko xedeak liferentzia sakonik gabe utzi ditu. Europa'ko industrietzeak, euskaldunen eta erdaldunen joan-etorriek, gure Lege Zaharraren galtzeak eta ahaztutzeak, eta gañerako aldakuntzek, itxuraz kanpo ere izana aldatu digute.

Guziatik ere, euskaldunen nahiaren izenak, eta izanak berak, liferentexko agerturik ere, bildur naiz egia ez ote zaigun itzuri. Gure sorlekuarekiko amodioa, eta politikan obratzekotan erabili ditugun jokabideak, esan ohi dan baiño gutxiago beste-lakatu dira aspaldixko huntan. Karlismoak eta azken urteotako abertzaletasunak ustez baiño funskiago dirudite alkar.

**

1833-an Euskal Herria, ia osorik eta behingoan, Don Karlos'en alde altxatu zanean, Euskal-Herriaren alde altxatu uste zuen herriak. Sorterria iratzartu eta salbatu nahi zuen ; eta aintziñako euskal Legearen izenean egin zuen, eta Nafarroa'ko Erre-
suma zaharraren ondoan :

« Nafartarren arraza
hil da edo lo datza... »

kantatzen zuten hastapenetako karlistek. Eta, horrekin batera, beste hau :

« Don Karlos'ek emon dau
errege-berbea,
gura dauela gorde
euskaldun Legea. »

Horra hor, orduko bi kanta ezagunetan bildurik, euskaldunen nahia. Hau hunela dala-ta, Iparralde'ko « Le Phare de Bayonne » aldizkariak berdin esaten zuen « karlismo » eta « nafar-helburua » (« cause navarraise ») erderaz). Eta Lichnowsky-printzipeak « le pays carliste » aipatzen zuen batzutan, eta beste batzutan Euskal Herria. Euskalduna, nafarra, karlista : gauza bera adierazteko hiru izen.

Euskal « arrazaren » alde eta « Lege Zaharraren » alde altxatu zan Euskal Herria, etor zekiozkean menpetasuna eta lege berria xeheki ezagutu eta dastatu aurretik ere, ez baitzituen maitte. Zergatik ?

Garbi dago, nere ustez. Ba zan besterik ere segurki. Baiña 1789-ko urtean, eta urrengoetan, anitz lapurtar, baxenabartar eta xiberutar joan zan igesi beren sorlekuetatik, eta Hegoaldeko Euskal Herrian finkatu. Zer zioten ? Ustaritze'ko Biltzarra debekatu izan zala, antziñako Lege Zaharra mespretxatua eta zokoratu, Garat'en egiñahalak alperrikakoak izan zirala. Apez asko zegoen ere hegoaldera aldaraturik ; eta erlijioaren kontra gertatutakoen berri ematen zuten : fededunekiko errespeturik ez, « Arrazoin-Jainkoa » ezagutarazten zuten, eta Paris'ko hilketak aurrera zoatziela zioten.

Beste jende-mota bat hasi zan ere multzoka etortzen Nafarroa Garai-era, Ipar-aldeetik igesi : gazte-jendea, Fraitzia'ko Armadan zerbitzatu nahi ez zuten euskaldunak. Kondairak jakin-arazten digunez, ehunka, millaka joaten ziran sorterritik erbesteko armadan ez sartzeko. Hori gelditu, edo gutitu, nahirik, sortu zan Armada berezi bat, « Eskualdun xazurrak », « Chasseurs Basques » erderaz ; eta halaz ere joerak ez ziran bukatu. Eta gauza jakiña da Armada berezi hau ere azkenean, Napoleon Bonaparte beraz biguindurik, ezeztatzeko agindua eman zuela, eta kitto istilluak...

Nola nahi dugu hegoaldeko euskaldunek ikus zitzaten iparraldeko beren anaien hondamenak ? Bestegatik ideia berrien alde ez baziran ere, berri horien ondorioz gogortu egin ziran beren ukoan ; eta 1789-tik 1833-rako tarte hortan gure herria gutiz pasa zan kontrara.

Euskal Herria 1833-ko Urrillan guduan hasten danean bere buruaren askatasunaren alde abiatzen da.

Baiona'ko « Le Phare de Bayonne » dalakoak (liberalen aldekoa) berdin uste zuen. Eta horrela, esate baterako, Zumalakarre-

gi hil zanean, hau zion : « Ez gaitezela makur edo nahas : naziotasuneko alde galdu da orain ; gaurdanik absolutismo-nahi bat gelditu da soilik, agirian errege-lejitimismo huts bat ageri da... (karlismoak) garaitzaille egin zuena galdu du : iskilluen indarra ez-ezen, indar morala ere... Berakin eraman du Zumalakarregi'k arazoaren alderdi oso bat... Gerlaren xedea aldatu egin dala esan diteke dagoenetik. » Garbiagorik bai ote ?

Hau guzia oraintxe hemen frogatzen hastea ez zait bidezko iruditzen : Jainkoa lagun, beste liburu batean itzuliko naiz. Puntua oso larria da, eta ezin diteke arinki ausnar. Eman ditzadan, beraz, ideia batzuk bakarrik.

Gerla Bilbo'n hasi zan, eta Gasteiz'en; eta Bergara'n bukatu. Don Karlos'en gortea ez zan nehoiz Euskal Herritik aldatu. Karlisen buruzagirik gehienak euskaldunak ziran. Euskal Herritik at, karlismoak ez zuen itsatsi; eta Gomez'en ibillaldiek, eta gero-ko guziek, ongi erakutsi zuten bezela, karlismoak ez zuen indarririk Espainia'n. Karlismoa Euskal Herrian jaio zan, Euskal Herrian sendotu, eta, iadanik hillik ez badago, Euskal Herrian hilko da. Karlismoaren azkeneko taupadak nun gertatzen ari dira ba, Iratxe'n eta Jurramendi'n baizik ?

Karlismoak euskaldunen askatasun-nahia hartu zuen, Espainia-ko bandera antzu bati erantsi zion, eta azkenean gure odola saldu eta hondatu egin zuen.

Valdespina'ko kondeak, eta Berasategi'k, matxiñadaren seiñalea eman zutenean, hasieratik beretik, Espainia'ko alderdi bat hartu zuten Euskal Herriaren salbatzailletzat : eskuindarrena. Don Karlos ez zan euskalduna, ezta gutxiagorik ere ; eta Don Karlos'en programa ere ez. Don Karlos espainiola zan; eta euskaldunek hau ba zekiten. Euskaldunen gerizatzailea (eta ez lehengoz eta ez azkeneko aldiz, ondikotz !) erdalduna zan, ez euskalduna. Garaipidez, taktikaz, hau bai, euskaldunek Espainia'ko « absolutisten » alderdia hautatu zuten laguntzailletzat. Lege Zaharraz kanpo, euskaldunek ez zuten garbiki ikusten zer-tsu nahi zutekean...

Eta gero gerokoak.

Zer garbiagorik eta tristagarriagorik (eta adibide bakar bat aipatuko dut), Gipuzkoa'ko batallioekin, gerla bukatzean Don Karlos'i gertatu zitzaiona baiño ? Espainiolez esan zien Errege-Nahi zozo harek gure aberkideei : « ¿También vosotros, después de todas las promesas y juramentos que me habéis hecho, habéis olvidado todo y decidido suspender la lucha ? » Gipuzkoarretan nehork ere hitzik batere ez. Larritu egin zan Don Karlos, eta goganbeharrez beterik ekin zuen : Es que nadie me oye ? ». Berriz ere ezta hitz bakar bat ere. Eta orduan Lardizabal'ek erregeri : « Todos son vascos, Señor, y no entienden sus preguntas. » « Pues tradúceles mis palabras », errepikatu zion erregek. Eta Lardizabal'ek orduan euskeraz : « Mutillak : gizon hunek hau galdetzen dizue : pakea nahi duzute, ala gerla. » Bertatik aditu zan ahobatez, hamar milla eztarik oihu egiñik : « Pakea nahi dugu ! Pakea ! ». Eskual Herria, jende xeheak besterik ustez ere, eus-

kaldun agintariek berek besterik pentsatu arren ere, errotik zan euskalduna. Eta Don Karlos Espartero bezin atzerritarra zan.

Zumalakarregi Madrille'ko gobernuaren kontra altxatu zanean, eta berdin ere euskaldunik gehienek, Euskal Herriaren etorkizunari begiratu zioten bereziki. Ez dugu gaur huntaz nahasi behar, ehun urtetan etsaiek asmatutako ipuiak gihaurk ere siñetsiz.

Zumalakarregi'k Euskal Armada bakar bat egin zuen euskaldun guzietan, eta bere mendeen jarri zuen. Nafarrak, arabarrak, bizkaitarrak, eta gipuzkoarrak, bat izan ziran 1833-an, Madrille'ko gobernuaren kontra ; bat euskaldun legeen eta eskubide zaharren alde, gerla kupidagabe batean alkaturik. Gero, zoritxarrez, arau hartan bederen, ez dugu horrelako batasunik ikusi euskaldunen artean ; eta 1936-ean ere ez.

Baiñan euskaldun izanda ere (zer ziran, ba, Zumalakarregi, Valdespina, Eraso, Berasategi, Erro, Aita Etxeberria, Villareal, eta gaiñerako guziak, euskaldun hutsak baizik, etorkiz eta hizkuntzaz ?), Euskal Herriaren miña bihotzean hiltzaturik eramanda ere, euskaldun karlistei ez zitzaien burutik ere pasa Espainia'rekin haustea. Ez zuten etsaia ikusi. Gehienez, Espainia'ko erdi batekin hasarretu ziran, ez biekin. Bigarrenarekin ez zuten jokabide edo taktika kontuengatik, hasarretu nahi izan. Alabaiñan, gaur ongi dakigu (berandu), zein gaizki moldatzen ziran euskaldun karlistak espainol karlistekin.

Gaur gauza garbia dirudi « ojalatero » zeritzatenekin gertatu zanak : « Orduan hasi zan esaten : huek ez digute balio ; gihaur bakarrik, aldiz, geure gisa, beharbada moldatuko giñake. Eta azkenean esan zan : Etxekook bakarrik. Eta Kongresoak ezagutzen duen « ojalateroen » istillu hura lehertu zan, eta hitz hori barreiatu. Eta horrela sortu zan gure herriko ez ziran guzien kontrako mogimendu hura. » Nor mintzo da hortara ? Abertzaleren bat ? Ihartza'ren « Vasconia » famatuak ? Ez, irakurle : Olano deputatua Madrille'n, Bergarako pakea egin da segituan.

Euskal Herriak ezin zitzakean ikus ez Don Karlos eta ez bere inguruko espainolak ; eta Zumalakarregi'k ere ez.

Bestaldera ere gauza bera gertatzen zan, jakiña. Lehen aipatutako « Le Phare de Bayonne » dalakoa berriz aipatuz, hau zion 1838-ko Apirillaren 24-ean, Muñagorri-ren matxinadaz mintzatuz : « Urtebete ezkeroz, gutxienez, giro txarra zegoen erregegaiaren kontra altxatutako probintzietan. Giro txar hunek leher-egin du Gipuzkoa'ko herri batetan... (Muñagorri'k) probintzien askatasuna oihukatu du Berastegi'n... Mogimendu hunen xedea « Pakea eta Lege Zaharra » da, eta ondore larriak ekar ditzazke. Bere nahi agiria hauxe du : Negarretan eta desegiñik utzi duten gerla-egilleak oro Euskal Herritik egozte. » Jatorrizko erdal hitzak ekarriko ditut : « un ancien notaire, nommé Muñagorri, actuellement maître de forges, y a proclamé (à Berastegui) le 18, l'indépendance des provinces ». Huraxe zan garai nahasi hartan ahoz-aho zebillen fama.

Ez dago beraz duda handirik. 1833-an bi helburu liferente-
rengatik liskartu ziran euskaldun karlistak eta espainolak. Zuma-
lakarregi'ren euskal armadak beti zeraman, aintzindaritzat, eza-
gugarri berbera : Nafarroa'ko ikurriña. Eta hau ez zan, eta ezin
izan zitekean, euskaldunen ikurriña baizik.

Euskal Herria eta Espaiña bi ziran, ez bat, baita gerlako
kideen artean ere ; nahiz guzién integristmoa ukatu-eziñezkoa izan
gure karlisten artean : Zumalakarregi'k, Valdespina'k, eta gaiñe-
rakoek, nabarmen erakutsi zuten beren « kolorea » 1823 gn.
urtean. Ez da oso harritzekoa, herrengatik, hamar urte geroago
Gasteiz'en igarobideak ematen zituzten karlistek hunela sina-
tzea : « Año I de la Cristiandad : Nos, el Padre Vaca », eta abar.
Jurramendi'ko « txangozaleek » iturri hauetan edan dute beren
eskuinkeria.

Baiña orduko karlistek, gehienek nik uste, ba zuten Euskal
Herriarekiko gaur iñun ageri ez dan su bat. Ba zegoen denetarik
karlisten artean, baiña ba zegoen gailen euskal giroa.

Eskualdun karlistak Espaiña'ko alderdi baten aurka ari
izan ziran ; alegia, orduko « ezkertarren » kontra. Euskal Herria
salbatzeko, bigarren « erdi » « on, zuzen eta prestu hura » zaindu
eta zuriatu behar zala pentsatu zuten orduko euskaldun buru-
zagiek. Gaur agirian baldin badakusagu ere ez zirala bat, « erdi »
batekin egin behar zan batasunaren asmoa bera ipui eta ero-
keria hutsa zala, eta abar ; halarik ere, euskaldun haiek, bestetan
bezin tematsu eta itsu, garai zirraragarri hartan ere ekin egin
zioten erdaldun askatzaillari, hau da Don Karlos'i. Eta puntu
nagusitan berdin pentsatu ez arren, Espaiña'ko « eskuindarre-
kin » alkarraitu beharrez, ez-ikusi egin eta danak ados agertzen
ziran.

Jokabide hau, berriz diot, gaitzi zitzaien, ez zuten nehundik
ere gogoko. Froga bakar bat berriz ere, ez sobera luzatzeko :
Merino apeza gaizki zebillen Kastilla'ko mendietan, eta Euskal
Herria pasatzeko asmoa hartu zuen ; eta Zumalakarregi'ri gaz-
tigatu zion bere deliberoa. Omaiztegiarraren erantzunak ez du
zirrikitu zabalik uzten zalantzan gelditzeko : « En cuanto pise
Vd, tierra vasca, será fusilado » ; alegia, Euskal Herrian sartu
bezin laister, afusillatua izango zera. Apaiz zahar eta ospatsu
bat, karlista ezagun bat... eta horrela hartu...

*
**

1833-an, besteko, ez doatzi Don Karlos'ekin euskaldun guziak.
Ez. Gehien-gehienak karlistak zirala egia da : herriak, osorik
(eta ez beti bildurrez), mendira joaten ziran. Horrelaxe aitort-
zen dute liberalen buruzagi-buruek gerlako albisteak Madrille'ra
igortzean ; Olano'k (berriz ere bera mintza) hauxe dio Espai-
ña'ko Parlamentuan : « Nere herriak lau milla lagun ditu, eta
Erregiñaren aldeko ez giñan hamabi baizik. » Eta Espartero'k
berak hau zion : « Probintzia hauek zigor ikaragarriren bat
merezi dute : harriak berak gure kontra ari dira, eta haurtxoak
berak karlista dira ; bildurrak ez bestek atzeraraz dezake biho-

tzik gabeko zital-kasta hau. » Eibar'en, adibidez, gerla hastean, beren buruz presentatu ziran herriko etxera, xixpa eta bala eske, baita hirurogei ta hamar urtetako agureak, eta hamairu-hamalauetako mutillak ere. Herri guzia altxatu zan. Irakurgarria da kondairagille batek (liberala eta espaiñola izanik) 1833-ko urteaz diona : « los facciosos, como naturales del pais, hallaban en cualquier punto apoyos y auxilios ; al paso que los cristinos eran mirados con el mayor odio y aversión ». Eta urrengo urteaz ari danean : « por más que nuestro gobierno circulaba órdenes, no eran obedecidas ; y las del jefe Zumalacarregui se acataban por los ayuntamientos, y eran leídas en las iglesias, aun en los pueblos más inmediatos a poblaciones grandes, como sucedía con los que estaban alrededor de Bilbao. »

Hala ta guziz ere ba ziran Euskal Herrian euskaldun liberal batzuk : hiritarrak eta jende ikasiak gehien bat, hau da kaletar aberatsak. Dударik gabe hasierako-gure karlismoa herri xehearen alde jokutzen zan, eta herri xeheaz ornitzen zan karlista armada. Karlismoa herrikoa zan, demokraziaren defendatzaile sentidu batera. (Ez Espaiña'n, ojalateroen jatorriak ongi erakusten duen bezela : apezpiku, aiton- seme, eta europar haundiki-ohiak...). Orduko-gure liberalak ba ziran, Euskal Herriari beti nagokiola, pittin bat Paris'ko « gauche du seizième » esaten danaren antzekoak ; alegia : ongi bizi diranen progresismoa. Eta hain ziran aitzinakoiak eta berrizaleak... askotan Euskal Herriarekiko mesprextutik hasten zirala. Eta egia da gizonak beti bat eta berbera dirauela... Euskal-Herriko lehenengo karlistadak ba du klase-gudu itxura hau, eta behar dan bezela aztertzeak merezi luke. Egin aurretik ere nere burua karlisten artean ikusi uste dut hango giro hartara nere pentsaerarekin « birlandatur »... Uste dut.

Gutxi izanik ere, euskaldunak izan ziran euskaldun karlisten etsairik famatuena : Iriarte, Jauregi « Aritzai », Espoz-Mina Ibargoiti'koa, Gurrea, Oraa, eta... Harispe baxenabartarra ! « Txapelgorriek », hau da euskaldun liberalek, « La Marseillaise » kantatu ohi zuten-gure mendietan, eta ez zuten kupidarik odol-zeko anaiekiko.

Ipar-aldeko euskaldunik gehienak (ez Sara'ko Hautziarte famatua edo Atharratze'ko Xaho xoillik, lapurtar, baxenabartar eta xiberutar asko baizik), Don Karlos'en alde agertu ziran. Zal-diak eta mandoak iparraldeko Euskal-Herrian eta Landetan erosten zituzten karlistek ; eta mugari buruz (hau ere lotsagarria !) Harispe baxenabartarrak kontrabandoa eta ixilpeko harat-hunatak zapatzeko agindu gogorrek eman arren, mugarik ez balitz bezela gertatzen ziran gauzak. Maiz aipatzen da Ibarnegarai Iparralde'ko Euskal-Herriaren eskuintasuna azaltzeko ; baiña ni atzerago jo behar dan nago, iturburua karlismoaren denbora haietan aurkitu arte.

Euskaldun karlistek, arira itzuliz, espaiñol agertzen zuten beren burua : « Hemen nago — Bilbo'n dago hau esatean — espaiñolen Errege dan Karlos'en Armadako buru », dio Zumala-

karregi'k. Zumalakarregi arrunt da euskalduna, eta aski espaiñola ere batera. Biak ezkondu nahi ditu, bihotzez askoz ere hurbillago izanagatik ere Euskal Herritik.

Gure karlisten bi ezagugarri aipatuko ditut, nabarmen-nabarmenak biak.

Lehenbizikorik : euskaldun karlistei ez zaie burutik pasatzen Lapurdi, Baxenabarre eta Ziberua'ren euskalduntasuna politika-ren maillan obratzea. Iparraldeko euskaldunei ere berdintu : Xaho'ren « Voyage en Navarre » liburuan, xehetasun batek utzi ninduen guztiz harriturik. Xaho'k, aitzina-koa eta karlista batera, ordu hartako ezkertar abertzale beraz, Zumalakarregi'ren esanetara jartzeko pasa zuen muga. Eta, ulertu-eziña, Zugarramurdi'ra iristean, Espaiña'ko kutsua aurkitu om̃en zuen !!! Eta, euskaldun eta euskaltzale momentu guzietan agertuta ere, liburua frantsesez izkiriatu, eta espaiñol giroa emateko nunbait, espaiñolezko hitzak jartzen ditu hemen eta han euskaldun karlisten ahoan... Eta Iparragirre'k berdintu : Bergara'ko pakea onartu ez zutenarik bat izanagatik ere, eta arrunt euskaldun eta euskaltzale, Bidasoan sentitzen du muga (ez Baiona'n edo Aturia pasatzean), eta kantatzen : « Ara Espaiña, lur hoberikan... » Ez da posible huntan guzian mentura hutsa baizik ez izatea.

Gehien gehienik « laurak bat » agor hura senditu zuten karlistek, eta gaingiroki bakarrik. Ipar-aldeko anaiak anaitzat zituzten, bai era batera ; baiñan... berek espaiñartzat zeukaten beren burua, Xaho'k berea frantsesizat jotzen zuen bezelaxe.

« Espaiñola eta euskalduna ere bai », zioten berek ; guk gaur, agian, euskalduna eta europarra esan dezakegun bezela. Haiek espaiñiar errejionalista ziran, gu europar errejionalista geran bezelaxe. Liferentzia batekin, halere : gaur ez dago asiar errejionalistarik gure artean ! Anaiak ziran hizkuntzaz eta naturaz ; baiñan erresumaz eta politikaz erengusu, edo laurengusu bakarrik...

Bigarrenik ; espaiñol agertu ziran ere beste puntu nagusi batean. Zumalakarregi Ormaiztegi'koa, Eraso Barasoain'goa, Valdespina Ermua'koa, eta Villarreal Larrea'koa (probintzia bakoitzean ezagunena bakarrik aipatzeko), hizkerari gagoizkiola, euskaldun hutsak ziran ; hau da : euskaldunak. Soldaduak ere, kondairan milla aldetatik froga ditekean bezela, euskaldun hutsak ziran ere. Euskaldun karlisten armada, euskal nazio-aramada egiazkoa zan alde huntatik. Denbora hartako espaiñiar istoriariek, jakiñarazten diguten muntaz ohartu gabe, oiñu hau jartzen dute karlisten ahotan, bataillen hastapenetan : « Aurrera mutillak ! ». Hauxe omen zan betiereko oiñua. Eta hunen berri ematen dutenak, liberalak dira eta espaiñolak ; alegia : gehiagor adierazi digute horren bidez, noski, karlisten ez-jakintasuna, beren euskalduntasunaz edo herri-zanpatzeaz baiño. Ulertu-eziñezko eta arrotz zaien karrasi ikaragarri hori. Ameriketako inditarren dehadar basati iruditzen zaie kondairagille horiei, eta bitxia dalakoan aipatzen dute. Lichnowsky'k ere, (eta bes-tek), kontatzen digu ez espaiñolez eta ez frantsesez ez zekiten

euskaldunek, « bai, jauna » esaten ziotela eten gabe, besterik konprenigarriagorik erderaz ez jakifik; eta hitz horien bidez, Lichnowsky'ren nagusitasuna errespetatzen zutela adierazi nahiz, omen. Berdin zaigu hori orain.

Karlisten agintariak (Erro andoaindarrak danetan eredu) kanpotik miresten dan jostailu bat bezala zeukaten euskera. Ez zuten euskera beren abertzaletasunaren haragitzat hartzen. Erro'k etimolojiak egiten zituen txolarteetan; baiñan ez zan esukeraz mintzatzen ezinbestean baizik. Euskera soldaduen hizkuntza soilla zan; baiñan ez agintariena. Agintariak, euskera ondo jakiniak ere, eta euskera askotan goraiapatu arren (ez Erro'k bakarrik : Valdespina usu harrotzen omen zan euskeraz ongi egiten zuela esaten bazitzaion, eta Xaho beste hainbeste), mintzabidetzat erdera zeukaten, eta euskera hitzaspertuetarako abandonaturik. Beren etxeak eta familiak erdaldunak ziran.

Ez da ahantzi behar ere euskera orduan orain baiño biziago eta hedatuago zegoela eremuz. Barrès du Molard'ek, esate baterako, aipa nitzakean ehunen artean, Don Karlos'en koronela izan ondoren, hau idazten du bere « Oroitzapenetan »: « Hizkuntza hau (euskera, jakina), mendi-gaillurretara ari da, zelaie-tatik iges egingo balu bezela. Horrela, Lizarra'ko (hau da : Estella'ko) inguruko herrietan, zaharrek bakarrik gorde dute euskeraz mintzatzeko ohitura ». Gauza bera gertatzen zan Larrainzubi-Garetz'en, eta Tafalla aldean.

**

Altxatu ziran, bada, gure karlistak; eta bero-bero, eta borondaterik zuzenarekin, mendira joan ziran. Bihotz (eta doillorke-ria...) guziarekin ere liskartu ziran Euskal-Herriko ibarretan eta tontorretan. Zumalakarregi'k, handik ehun urtetara Saseta'k bezela, nekazari mordo batetik, egiazko armada bat egin zuen. Behin eta berriz, batak bestearen ondoan, kolonietako gerletan nabarmendu ziran español militarrek lurjo egin zuten Euskal Herrian. Espaiñiarren mamutzarra bihurtu zan euskaldunen armada. Zazpi urtez eutsi zion guduari, Espaiña guziaren kontra, eta euskaldun famaturen kontra ere bai, Euskal Herriko arma-kiak, ia bakarrik. Gehiago ere; Europa'ko gobernurik gehienak « liberalak » ziran-eta...

Baiña sakrifiziorik bildurgarrienak ez ziran aski izan. Galdu egin zan gerla, eta Fraitzia euskaldun karlistaz bete.

Euskal Herriaren gain-behera hasia zan.

**

Halarik ere, euskaldunek ez zuten ez amor-eman, ez fitsik ere ulertu. Eta urteetan barrena, teman eta itsukerian (itsutasuna ez baita), herriak ahaztu, agintariak nekatu edo hil, xedeak lardazkatu...

Nola ikusten zan orduan, eta geroko urteetan, Euskal Herriaren salbazioa? Garbi dago nolatan : Madri'lle'ra, gosta-ala gostarik ere, Don Karlos eramanez

Ohar bat : Don Karlos'en joate horrek, sustraiean, hau esan

nahi zuen : lehenagoko erregetza-mota ekarrarazi behar zala Espainia'rat, Euskal Herriaren etorkizuna, Espainia'ko absolutismoari loturik gelditu zan betirako.

Oso ezaguna da makur hunen segida. Geroztik, Lege Abolutu baten alde lanegin dute euskaldun karlistek. Euskal Herriaren soluzioa hortik beretik pasatzen dalakoan, mementoko egoerak eskatua, garaipide huts zana, helburu nagusi billakatu zan. Karlismo euskaltzale hura aittu zan : abertzaleenek, Arana Goiri'ren inguruan, Euzko Alderdia sortu zuten. Eta gaiñerakoak, gero eta arrotzago, beti Madrille-ra so... Esteban Bilbao, Franco.

Istoria aurrera doa. Atzera-nahi zoro hartako bidea euskaldunen eta karlismoaren ezin-bestezkoa egiñik, biek beren burua urkatu zuten. Erregetza zaharkote hura ez baitzan berriz ere Maadrille'ra etorri; hillak kanposantutik itzultzen ez diran bezelaxe.

Euskaldun karlismoa, hasi-berrian euskaldun eta euskaltzale, piskanaka bestelakatu, arrotzu, erdaldundu, eta azkenean usteldu egin zan, Euskal Herriaren kontra azkenean nabarmen jokatzeko. Abertzaleen etsairik zitelenak, karlisten jarraitzaileak izan dira XX-garren mendean. Nor galtzaille ? Euskal Herria, Madrille'ra so jarririk, berriz ere zatitu zalako.

* *

Ba dago hortan guzian zer ikasirik !

Hala ta ere, irakurle hori, hunat hemen ikaragarriena.

Egin dezagun alkarrekin gogoeta erraz bat. 1833 jarri dudan lekuan, jar zazu zuk 1936; erregetza absolutuaren orde, jar zazu zuk errepublika liberala ; ezkertar idatzi dudanean, idatz ezazu zuk eskuindar. Liferentziak ba daude, beharrik; ba daude, nahi baduzu, liferentzia koxkorak. Eskergak ez. Baiñan funtsean jokabideen sustriaren muiñean, sakon-sakon hortan, zer aurkitzen duzu ? Izenak aldaturik, eta Espainia'ri buruz bestela jantzirik, karlismo berri batean ari gerala, nik uste.

Karlismo zaharrak eta karlismo berriak diotenez Euskal Herriaren salbazioa Madrille'tik etorriko da. Oraingoazko gure eginbeharra (« taktika hutsez », noski !) Espainia'ko gobernu-mota bat agintzen jartzea da. Ipar-aldeko Euskal Herrian lehengusu-mordo bat ikusi behar dugu gaurkoz, ez Euskal Herriko eskualde bihotzeko bat (1936-ean etorritako « euzkotar » batzuk ez ahal dute ba esan, seriotan, « hainbeste urtez erbeste » — en el extranjero, sic — bizi beharrez, Bidarrain edo Donibane Garazi'n 28 urte igaro ondoren, euskeraz ikasteko ez betarik eta ez erarik ez dutela aurkitu ?). « Abertzaleen » etxeetan, euskeraz aisa mintzatu ahal izanagatik ere, erdera izan da nagusi eskuarki; eta buruzagien beren seme-alabak « franco-españolak » dira... Besterik eta onik ere egin dutela gure aurreko abertzaleek ? Eta nork ukatu du ? Baiñan aurrerago joan behar da; eta abiatu aurretik aurrerako bidea nondik nora doan ikusi behar ere, eta atzeko behaztopak ez berritzeko neurriak

hartu. Kritikatzeko eskubidea, errespetuz bai, baiñan hoztasu-
nean ere, fatxistek bakarrik ukatu ohi dute.

Neuri Berastegi'ko gertaerak Laredo'koa gogorazten dit,
Zumalakarregi'k Saseta, Mina'k Beorlegi, Harispe'k Ibarnegarai.
Eta hunenbeste urtez Madrille'koen zai egon beharrak, karlisten
« Volveré » hura. Ehun urte hauetan, funtsean diot berriz, ez
bide dugu ezer ikasi; zoritxarreko bide itsu hura oraindik ere
abertzaleon bidea baita.

Dударик gabe : euskalduna baiño aldakaitzagorik ez dago.

Baiña, batetik, ordu ezkerotik Euskal Herria erdaldundu
egin da. Eta, bestetik, karia edo zio berberak ezin daramakikete
ondore beretara baizik. Heldu da beraz, gertu dago alegia, lais-
ter — igarle izan beharrik ez dago — gure Esteban Bilbao
« errepublikazale eta liberal » bat; eta bi, eta hamar.

« Larrazabal'go Ziña », « Bizkaya por su Independencia »,
« Euzko Alderdi Jeltzalea », eta abar : denak, nahi-ta-nahiez, kar-
lismo berriaren kontra sortuko dira. Are gehiago : sortzen ha-
siak dira, eta esatea ez da batere zozokeria bat : irakurleak nik
bezin ongi dazki erakunde eta liburu berri horien izenak. Nola
ez ?

Gauzak horrela, eta azken urteetako kondaira negargarria
ezagutzen dugularik, nola utz dizaiokegu, Euskal Herriari berriz
ere beste kolpe dorpe bat eman gabe, karlismoaren bide gal-
garriari ?

Hauxe izan beharko litzake abertzale fiñ guzien kezka nagu-
sia. Bide beretatik abiatzen hasi geran ezker, nola tenk-egin
nola bazter-eraz gure herria heriotzara eraman dezateken bide
legunetatik ? Beste mende odoltsu bat gabe, gure aberriaren
haragi ahuldua berriz ere urratu gabe, nola joka ? Ez, noski,
lehen bezelaxe, igaro dan denboratik deus ere ez ikasiz. Ez. Kon-
daira ausnartu behar dugu hozki, eta dagozkigun jokabide be-
rriak ermo finkatu.

Beharrezko eta premiatsu dan gogoeta hortan lerro hauek
zerbaitetan lagun bazaitzateke, irakurle hori, ni pozik : Eus-
kal Herriko kondaira illuna, izan bekigu bederen, geroari buruz,
argi eta bide-erakusle.



Eskuindar eta ezkertar

« **B**AINA, ba ote dago oraindik ezkertarrik eta eskuindarrik ? » Ziur naiz norbaitek hau galdetu duena. « Gaur — jarraitu duke — liferentzia horiek oro, ezabatu eta ahantzi egin dira ».

Eman bizaio Alain'ek, nere ordeaz, erantzunik egokiena : « Ezkertar eta eskuindar alderdien arteko etendurek, edo ezkertar eta eskuindar gizonen artekoek, oraindik ere zerik ote dutenez galdetzen didatenean, lehenik datorkidan ideia hauxe izaten da : horrelako galdera bat egiten duena ez dala, eskerki, ezkertar ».

Salatu egiten du galderak galdetzaillea, dudarik gabe ; eta Alain'en erantzunak erantzulea ere salatzen baitu, nihaur salatu nau. Eta ez zait gaitzi : nahiko nuke bihotzez izen hori, ohore litzaidake ; nere burua galdegilleen artean aurkitzea litzaidake laidogarri hain zuzen.

Beste batzuk, aldiz, ez dute galdera hori egiten ; baiñan akats edo eritasun gisa nartzen dute banaketa hau ; eta ikusteko era hunek ere berdin salatzen ditu. Ortega y Gasset'en ezker-tasunaz (?) horrengatik, aspaldi ezkeroztik finkaturik daukat guztiz bestelako iritzi bat. Zer pentsa diteke, irakurle, ondoko hau izkiria dezakean « ezkertar » batez ? : « La obra intelectual aspira, con frecuencia en vano, a aclarar un poco las cosas, mientras que la del político suele, por el contrario, consistir en confundirlas más de lo que estaban. Ser de la izquierda es, como ser de la derecha, una de las infinitas maneras que el hombre puede elegir para ser un imbécil : ambas, en efecto, son formas de la hemiplejía moral ». (« La Rebelión de las Masas », 17 gn. horrialdean). Mussolini'k ez zukean bortizkiago esango españiar sasi-aurrerakoi eskuindar hunek baiño...

Alabaiñan, ondokoan ageriko dan bezela, ezkertarra egiazki izatea oso da zailla. Nahiko nuke, beraz, izen hori; baiñan egiazko ezkertarretarik bat ote naizenetz ez dakit.

Ba dira, hortaz, ezkertarrak eta eskuindarrak. Ba dira, noski, politikan, politikan sortu baitzan banaketa-modu hau.

Baiña ba dira ere eskuindarrak eta ezkertarrak gaiñerako gauzetan : literaturan, musikan, midikuntzan, zineman, industriari, pentsaeran, sukaldaritzan, eta beste zernahitan.

Barne-barnetik dator berezte hau : ezkertar dana, danetan da ezkertar; era berean, eskuindar (edo eskubitar) dana, danetan da eskuindar.

Azkeneko urte hauetan indar berri bat eman diote bitasun eta zatika-bide huni soziologo batzuk : Berkeley-eskolaren ustez, nunbait irakurri dudanez, gizonak funtsez bi taldetan bana ditezke omen : aginte-zaleak edo larderiakoiak batean, eta liberalak-edo bestean. Alegia : ezpafiñestuak batean, eta jatorriak bestean...

Nik, egia esan, askok bezela, soziologo izan ez arren, eta teoria horien berri izan baiño azkozaz lehenagere, bitasun horren egia ageria ba neukan aspaldi huntan somaturik. Nola hori ? Adibide argi batzuk emango ditut : gutxi ezagutu dut OAS-aren aldeko eta, denbora berean, Picasso'ren aldeko. Espaiñia'ko ezkertarrak, Azaña gonbarazio baterako — eman dezagun oraingoz Azaña ezkertarra izan zala — zezenen kontrako izan dira, eta aldeko amorratuak aldiz izan dira eskuindarrak : frankistak eta karlistak, esate baterako. Integristek — hots : eskuindar — begi txarrez ikusten dute Teilhard de Chardin (irakur, berriki, Ruffini'ren esanak Erroma'n, eboluzio edo billakarearen kontra), eta begi onez Ottaviani. « Europe des Patries » deritzan huskeria hori ontzat ematen dutenek, ez dute eskuarki Resnais'en zinema-mota maite izaten. Azkenik, ikastaroan beti lehenbiziko diranak, askotan, gehienetan (ikus huni buruz ondoko saiakera berezia) Prokoffief'ez eta Buffet'en etsai billakazten dira denborarekin.

*
**

Bereala sumatzen da, beraz, bi talde nagusi horiek daudena. Egiazko gizonen eta taldeen illaran (kondairan agertu diranak, alegia) konturatu gabe pasa diteke, jakiña, mutur batetik besteraiño : eskuindar hutsak, eta ezkertar hutsak, lerrokadaren azken muturrak baizik ez dira. Ezkertartzat edo eskuindartzat hartu ohi dana, lan-baldintza bat da. Ez bata eta ez bestea, hutsak eta osorik, ez dira kondairan aurkitzen. Berezitasun guzizko hortan, geure buruan baizik ez dira.

Baiña ba dira munduan, hau bai, arras eskuindar ez izanik ere, txit eskuindar diran gizonak (gizonik gehienak...); eta ba dira ezkertar xamar diranak ere (millatarik bizpahiru...). Kondairan edo kalean aurkitu ezin ditezkean gogozko erduez ariko naiz hemen, eskuindartasun guzizko hortan munduan alerik atxeman eziñik ere. Eta koefiziente bat erantsi ezkeror, irizpide batzuk agerrarazten entseatuko naiz.

Ondoreak ateratzen hasi aurretik, bidezko jotzen dut ezker-tasuna eta eskuintasuna zertan datzaten aztertzea. Eta ohar bat egin behar dut : ezkerter izatea ez dala « ezkertar » izena erabiltzea. Orain arte aurkeztutako xehetasun tipi horiek, eta segidan emango ditudunak batez ere, neurritzat hartzen badira (eta hala behar da, nere ustez) edonork ikus dezake komunis-tak, gonbarazio baterako, puntu askotan eskuindar gisa jokatzen dirala. Steinbeck ezkertarra da; eta Faulkner eskuindar amorratua. Gure Oteiza ezkertarra, baiña Zuloaga eskuindar.

Berezi egin behar dira, beraz, ez nahastuzeko, ezkertarrak « ezkertarregandik » batetik; eta eskuindarrak « eskuindarren-gandik » bestetik (bigarren huntan lehenengoan bezin behar hertsirik izaten ez bada ere). Guztiz gutxietsi gabe, komilla horiek ez baitira aldika arras beharrezkoak.

Bi sail nagusi horiek alkarrekiko etsai diran ezkerro, eta bata bestearen ukaera hutsa, aski izango dut talde edo sail horietarik bakar baten sustraia aztertzea, bestearena horren aurkakoa baizik ez baita.

Hobeki azalduko dut nik eskuindarren muiña, ezkertarrena baiña. Lehenbizikorik, zeren eskuindarrak gehienak baitira, eta ulertzeko errazanak; eta danok, hein batean bederen, eskuindar kutsua baitugu. Eta bigarrenekorik, zeren zuhaitzek ez baitute basoa ikustera uzten. Bi zio horiengatik, eta eskuintasunaren basoa (egoki datorkit hitza, alajainkoa !) ustez behintzat urru-nago dudalakoan, lehenengoan barne-izaerara daramaketan bi-deetan aurrera abiatuko niz.

Bi giza-mota daude; bata gordetzaillea da, bestea berrizale; bata izkutukoi, izkutuki eta mixterio guzien kontrakoa bestea; batak dagoena ontzat ematen du, txartzat berriz besteak; bata ohituren eta lege zaharren eusle et jarraitzaille da, bestea aldiz edo hausle edo sortzaille. Bata geldizale eta atzerakoi, edo erreazionario; eta bestea berrizale eta aurrerakoi, edo progresista.

Ustez, berriz diot, eta nahikunde bezin bederen, ezkertarregandik nere burua bertago atxematen dudan ezkerro, abia nadin eskuin-tasunaren muiña puntuz puntu ausnartzen.

*
**

Eskuintasunaren lehenengo ezagugarria aisa nabarmentzen da, nere ustez : eskuindarrak arrazoiñez kanpo (edo-ta kontra ere !) sifiensten du, adimenduaz kasorik egin gabe jokatzen da.

Karlistak, aita karlista zalako izaten dira karlista, besterik gabe. « Algérie Française » harek ez zuen ez bururik ez ankarik. Baiña Susini edo Bidault'en ustez, lurralde hura, Tammanras-set'erañio bererañio frantsesa zan arrunt. Nondik nora ? Kitto : hala zan !

Beharbada erlijioaren maillan agertzen da ongienik eskuin-darren pentsaeraz kanpoko joera hori : Franco'ren menpean errazago gordetzen du fedea eskuindarrak, ezkertarrak baiña; Staline'ren menpean aldiz kristau fedeari atxikituzeko, ezker-tarra izan behar zan. Ezkertarra jartzen da kontra. Eskuindarra

ez. Eta kontra jarri aurretik pentsatu egin behar da. Eskuindarren iritzia ongi bildu zuen hitz gutxitara Millán Astray'k, Unamuno'ren kontrako bere hitzaldian : « Hil bedi adimendua ».

Baiñan eskuindarra, egia esateko, ez da ideia hauen edo haien kontra jartzen, ideia guzieren at, eta azpian batez ere, baizik. Eskuindarra bihozkadaz ari da.

Aztertu baiño lehenago siñesten du eskuindarrak; eta gero ez du siñetsiaren azterketa bat egin beharraren aztarrenik ere senditzen. Ez behar, eta ez nahi.

Ezkertarrak aldiz teoria bat sortu behar du hasieratik, egingdako aukera ulertzeko. Huntarako, ordea, bi urrats egin behar dira : dagoena zalantzan ipintzea aurrena; eta iritzi berri bat sortzea ondoren. Marx ezkertarra izan zan, esan nahi dut; baiñan Errusia'ko gaurko komunixtarik gehienak konterbadore hutsak dira. Picasso ezkertarra izan da; baiña bere jarraitzaille anitz, eskuindartzat jo diteke egungo giroan.

« Lehenik fedea etorri ohi da, omen, eta gero dira profetak irakurtzen ». Egia da ezkertarrei buruz. Ezkertarrek, nik uste, gero bederen, fedez zerbait irakurtzen dute : ezin jarrai zalantzan eta itsu : zentzugabeak, desarrazoiñak, bildurra ematen dio, dardar jartzen du.

Eskuindarrak ez du, ordea, profetarik irakurri nahi, ez baitu beharrik. Bildur da gaiñera : zeren-eta agian irakurri ondoren, zerbait « gaizki konpreniturik »-edo (ez gauzaren bat ulertu-eziñezkoa zaiolako, jakiña !), ez ote zaion zalantzaren bat piztuko. « Hobe da gauza horietaz ez pentsatzea », dio. Camus'ek eta Unanumo'k, Marx'ek eta Sartre'k, deabruaren mezua daramate...

Integristak horregatik ez du Ebanjelioa sekulan irakurri, are gutxiago errespetatu. Behar ez diran (sobera diran...) oharrrak eta sasi-azalpenak erasteko eta siñestarazteko, ez du ahalkerik. Huntaz, eta beste batzuek, Luther ezkertar agertzen da; eta, egiaz, ordu ezkeroztik, katolikutasuna eskuindar kristautasuna billakatu da. Nafarroa eskuindarra da : XX-garren mendean Franco'ren alde, XIX-garrenean absolutistekin... eta XVI-garrenean protestanteen kontra !! Ez da gaurko afera... Eskuindarrei buruz, beraz, egokiago esan diteke : « Lehendabizi fedea etorri ohi da; gero profetak lardazkatu eta arbuia egiten dira ».

Hauetatik datorkio eskuindarrari bere siñespenaz eztabaidarik txikiarik ere ezin entzutea; zeren ez baitaiki fisik, ez baitu nehoiz ere bere fedez lerrorik irakurri. «Ahulezia» horiek ez ditu maite. « Metrailetan hizkuntza » nahiago du, falanjista harek zion bezela. Poujade'ren iritiz, Fraitntzia'ko Parlamentoa « ukullu » bat da. Léon Bloy'renaz, Luther ez zan « behi-pixen edale bat » baizik ». Arrazoiñik eman ez. Zertarako ? Gauzak « hala dira », eta besterik ez. Zioka, edo hizka (okerrago dana) ibiltzea, erortzea da, behar ez dan saldukeria bat egitea.

Politikazko askatasuna pekatu larri zaio; are larriago Er-

lijioaen maillan. « Guk bezela siñesten ez dutenak, surtara »... « Gora Inkisizioa ! »...

Etsaiak eta erejeak Saint Barthélemy'ren gau beltz bat egi-teko dira on, ez bestetarako. Etsaiak Urbasa'tik behera bota, Amezkoa'ko bazterrak karrasiz eta gorputzez bete, eta gero Le-zaun'øn meza ematera ! « Hala behar da... Nahastalerik ez... Fedea garaille gerta bedi... Jaungoikoak nahi du : « Dios lo quiere »... Horra hor katea. Guruzada hasia da.

Zenbat gizajo ez ote dan hil Erdiko Aroan, eta XIX-gn. menderarte, prestuki eta tristerik bizi ondoren, « gezurretan, hobendun » zalantzarik batere gabe « harrapatu » (omen...), eta burdiña goriaren frogan Jaungoikoak « ez lagundurik »... Zenbat haur errugabe eta maitagarri ez ote dan ito, Inkisizioaren esku odoltsu haien artean, « ur hotzaren » frogan Jaungoikoaren borondatea (?) hilkitza nardagarri haien bidez, goratik eta garbiki, ixiltasunean « mintzaturik »... Halere, izugarrikeria horiek gertatzen ziran aro hits hura zitzaion Bloy'ri (eta zenbat eskuindarri !) zoragarri eta desiragarri...

Horra hor guruzaden hildoa : Jaungoikoaren nahia bete nahi ez duena, ifernuko etsaia billakatzen da. Hil bedi piztia itsusi hori : hil bedi, hil beza Jaungoikoak, hil dezagun guk !

Aisa igar diteke bide hortatik abiatu noraino joan ditekean; eta, zoritxarrez, noraino izan dan joana.

Eskuindarrak, funtsean, ez du konfiantzarik bere ideian; ez baitu behin ere bere ideia aztertu eta buruz neurtu, eta ez besteena ere; ideia guziak, egia esateko, pixurik gabeko illaunak baitzaizkio.

Demokrazia eta libertate guziei kaltegarri irizten die. Horra hor diktaduraren defendatzaile, eta nagusikeria guzien aldeko; hor dugu liberalismo guzien kontra abiatu. Ukakor porrokatua dalako, segurtamena behar du : agerian, trinko eta zindo. Ikusi eta ikutu egin behar du egia. Ez dauka zalantzan ibiltzerik; eta pentsaeraren alaba deritza zalantzari. Horregatik dio : « Hil bedi adimendua ». Alegia : « agor bedi zalantzen iturria ».

Adimenduaz kanpo, edo kontra, siñesten duena, arrazoietarik arteko segurtamen horren billa abiatzen da; eta ezinbestez mirakuilluak siñetsi behar izaten ditu : dala Malakias'en igarpena, dala Fatima'ko mehatxu gordea, edo ez dakit nik zein santuren mirari, berdin : siñetsi egiten ditu danak. Pentsatu gabe ere, egian dala erakusten diote horrelakoek, bere eginbideetan Egiak berak daragiela, Jaungoikoaren beraren nahiaren arabera jokatzeko dala. Jaungoikoa horietan, galatsia guzien nagusi izanagatik ere, bere biziz eta katramillez nabarmen kezkatu ikusita, pozik dago : « orain ba dakit, — dio — nihaurk dut egia ».

Ama Birjiñaren agertaldi guziak batez ere, erraz onartzen ditu : Ezkioga'ko gertaerek, gonbarazio batez, ongi erakusten dute orduko abertzaleen joera; abertzaleek hanpatu baituzten gehienik zerutikako seiñale hura. Ama Birjiñaren igokundea, era

berean, eskuindarrek onartarazi zuten (eta Espainia'ko integristek oso bereziki), ez liberalek; eta Pio XII-garrenak jakiñarazi zuen ofizialki, ez Joanes XXIII-garrenak.

Ba dira, beraz, mirariak : Jaungoikoa adimendua bortxatuz ari da munduan, ixilka eta misterioetan.

Eta hala-hala gertatzen dira ere madarikazioak : deabruen berri izan diteke adimenduz kanpo : azpiko jokoaz aztertzea dago.

Ifernuko etsaiak (« ifernuko etsaiak » zaizkio-ta etsaiak oro) ez dira berak ere agerian ari. Ez. Gaistoak dira, arrunt gaistoak; eta izkutatu egiten dira. (« Ku klux klan »ekoek, eskuindar izanik, errudun aurkitzen dute beren burua.) Ifernuko etsaiak beti ari dira azpikerian. Agirian ari izango balira, zer-bait jakin ahalko litzake, garbi ikusiko litzake. Eta hau ez hortatik eztabaida ero bat sor liteke, eztabaida guziak ero eta kaltegarri baitira. Beraz, izkutuan ari dira etsaiak, derriorez gainera. Hortaz : « berak, izkutuan ari dira ; eta kitto ».

Horra hor masoneriaren kontrako aitzakiaren iturburua, horra hor eskuindarren gorrotoaren kakoa : masoiak ixilpean ari dira. Masoiak dira errudunak : akaba ditzagun, eta paketa biziko gera...

« Hil ditzagun juduak, eta dana konponduko da milla urte-tarako », zion Hitler'ek. Eta ez hitlertarrek bakarrik. Gogora ekarri besterik ez da : Vaticano'ko Biltzar Nagusian zenbat istillu eta hizka ez ote duen sortu juduen aldeko deklarazioak.

Konstantinopla'ko Sion-Biltzar Nagusiaz eskuindar bat baiño gehiago mintzatu zait neri, guztiz zinki, amaña bat kezkatu-rik, orduan juduek egin zituzten milla igual eta tratu gordetan benetan siñetsirik : « Biltzar madarikatu hartan, munduaren galera deliberatu zuten judu urde-zikin horiek », diote gutxi gora-behera; « berek kontrolatzen dituzten indar gorde guziak bildurik, munduaren ardatza koloka utzi zuten ». Orduantxe egin omen zan ere juduen eta komunisten arteko tratua !! Nere lagun horien ustez, juduen baimenik gabe ez da munduan zipitzik ere gertatzen. Ez dut ongi konprenitzen, halere, Eichmann'en hilketa ikaragarria nola utzi ote duten... Ba dakit, neure belarriek berek aditu dutelako, zein dan eskuindarren azalpena : Eichmann'ek ez omen zuen judu-mordoska bat baizik hil. Bost milloirena, eta gainera, juduek berek antolatutako propaganda hutsa omen da. Gertaera xume bat, edozein gudutan normala, hanpatu egin omen da...

Funtsezko joera horri berari atxikirik, bi politika omen daude, bi istoria : Pasternak'ek, esate baterako, eskuindar amorratua zan aldetik, hitz hauekintxe dio bi kondaira eta bi mundu daudela : « les liens qui unissent les mortels sont immortels... la vie est symbolique... ».

Ba dago kondaira bat : ageri dana, prentsan irakur eta liburuetan ikas ditekera. Baiñan, (hau oso inportantea da), kondaira eta mundu hori faltsua da, gezur hutsa, ageriko munduaren kontrako hutsa. Huntan ere eskuindarra ukakorra da : alegia,

kondaira ez da inñundik ere egia. Ez dago sekulan deus ere konprenitzerik. Zergatik ? Beste mundu hori, izkutua, itxurek estalia, errotik dalako adimenduaz kanpokoa.

Eskuindarrek — aurrerago huntara itzuliko naiz berriz — konprenitzearen ahala edo aukera bera ukatzen dute : gizonik haundienek, adimenduaz edo sendimenaz, ez dute besteek baiño gehiago ulertzen ; baiñan azkarrago diralako, iruzur egiten digute. Eskuindarraren iritziz, politikaren mundua, edo artearena, edo ekonomiarena, konpreñitu-eziñezkoak dira, eta berez dira ulertu-eziñak ; ez gure eskasiaz.

Ezkertarrek, aldiz, munduaren bigarren mailla hortaz hitzegiten dutenean, ez dute berek ikusten, eguneroko mundutik at eta kontra ; eguneroko munduaren goiko mailla berri bat beze-la baizik. Itxuren azpian mogitzen dana, beraz, ulergarria da : ulertzea edo ez ulertzea azkartasun-kontu bat baizik ez da. Ezkertarra baikorra da berriz ere.

Eskuindarrak « loggien » lana ikusten du nun-nahi, edo komunisten eragiña. Ezkertarrak ez.

Huntatixek datorkie eskuindarrei, juduak, masoiak, eta protestanteak nundik edo handik « harrapatu nahi » bizi hori, gure artetik bota nahi hori, ehiza-molde lotsagarri hori. « De Gaulle judua da » jakiñarazi zuten frantses eskuindarrek pozaren pomez, Argelia'ko gertakari « ahalkegarriak » konpreñitzen ez zituzten jende zozoak iratzartu eta asaldatu nahiz. Alegia : « horra hor gaullistek jakiterik nahi ez dutena ». Eta eskuindarrak asaldatu egin ziran : « Las loggias trabajan » zioten... Alegia : Loggiak karraskan ari dira lanean, bai : bistan da... Eskuindar guzien ustez Mao eta Kruxef sasi-burrukan ari dira : mundua hortara aisago irabazte arren, alkarraiturik daude aspaldidanik. Guk ez dugu jokia ikusten : besterik ez da omen.

Eta hau guzia ez politikan bakarrik. Picasso'k, hil-berri dan Braque'k, Buffet'ek, eta gaiñerako abstraktoek edo informalistek, tratu bat egin omen dute izkutuan, jendearen zozokeriaz, eta aitzinakoen koittautasunaz, baliatzeko ; eta ederki eta lasai bizi omen dira gure lepora. Baiñan ez omen dute pintura-mota horietan siñesten. Gure Oteiza berdin : zozoek bakarrik — eta hauen artean modazaleak eta esnobistak sartu behar, jakiña — har dezateke seriotan ; alegia : izkutuko kondaira horren berririk siñetsi nahi ez dutenek...

Denboran zehar, hildo beretik doatzi goldeak beren goldaketan. Erdiko Aroan « judukoi » haiek, eta egun « komunistak », gauza berbera dira : eskuindarren betiko lokamutsa.

Gaitzi zaizkienez, hau diote mendez mende : « Izkutuan eta gordeka norbaiti men-egiten dio urde horrek. Uherdura dario, nahaskeria itsusian bizi bide da. Akaba dezagun ! »

*
*

Eskuindarra adimenduaz mesfiatzen da : ohartu gabe, ahulztat dauka berea ; eta nahiago du ahalik gutxienik erabilli. Dana, beraz, ulertu-eziña zaio.

« Zaió » : beraz, « da ». Guk bai ; hots Jaungoikoak bai.

Makurrak ez du eskubiderik merezi; hots geuk, egian gaude-nok, ditugu guziak merezi. Makur dabiltzanek ezta bat ere.

Eskuindarra abstraktoaren maillan abiatu ezker, illunpetan dabil; eta zalantzak hastapenetik erauzteko, mixterioa deitzen du behin eta berri, adimendua hain zuzen ez erabiltzeko.

Ulertu eziñez, erlijio bat egiten du; eta ulertuez, imajiñak eta irudiak. Ikonoklasten etsaia da; erresuma maite du, uniforme, armada. Menpetasunetik askatasunera aldatu nahi duten herri berrien abertzaletasunaz, beraz, ez du fitsik ere atzematen : eskuindarrak zein herri dagoen jakiteko, mapako margoak begiratu behar ditu, edo pasaporte-motak kondatu. Eskuindarra-rentzat ez dago ez euskaldunik, ez bretoiñik, ez kurdorik.

*
**

Ezagutzen dugun giza-ordenuan, eskuindarrak, sekulan pentsatu ez baitu, ez du eskasia edo huts larririk atxematzen. Ba dira, bai, zenbait xehetasun... baiña kontra ari diranak, bekaizkeriaz edo herraz mintzo dira hunen eta haren kontra.

Eta hortatik sortzen zaio beste joera nagusi bat : ordenu-gizon izatekoa.

Nor dago dagoanaren kontra ? - dio berekiko. « Masoiak bakarrik, juduak, judazaleak, turkoak, komunistak, protestanteak... » Besterik nehor ere ez, omen. Horra hor mamutzarrak. Integristen « El Restaurador » aldizkariak ez ahal zuen ba eskatzen liberalak belaunez belaun hillaraztea ?...

Lapurtarrez esateko : munduan ba dago « arrimu » bat, ordenu bat : bai izartegian eta bai gizartean. « Mundua hala da, eta ongi da hala izatea : bego bere hortan », diote. Jaungoikoak ba daki zer ari dan... Utz beraz agintzera agintzen ari dana (batez ere « Jaungoiko » hitza errespetuz aipatzen badu...). Arrimu hori, edo ordenu hori, ongi ulertzen ez badugu ere, ona da, Jaungoikoak berak nahi izana dalako. Eta sentidu batera behintzat sagaratua da, errespetagarria. Goitik behera etorri zaigu ordenu eta molde hau : herriak obeditzea dauka. Ez da dudarik : pentsaera hauxe du kritikatzan Marx'ek « alienazio » izenez.

Eskuindarrek, horrela, errotik nahi dituzte elkargoak eta eginkizunak goitik behera hortara antolatu. Elizak eta Armadak, nun-nahi eskuindar nagusi, ba dituzte biek goitik beherako aginte-katea hori, eta lizifriñan oratuak dira. Eskuindarrak larderiaz eta manuz ari dana maite du : Franco, Salazar...

Ustez baiño sustrai sakonagorik ba du hunek guziak, Eskuindarrak beti izan dira, eta izango, armada-zaleak eta apezkoiak. Bi hauenganako zaletasunak neurtzen du aski ongi eskuintasunaren mailla. Bonaparte'rekiko atxikimendua, hunengatik, neurri ona izaten da jendeen eskuintasun-mailla jakiteko. Ahantzi baiño lehenago, beraz, Ortega'gana bihurtuko naiz : Ortega'k istimu haunditan baitzeukan kortzegar famatua...

Oharkabean ala oharrez, eskuindarrak « atxiki » nahi izaten du. Eutsi, egon, itzuli...

*
**

Gaurko musika entzun-eziña zaio eskuindarrari : bai Halliday, eta bai Schönberg. Berdin gaurko pintura edo literatura : ahalkegarri, itsusi, esnobismo hutsa. Eskuindarrak berdin kondenatzen ditu Picasso eta Robbes Grillet : ez daki zertarako behar dan ezer ere aldatu, zertarako eta zergatik ere behar dan deus ukatu eta gainditu. Hain zuzen ere aintziñako mundua eder zaio, eta datorrena okaztagarri. Politikan berdin : Lege Zaharren urrutimiña du.

Gizonaren diñatasunari eta gizatasunari, gagozkiela; nahiz gauza ageria izan igaro diran denborak, alderik gehienetarik, oraingoak baiño txarragoak izan dirala, iragan denborak lilluratzten du. Euskal Herriari buruz, hunengatik, bereala ezagutarazten dugu danok gure burua : eskuindarrek aspaldiko euskaldunen zoriontasunaren ipuia siñistarazi nahi digute besteoi; eta ezin lorturik, gutaz hetsitzen dute. Zergatik hetsiko ? Orain arte, nere ustez, eta aspaldian are gutxiago, euskaldunak zoritxarrean eta zapaldurik bizi izan dira. Eta hau egia dala frogatzen ahal dala uste dugu.

Ezkertarrek uste dute, beraz, ba dala garaia euskaldun herriak lehenengo aldiz bere burua altxa dezan; eta hau esatean ez dugu milimetro bat ere atzera joan nahi, « lege zahar » billa, denbora « zorionsu » haietaz ez baitugu deusik ere siñesten Ikusi besterik ez da hau Euskal Herriko kondairan; edo euskalduna nola bizi dan aldakuntzarik gertatu ez diran eskualdeetan. Gogora ekarriko ditut ezagugarri nagusiak : gosea, eritasuna, miseria, edozertarako behar gorria, apezkeria, ezjakintasuna, euskaldungoarekiko mespretxua, eta morroin-plegua. Horra hor galdutako parabisua.

Gazteei buruz berdintsu jokutzen da eskuindarra. Gazteak, izatez, kondairarik ez dutelako besterik ez balitz ere, berrizale dira; hots, « arriskuko jendea ». Hau dala-ta, erakunde edo organizazio berezitan saiatzten da gazteria « eskolatzen eta zuzentzen » : gazteak beren buruz arian utz balitez, eskierki aukeratu omen luteke gaizki. Begiratu egin behar da gazteria aitzinakioen atzaparretarik... Eta eskolatu nahi hortan, irendu egiten dute gazteria.

Ez du hunek esan nahi ezkertarrari berri dan guzia, besterik gabe, on zaionik; eta finkaturik eta onarturik dagoen guziari, nahi-ta-nahiez gaizki iritzi, eta erauztea beharrezkoa iruditzen zaionik. Ez hunenbesterañño. Baiñan eskuindarrak, barne-muñetatik, pentsatu baiño lehenago ere berri danaren aurka jartzeko oldarra senditzen du erraietan. Horixe da kakoa : adimenduz ez, baiñan erraiez eta odolez jartzen dala kontra. Eta gero, pentsatzen ez duelako, ez du ezer zalantzan jartzen. Ordenu-gizona da.

**

Eskuindarra, gorago esan dudanez, ez da ikonoklasta : itxura maite du. Ezkertarrak funtsera nahi du; eskuindarrak axalera.

Eskuindarrak erresuma maite du; ezkertarrak herria, popu-

lua. Ez da harrigarria apezpikuak eta jeneralak gaur ere kolorez jaztea : margoak, domiñak, irudiak, kanpoko itxuren illara oso ia, Elizan eta Armadan gorde dira. Beste erakundetan ere aisago jazten du eskuindarrak profesioaren jazkera berezia, ezkertarrak baiño.

Eskuindarrak espantuek eta kanpoko ezagugarriak behar ditu : golardoak ondo agirian daramazki.

Eskuindarrak izarrez neurtzen dan aginte-moldea maite du; ezkertarrak aldiz izarren bidez neur ezin ditekeana hain zuzen. Berriz ere bertago dago eskuindarra legetik, egiatik baiño.

Eskuindarra meza-entzule porrokatua da, agurtza goratik otoiitzegitearen aldeko; eta prozesio kontutan iaioago, ixilpeko eta harrabotsik gabeko bertuteen ekieran baiño.

Eskuindarra jatorkeriaren alde da; eta folkloreak, folklokeria egiten du. Gure aberkide bat baldin bada, axola haundia-gokoak dakizkioke zagi-dantza eta erensugearen ipuia, gure hizkuntza baiño; eta abertzale baldin bada (eskuindar « abertzale », beraz), gehiago ere prezatuko du askatasuna, euskalduntasuna baiño.

Eskuindarrak tradizioa eta ohitura zaharrak maite ditu. Zergatik? Aspaldidanik « hala gertatzen dalako ». Gehienetan, tradizio baten adikizuna galdu bada ere, tradizioari eusten dio eskuindarrak : dantzariak dantzaren urrats-legea bezela, ezer aldatu gabe. « Hay que ir también este año a Montejurra », Jurramendi'ra joan behar da aurten ere, foruak gorde behar dira... Zertarako, ordea? Zergatik? Hobe Jurramendi'ko bilkuran ez horrelakorik galdetzea... « Hala dalako », erantzungo liguteke danok, eta umore txarretan.

Zaharrari zaharra dalako eutsi behar zaio; eta berria, berri dalako, eta aiheruz beterik datorrelako, alde bat utzi. Zaharra onartu behar da : ez pentsatu ondoren on agertzen zaigulako, bere zahartasunarengatik beragatik baizik. Ohitura bat mendeetan zehar ahaztu ez bada, ona da. Besterik gabe, beraz, atxik dezagun, euts dizaigun.

Eskuindarra kantointzale da : aberria bera, gurea bezin txikia izanagatik ere, haundiegi zaio, abstraktoegi : « gure familia ez da besteak bezelakoa... gure herria bezelakorik ez dago... gure jendea arrunt da liferentea... gure kondaira eta erbestekoa guztiz dira desberdiñak ». Gizonak, familiak eta herriak oso liferenteak baitira...

Kanboar batek, esate baterako, ezin omen dezake sekulan konpreni hazpandar bat ! Bertakoa izan behar da. Eta orduan ere, kasu ! Hemen nik esan ditudan batzuk, zalantzarik ez, asaldatu egingo dituzte nere herrikide batzuk : gure kasoa ez omen da berdiña, gure kondairan zehar Euskal Herria demokrazia hutsean bizi izan omen da. « Chauvinismoa » eskuindarra da; eta asaldu horrek gehiago erakusten du asaldatuaren eskuintasuna, beste ezer baiño. Euskal Herrian, beste nun-nahi bezelaxe (edo beste nun-nahi bezelatsu bederen), ba ziran nagusiak eta morroiñak, haundikiak eta herri xehea. Hainbestetan aipatua

izan dan demokrazia hura ipuirik haundiena iruditzen zait. Euskal Herrian guk sozialismo bat jartzen baldin badugu, siñetsirik egon gaitezten : mundu guzian bezela (edo bezelatsu bederen, barka) lehenengo aldiz gertatuko da demokrazian bizitzea euskaldunak. Gcrago aipatu dudan bezela, ez gaitezela izan kantoinzale eta xobinista : ez gera gu ere horren desberdiñak. Siñistuta egon.

Arrazakeria ere eskuindarra da : Goldwater, Hitler, Verwoerd : horra hiru izen ezagun. 1900-eko « bizkaitarrak » arrazazaleak ziran, eta integrista hutsak. Gure arraza omen da garbia, besteena nunbait zikiña. « Odolez garbi » dio euskal kanta batek; eta kaseta batean, zurturik, hau irakurri nuon aurtemehin : « arabek odola ustela eta zikina dute » (sic). Hunela mintzo zana, bistan da, Ben Bella'ren etsaia zan, eta Salan'en aldeko. Eskuindarrak, kantoinzale diran aldetik, arrazakoiak dira. Arriskua ez omen dago ez marxismoan eta ez errusiarretan ere : « oria » omen da arriskua, « le danger jaune »...

Baiña hau da zelebreena : sekulan ez dala arrazakoi horietako bat agertu hunela mintzaturik : « nere arraza ustela eta zikiña da ». Nun-nahiko arrazakoiak beren arrazaren gaintasunaz eta bikaintasunaz daude siñetsirik. Zer da hau kantoinkeria baiño ? Are gehiago : nere esperientziak erakutsi didanez, Asia'ko emaztekiak polit harrapatzeko, bi bide edo modu aurkitu ditut : edo hango izan; edo hemengo, baiña ezkertar ! Egia hutsa da hau.

Joera huntan berean (kantoinkeriarenean, alegia) partidugizon da eskuindarra : talde baten defendatzaillie egiten danean, hertsia go jokatzten da taldearen sortzailllea bera baiño. Egoki zion Marx'ek : « ni antimarkista naiz » (hauze bera aipatu du berriki Ramond Aron'ek). Gure Unamuno'k berdin zion : « si se crea un partido unamunista, yo seré el primer anti-unamunista ».

Eskuindarrek odol « urdiña » (?) duen giza-kasta bat ezagutzen omen dute. Nik ez. Eta nihaurk ikusi dudana kanpo ere; zientziak betirako frogaturik dauka, nik uste, gizon eta emakume guziek (eta alimaliek ere) odol gorria dugula. Hau, horregatik, ikusmenaren eritasun larri bat da, edo zozokeriaren azken aztarna bat. Kontutan hartzekoa azkenik : erregeak errespetatzen ditu eskuindarrak; ez lehendakariak. Erregeen Jainkozko Eskubide bat sortu zuten eskuindarrek, baiña Errepublikarenik ez dute sortu.

*
**

Eskuindarrak larderia, militar modua, indarkeria maite ditu. Goitik behera, eta « hala delako », agintzen dana ongi da; alderantziz : beheitik gora, eta « gaur hala dirudielako » proposatzen dana gaizki. Zergatik, funtsean ? Herria gutxiesten duelako. Botoaren eskubidea, agintarien aukeratzekoa, goiko kulturarako bidea, ekonomiaren zuzentzea, eta abar, ukatu dizkio eskuindarrak herriari.

Eta herriarekiko mespretxu hori, hizkuntzaren maillan ere nabarmentzen da.

Hizkuntza herriek egiten dute, ez klase batek. Eskuindarrek betidanik mespretxatzen du bere herri xeheak darabilkien hizkuntza : aiton-seme guziak, Eskual Herrian eta Euskal Herritik kanpora, antziñan eta egun, berezi-nahiz eta herri xehearekiko arbuioz batera, kanpoko hizkuntzez baliatu dira etxe-barrean. Ez beti bere kulturak edo jakinduriak beharturik...

Hau dala-ta, eskuindarrak beti izan dira, hizkuntzari buruz, gurean eta erbestean, « garbizale » : alegia, herriaren hizkuntzaren joskerak eta hitzak alde bat utzi, eta asmatutakoak eman dituzte. Ezkertarrek, aldiz, beti jo izan dute herriaren hizkeraren aldera.

Harrigarrik ez hortan. Ezkertarrak istimu haunditan dauka, oharkabean izanik ere, herriari dagokiona; eta eskuindarra, aldiz, ezertan ez. Hots : zer da « garbikeria », funtsean, herriari berriz ere kasorik ez egitea baizik ? Euskaldun « garbizaleek » (eta beste herritakoek berdintsu, ez pentsa) hau diote gutxi gorabehera : « Hori hala esan behar da ». Eta kitto. Goitik behe-ra ikusten dute arazoa. « Herriak ez duela ez gaur, ez igaz, eta ez sekulan, horrela hitzegin ? Eta, zer axola ? Hori gaizki esana da ». Ezkertarrak, berriz, ez dira « garbizale », euskaltzale baizik : alegia, euskaldunek darabilten hizkuntzaren adiskideak, ez geure kaskoetatik sor ditekian « desesperanto »-arenak.

Baiña ba da oraino gehiago : ezkertarrek askozaz ere hobe-kiago ikasi ohi dituzte erbesteko hizkuntzak, eskuindarrek bai-ño : euskaldun erregezaleek, esate baterako, nekezago eta oke-rrago ikasten dute frantsesa, euskaldun sozialistek baiño !! Edo-zein taldetan, edozein erakundetan, hizkuntza berriekiko dohai-ñak neurtzen du ongi xamar taldearen ezkertasuna. Taldeei bu-ruz esan dugun hori, pertsoneri buruz ere esan ditek. Eta gisa da : hizkuntza bat ikastea, mintzatzako molde ez-ezagun bat imitatzea baita. Eta ongi imitatu ahal izateko, entzuten danari buruz, errespetu izan behar baita aurrenik...

*
**

Eskuindar hutsa, hortara, Ebanjelioko farisaua da. Eskuin-
dar esan, ala farisau esan, gauza bera, nik uste. Eta ongi ezagu-
tzen ditugu farisauen kontrako madarikazioak : nehor ez zuen
Kristo'k hain gogorrean hartu. Nola konpreni ditek, beraz,
integristekin gertatu dana ?» Letrak izpiritua hiltzen du », esan
du Jaungoikoak. Nola konpreni integristen kristautasuna ?

*
**

Baiñan goazen aurrerago.

Fenomenu horietaz emango dudana azalpena ez da nehoren-
tzat oso alaigarria; hein batean bederen danok baikera eskuin-
dar.

Ez da azalpen guztizkoa, seguru asko; ez da agian azalpen
bitxi bat ere. Bego halere. Sobera hanpaturik ere, eta bestek

nik baiño lehenago esanik ala ez esanik, berdin zait : egiaren alde bat huntan datzala deritzat.

Idea guzien eboluzioa, edo billakaera, aberetze-abiadura bat da. Gizonarengan eta giza-taldeetan, jatorrizko ideiak lardazkatu, nagitu, eta aberetu batez ere egiten dira. Gizonen eta taldeen eskuindartzea, ez da ezer, aberetze-billakaera bat baizik : denborarekin aberetasuna nagusitzen zaio ideiari.

Guk guziok, eta nihaurk noski. dugun eskuintasuna, ez bide da ezer gizonaren aberetasuna baizik. Adimenduaren eskasiak (edo denboran barrena ahultzeak...) sortzen bide du gure eskuindartasuna; berebat ere bihotzaren eta sendimenduaren goritzeak.

Are gehiago : gudan dagoen eskuindarra ez da ezer, nik uste, « gizon zaharra » baizik, gudan dirauen oreopithekoa baizik. Oreopithekoa eskuindarra zan errotik !

Azter dezagun.

Edozein gauza edo gertaera konprenitzeko, egiñahalak egin behar dira : fenomenuarekin hartu-emanetan jarri behar da lehenbizi; eta zergatik eta zertarako galdetzen hasi behar da gero, eta azalpenak alde batetik eta bestetik billatu. Ikastea neke da : ikasle guziek ongi dakite neke horren berri. Konprenitzea benetan da lan-egitea. Senditzea ere, askotan, nor bere baitan biltzea, eta izate osoa adi jartzea; eta hau guzia ere ez da indarka baizik egiten ahal. Lana, horrengatik, ikasi ahal izatea bezela, gizonak ez bestek lortu du : gizona da lan-egiten eta pentsatzen duen abere bakarra.

Konprenitzeko bi gauza behar dira : sendimena erne izan aurretik, eta adimendua zorrotz. Sendituz aurretik — aztertu baiño lehenago « zerbait » dagoela somatuz — problemak aurkitzen dira; eta nekatz eta ahaleginduz, senditu dan hori « gizatzen » edo adimenaren bidez atzematen saiatzen gera gero, besteri, eta geure buruari, adimenduaren arabera azaldu ahal izateko.

Biak behar dira, sendimena eta adimena, mundua gizelegez ikusteko.

Alabaiñan, senditzen ez duenak, alegiazkotzat dauka bestek senditzen duena; maite ez duenak erotzat dauka maite duena, Krupp'i zoroa zaio Debussy.

Eskuindar hutsak, ordea, eta danok eskuindar-kutsua dugun araberan, aurreko guzian ageri dan bezela, ez du ez senditzen problema bat dagokeanik, eta ez gutxiago soluziorik aurki dezake. Sendimena eta adimena eskas dituelako, edo izanik ere arras hurri, oreopithekoak izan zitzakean jokabideak ditu eskuindarrak. Eskuindar hutsa zan, bere gisa, azkeneko oreopithekoa. Eskuintasunaren neurria oreopitheko-tasuna da.

Horrengatik, laztu egiten du illea oreopitheko-talde bero bat gizon baten eskuetan ikusteak. Gizonari oreopithekoa nagusitzen zaionean, berotasun sakon eta taldekoi bat agertzen da, eta adimenaren azken argi xintak itzaltzen dira. Sendimena gogortu,

adimena illundu : horra hor, (azkenik !...) guztiz ziur, guztiz ermo bere setetan : guruzada has diteke... Guruzadak taldetan egiten dira... pertsonak hil ondoren.

*
**

Gizona zahartu ala egiten da eskuindar. Zergatik ?

Gero eta gutxiago senditzen duelako, lehenik; eta gero eta gutxiago ulertzen duelako, bigarrenik. Agureak senditzen du, gazteek baiño garrazkiago senditzen du eskierki; baiña bere mundu hura senditzen du. Zaharra gauza berrien kontra jartzen danean, ez da, egia esan, berriak diralako kontra jartzen, baizik-eta berak ez senditzen ez ulertzen ez dituelako. Beste batera esateko : mundu berriko berriak zaharrak ezagutu zitueneko, bai bihotza bai burumuiña gogorturik ta gorturik zituelako.

Politikan, hau gauza jakiña da, ezkerretara ari da mundua beti ezkeroztik; baiña ukaeraz eta dialektikaz.

Ezkertar taldeak, jaiotzean, gero eta ezkertarrago sortzen dira; baiño hil orduko (baita askotan piska bat hazi orduko ere !) eskuindar gelditzen dira : ideiek ez dute sekulan behar hainbat indarririk. Jaurès ezkertarra zan bere denboran, gaur bere partiduak dituenak eskuin-aldean gertatzen dira. Dirudienez, beraz, bai gizonei bai taldeei, eskuintasuna nagusitzen zaie ezarian; eta danetan, fenomenua aztertu ezker, pertsonaren edo taldearen sendimena eta ulermena ahulduz eta gortuz joan dala ageri da.

Zahartzaroko ermotasuna, pertsonengan eta taldeetan, sorrera baizik ez da. Gehiegizko segurantzia ez da ezer sendimenik eta adimenik ezaz kanpo.

Baiñan hunek urrutiegira eramango ninduke. Utziko dut segida urrengo saiakera baterako.

Munduaren dialektika (gizadiari gagozkiola) ezkertarrek eta eskuindarrek, daramakite; alegia, gizontasunak eta oreopithekotasunak. Hunat hemen, beharbada, sakonkiago ausnartu behar-ko litzakean dialektika.



Intelektualak eta ekintza-gizonak

ESKUINTASUNA eta ezkertasuna zertan datzaten funtsean aztertu ondoren, ekintza-gizonaren eta pentsaeraren arteko liferentziaren sustraia aztertzea zait bidezko. Menturaz, irakurleak somatu duen baiño bidezkoago; eta seguraz, ez batzuek nahiko lutekean eran.

Frogatu uste izan dudan bezela, oreopitheko-tasunak ekartzten du eskuintasuna : alegia, lehengoari eta ezagunari ez besteri eutsi nahi itsua. Eta arima-tasunak ezkertasuna : alegia, Literaturan, Politikan, Artean, Zientzian, eta edozertan, berri eta gora-nahia eta hobe-beharra. Zuhaitzaren ezin aldaratzea gogorazten du lehenengoak; aingeruaren higikortasuna somarazten du bigarrenak.

Guziok ditugu, esan dut ere, gure barrenean nahasturik, oreopitheko bat eta aingeru bat; guziok agertu ohi gera horrengatik. Batak edo besteak garaiturik, aldika eskuindar eta aldika ezker-tar; baiñan ez danok arau berean : batzuk usu eskuindar, eta bakanka ezker-tar; beste batzuk bestaldera : usu ezker-tar, eta bakanka eskuindar. Barka eskuindarrek : baiñan nere « teoria » huntan eskuindar agertzea ez da ohore bat...

Horrengatik ere esan dut lehenik zail dala oso, zail baiño eziña ere, mutur batean edo bestean danetan egotea; eta ezker-tasunaren muturrean bereziki. Eta bestetik, ez da erraza izaten « gora » zer dan jakitea : gure zibilizazio hunen alde jokatzeko, esate baterako, eskuindartasun-señale iruditzen zait neri.

Eboluzioak edo billakaerak, esan beharrik ez, oreopitheko-tasunetik urrundu egin gaitu aspaldidanik; eta gaur berean ere

ezari-ezarian urruntzen gaitu. Gizadia, pentsatzaille gehienen ustez, « goruntz » doa, arimatasun billa, eta materiazko baldintzetik igesi bezela abiaturik. Eboluzionistak hortan dira (Lecomte de Nouy, Julien Huxley, eta abar), eta Teilhard de Chardin'ek ere, jöera hertsiago batean azaldu duen bezela, arimatasun-egarri hori aurkitu uste du naturalezan eta gizadian.

Aurrerako, gorunzko, edo berri-alderako abiadura hori ez da, egia esateko, gizonari nagokiolarik, gañerako guziaren aldaerari atxikitzea, eta egunean egunekoari egokitzea baizik; gizadia ere aurrera ari baita. Iraganean pausatzea, edo iritzi edo molde zahar batetan higitu gabe gelditzea, antziñan egoki izan zan era bati eustea, fosil egitea da. Dana billakatzen eta berritzen baita. Espezetan, muetetan, eta pertsonarengan, ez gehiago billakitzea (alegia : beti bat irautea) zahartzaroko lehen siñua da; eta sobera iraun ezkeru, heriotza gertu dagoela adierazten du.

Gizadiaren berritu-nahia ezkertarrek bultzatzen dute; eta bertan bera pausatu-nahia eskuindarrek.

Baiñan ezkertarren ostea bi giza-taldek osatzen dute : intelektualek batetik (gogoetariak, gogoeta-zaleek, pentsaera-gizonek, eta artistek), ezkertar ostearen eragille, datorkeana somatuz eta alde z aurretik adieraziz jokatzeko dirala; eta ekintza-gizonek bestetik, somatutako hori gero istorian obratuz ari. Soziologian, billakaera edo eboluzio guzien eragilleak eta obratzailleak, berri nahi hori mamitu duten guziak, bi talde horietan sar ditezke, nik uste.

Nik hasieran « gogoetari » eta « pentsaera-gizon » deitu ditudan horiek dira egiazko intelektualek. Intelektualen izena merezi dutenak, egia sakondu eta ulertu nahirik, etengabeko azterketan, billaeran, eta gogoetan ari dira. « Gogoetari » euskal hitz berri hori, nik uste, egoki letorkieke : mundua eta ezaguerak aldatu eta billakatu ala, dagozkien ideiak ere, beti araberatu nahiz, zalantzan jar, eta gauzen abiada segitzekotan beren buruak eta beren pentsaerak aldarazten eta billakaratzen entseatzeko dira.

Batzuk, aldiz, beren burua jakintsutzat harturik (eta harrezaririk...) ere, dogmakoiak dira; eta ideia edo molde zahar batean finkaturik eta gogorturik, eta hunengatixek egiatik gero eta gehiago urrundurik, berritasun guzien etsai jokatzeko dira, eta egia berriekiko bereziki arerio gaisto eta amorratu. Gogoeta egiten dute, bai; baiñan atxik ezin dakiokanari, itsu-itsuan atxikitzekotan; betiko (eta beharrik !) hil zana nundik piztuko...

Esate baterako, egiazko intelektualen artetik bi aipatuko ditut, enetzat eredu : B. Russell eta J. P. Sartre.

Ohar bat : aurrerakoan intelektualek aipatuko ditudanean, holakoez ariko naiz; eta artistak barne harturik. Estetikaren bidez ere egia billa ditekete. Olerkaria eta zientzia-gizona, margolaria eta filosofoa, funtsean anaia bizkiak dira : Einstein'ek berak maite omen zuen antza hau aipatzea. Egiak ez baitu, soillik, adimenezko alderdi hotz bat, gure adimenduak silojismoz eta

analojiaz atzeman dezakean mailla bat. Egiak ba du ere sendimenezko alderdi bat, edo adimenduari ez dagokion mailla bat; eta egiazko artistak hau nabarmenerazten duenean, ez du aurkitzen (eta ezin aurki lezake), intelektualak, bestelako bidetatik, aurkitu dezakean izatea berbera baizik. Jende xehearen zentzuak, eta askoren adimendu zorrotzak ere, bigarren mailla hunen berri-rik ez atzemanagatik ere, ba da hor mailla bat.

Muturreraino joanez, garbiago ikusiko dugu, nik uste : nahiz gorila batek behin ere ez konpreniturik ere, egiaren parte bat dira Kepler'en legeak, Kierkegaard'en « Le Traité du désespoir » liburua, eta Debussy'ren « Nocturne » delakoa. Mundu hori ez da gezurra; eta gorila batek, berak senditzen edo ulertzen ez dituelako, esan baleza : « gizon zantar horiek... berek ere ez dute ez senditzen eta ez ulertzen, baiñan esnobismoarengatik baietz diote », oker ibilliko litzake. Basoko mundua eta gora-beherak egia dira; baiña Kierkegaard ere bai.

Egiazko intelektualaren helburu bakarra egia omen da. Egia bera baiño, egiaren egarria esango nuke nik. Ongi zion Péguy'k : « Une grande philosophie... est celle qui introduit une inquiétude, qui ouvre un ébranlement' » : alegia, filosofia batek kezka bat, barne-asaldu bat sortzen duenean, orduan da haundia. Intelektuala kezkabera da, zalantzakoia : ezin egonak astintzen bide du hil arte. Intelektuala eta artista ez dira, izan, egiarako beilari baizik. Egiarako bidean aurkitutakoak ikertzea eta ezagutaraztea : hortantxe datza pentsaera-gizonaren atsedena.

*
**

Baiña intelektualak bere egiñetan eta bizimoduan egia deritzana obratzen ez badu, bere ikertze edo adierazpenak oro, guttiz zuzenak eta zorrotzak izanik ere, trufa baizik ez dira.

Hau dala-ta, frantsesek berezkuntza bat egiten dute; eta egiazko intelektualak « intellectuel engagé. » deitzen dituzte; baiña « engagé » gehiegizko bat erasten dutela deritzat. Liburuetan, eta nolana hiko agerkaritan, onartzen edo onarrarazten diran ideien arabera bizi ez diran « intelektualek » edo « artistek », ez dute erdaiñua baizik merezi; gaiñerantzeko fari-sauek, apostolu-aizunek eta gezurti-mota guziek merezi duten bezelaxe.

Intelektuala eta artista, jatorrak diranean, ez dira pikuan bizi. Zail edo arriskuko izanda ere, egia billatzea eta ezagutaraztea da intelektual mota guzien eginkizun premiatsua; eta, ahal duen neurrian, egia zaiona bere buruaren jokabidean obratzea.

Iritzea dagokio intelektulari. Zer gerta ere, intelektualaren xedea egia da. Eta hauxe da sasi-intelektualek egin ohi ez dutena : besteri bide dagokie beti egia agirian esatea, besteri gartzelaren kostura bada ere hitzegitea, besteri arriskatzea, besteri... egia ! Berek gezurra esanez aski bide dute; eta halere « intelektual » izena darabilkite...

Morin'ek ederki azaldu zuen berriki : « nobela bat izki-

riatzen duen idazlea, idazle bat da ; baiña Arjelia'ko torturaz mintzo bada, intelektual bat da ». Jean Paul Sartre, hortaz, egiazko intelektual bat izan zan urte haietan.

Egia beti ere billa, eta noizean behin agian partetxo bat aurki : horra hor egiazko intelektualaren betebeharra. Hala da. Baiña jakitea eta ikustea ez da aski : irakatsi eta erakutsi ere egin behar da. Egia hori, « / krisaillu » famatu horiek bezela, agirian jarri behar dan zerbait da. Argia izkutatzea, illunpeen alde jokatzea da. Irizteko, eta egia agirian aitortzeko, kemenik ez duten pentsaera-gizonek ez dute intelektual-izena merezi. Intelektualaren biziera « apezgoa » da, Mounier'en hitza erabiltzeko.

« Ideien mundu » deritzana, bere bizian bederen obratze-kotan eta jarraitzekotan ez bada, gezur-aitzekia huts bat baizik ez da. « Bizia ematea merezi ez duen ideiak, ez du sinistea ere merezi », zion Gandhi'k. Intelektuala, fiña danean, ez da hodeietan bizi : « goregi » bizitzea, edo zozotasun-señale da, edo faltsukeria. Sekulan ez goitasun-marka. Burges « intelektualak » ez dira mundutik eta politikatik at bizi bakarrik, beren ideien « garbitasuna » ez « likisteko » nunbait, agintzen dutenen menpean morrointza lotsagarrian baizik. Horrelakoei, beraz, intelektualen izena ken dakieke.

Baiña ba dago beste problema bat. Egia eten gabe billakazten dalako, ezaguerak beti ere zabalago eta sakonago egiten diralako, sendi-kera aldatzen dalako, egia osoa nehorik beregana biltzerik ez duelako ; eta, Gabriel Marcel'ek dion bezela, egia argitzen duen argi baten antzekoa dalako (alegia : ez eskuen artean edo poltsikuan gorde ditekian gauzatxo bat) ; intelektuala nekez izan ditek, eta nekezago egon, partidu-gizon. Partiduek, eta partidu-gizonek beraz, helburu bat hautatzen dute ; eta betetzekotan hasten dira lanean, eta lanari ekiten denboran zehar, beti hartara.

Hunat hemen ondoren bat : intelektualak eta artistak ez dirala ongi moldatzen politikuekin (eta harritzekorik ez da), ezta partidu-gizonekin, « ismo » dalakoen lagunekin, negozio-gizonekin, eta ezta nolanahiko ekintza-gizon eta alkarte-mota guziekin ere.

« Ismo » guzien kaxoa hauxe da : idea bat absolututzat hartu, eta zer gerta ere, hartan irautea. « Ismoa », horrela, egia-
ren kontra jartzen da denbora iragan ala, « ismoa » beti bat eta egia beti liferente diralako.

Intelektuala izateko, dagoena askotan ukatzen jakin behar da. Hots, tinko eta aldakaitz dauden horien artean, « ismoak » aurkitzen dira.

Hortaz, ez ukatzeagatik beragatik : hau esnobismoa litza-ke ; baiñan bai aztertu ondoren adimen-muñetatik ukatu-behar gorria ezin goiturik, « ez » esan behar da. Legetzat, edo begira-menduz onarturik, daudenak kenkan jartzeko premia nabaitu ez duenak, egia aurkitzeko gauza ez da ; zeren-eta egia, izatez

berez, ohituren eta legeen kontra gertatzen baita denborarekin; egia beti legeetatik at, edo aitzinago, baita.

Halere uko hori ez da askotan arriskurik gabe egiten, eta gutxitan (edo nehoiz ez !) sozial-aisatasunean. Ausardia haundia behar izaten da, munduarekiko; eta norberaren kontzientziarekiko ere ez hurri. Erraza baita oso sasi-egiatan kontsolatzea, eta estakuru maltzurren bidez barnea lasaitzea. Hau dala-ta, batez ere adiñari dagokion ahultzeak indarra ukatzen duenean, besterik behar izaten du intelektualak aurrera jotzeko. Eta huenegatik ez da harritzekoa, berrogei urtetarik gora batez ere, intelektualik gehien-gehienak ezkertarrak izatea; edo, besterantzean, gazteak. Kontzientziaz, eta hazturaz beraz kanpo ere, sorkurazko joerak lagun baitezake askotan egiari gosta ala gostarik atxikitzeko.

Berdintsu ere erlijioaz : dagoanari bere hortan eutsi nahi dio kritikaren maillan jartzen ez dakienak; eta Vaticano'ren alde jokutzen da. Politikaz ari dalarik, agintzen duenaren defentsa egiten du; eta langilleen alde ona ukatuz edo gutxietsiz, dirudunena eta lantegi-ugazabena. Guztiz bestaldera berriz kritikamena duenak, hau da, egiatzko intelektualak.

Intelektuala ezkertarra da; eta ezkertar dirauen urteetan eta araberan betetzen du bere eginbidea.

* *

Ekintza-gizona, aldiz, nekez izan diteke horrelakoa.

Nola jokatu ohi da ekintza-gizona ? Nola jokatu behar izaten du, nahi-ta-nahiez, hobeki esateko ? Xede bati buruz; beste hitz batzutan esateko : « ismo » bati lotua, « ismo » baten zer-bitzutan.

Ekintza-gizonak, jatorriz ezkertar izanik ere, ideia bat eza-gutu eta onartu ondoren, utzi egin behar dio pentsatzeari; utzi egin behar dio batez ere kritikamenari, irizteko ahalmenari, zalantza egiteari eta problema berriei; eta aurrerakoan, itsuitsuan e.e. jo eta hausi, aitzinera egin behar du, zer gerta eta zer entzun ere, maiseo guziei entzungor egin, eta helburutik aldendu gabe xedera, « ismo »-aren obratzera, nola edo hala markatutako bidean barrena.

Ekintza-gizonak ezin dezake nehoiz ere bere egia zalantzan jar, edo absolutu ez billakaraz. Ekintza-gizonak memento batean pausatu egiten du; eta, hein batean bederen, ez du gerotik hauta berririk egiten. Egiña da. Egiaz ahaztu dala dirudi hain dago bere ideian tematurik. Ekintza-gizonak helburu bat finkatu duenean, ez da hartatik aldatzen.

Politikan (eta politika ekintza-mota garbi bat da), Induztrian, Elizan, nahimen haundiko zuzendariak behar izaten dira : hau da arrakastaren kakoa. Egoki esan du berriki Gaston Defferre'k : ... il se produit (dans la vie politique) des événements inattendus, auxquels il faut faire face. Les réactions des hommes qui sont au pouvoir dépendent alors de leur caractère. Il y a ceux qui cèdent ou ceux qui s'affolent. Il y a ceux, au contraire, qui savent garder leur sang-froid, et faire preuve de

courage et détermination ». Gauza bera esan lezake industria-buru batek. Eta neuk e.e berdin uste dut. « Ekintza », hitzak berak erakusten duenez, ekitea da, aukeratutako helburu bati beti ere ekitea, jarraitzea, lotzea. Alegia : besterik sumatuta ere, egia osoa gurekin ez bildurik ere, aurrera egitea.

Horrela jokatzeko nahi zindoa behar da, « ez nahikundea ». Egia aurkitzea, eta egia ahal bezenbatean obratzea, biga.

Ekintza-gizonen ezagugarri nagusia nahimen-indarra izaten da; eta, era be.ean, intelektualena, irizpidea eta kritikamena. Ekintza-gizona nekez izan diteke batera intelektualak; eta alde-rantziz. Unamuno, eta Azaña et Blum berak, politikari txarrak izan ziran : intelektual-etzpala zuten; eta gaizki ezkon zitzate-kean hori eta gobernu-beharra:en gora-beherak.

Bestaldetik ere, denbora guzietan, eta partidu eta gizatalde guzietan, ezkertarrago gertatu ohi dira taldeko intelektualak, beren taldea edo aroa baiño : Tolstoï, Hugo, Erasmo, Marx, Lammenais, Rousseau... Sartre eta Lefèbvre gure egunetan. « In-tektual ofizialak », izatez mugatuak, hetsiak eta ustelak be-raz, izaten diralako, bereala izaten dira ahantziak. « Ismo » ba-ti lotuta pentsatzen duen intelektualak, faltsua da. Marxistarik gorenena erodotso gelditu dira : Trotsky, Lefèbvre bera; eta kristaurik irakurgarrienak elizatik kanpo, edo atarian : Lamme-nais, Berdiaeff, Teilhard de Chardin, Lubac eta Congar berbe-rak zenbait urtez.

*
**

Baiña nola egiten dira nahimen haundiko gizonak ?

Nahiaren heztea nola lortzen dan azaldu duten psikologo guziek, nahiaren gotortasuna eta zimendua pentsamenduen sar-reran dala diote. Nahimen gotorra duen nork nahi, xedetzat hautatu duen ideia hori koloka utz dezakean beste edozein, baztertu egiten duela diote. Sakonki aztertu baiño lehenago ere : « utikan ! ». Bazterten jakitea omen da kaxoa, eta eskolatzaile guziek aholku hori ematen dute.

Nahimena gotortzeko, apaldu egin behar da irudimenaren sendikortasuna, histu egin behar da bihotza, kamustu jakintza-ren egarria, hein batean gizatasuna zapatu eta hil. Zalantza guziak errotik eraztea onena : nahimena adimendua:en berre-ro. Nahimena eta adimena alkar gudukatzen dute. Intelektual-ekintza-gizona hiltzen du; eta ekintza-gizonak intelektualak ere bai.

Intelektuala izateko eta irauteko, loturak oro etetzea one-na. Ekintza-gizona izateko, loturak azkartu behar, lizifriña hes-tutu behar. Intelektualak sobera duena, ekintza-gizonak falta du.

Alde batetik beraz politikariak eta intelektualak ahaide dira. Ekintza-gizona dan aldetik, politikaria ezin diteke hutsean, edo norarik gabe, joka. Zerbait ikusi behar du; eta ikusi behar huntan, intelektualak bezelatsu aztertzen du. Ezkertar politika-riak, bestetik, aurrera jo nahi du, ez baitu ikusten duena onar-tzen.

Baiña politikariek ba dute nahia, eta adimena eta sendime-

na, ekiteaz beraz, piskanaka apalduirik; eta intelektualek, aldiz, adimena eta sendimena bai, erne, baiñan ekintzan ari ez diralako nahimenik ez, edo txikiagia. Denborarekin ekintza-gizonak itsutasun gehiegi dute, eta intelektualek gutxiegi.

Eskuindarrek, horrela, jaiduraz edo izaeraz, ba dute ezker-tarrek baiño erreztasun haundiagoa ekintza-gizonak billakatze-ko; eta ezker-tarrek intelektual egiteko. Nahimena eta irudimena alkarren ukatzaille baitira. Eta alderantziz.

Askotan dira ezker-tarrak izaera biguñeokoak; eta izaera gogorrekoak txikitandik eskuindar. Gisa da.

Eskuindarrek, hortara, ekintza-gizon famatuak izaten dituzte; eta ezker-tarrek, apalak. Alderantziz, ezker-tarrek intelektual gorenak izaten dituzte, eta eskuindarrek kaxkarrak.

Ezker-tarren ekintza-gizonak eskuarki ideia lardazkatu izan dute : Cronwell, Bonaparte, Stalin.

Ezker-tarrek, bestalde, tema billakatu ez zaienean, « nuan-ce »-aren sena dute. Eta, hori dala bide, ezin dezateke aisa alkar har. « Urduriak antolatzea eziña da », esan ohi du nere adiskide batek. Hala da. Eskuindarrek bai : bereala alkar-hartzen dute. Frantzia'k adibide egoki bat eman du urte hauetan : P.S.U. partidua ezin bil; U.N.R.-koa beti bat : Arjelia frantsesaren alde, eta Arjelia libroaren alde ere bai.

Hunek guziak, beraz, sustraiean bertan, oso zailla egiten du ezker-tar politika sendo bat egitea; eta oso erraza, aldiz, eskuindar politika bat obratzea. Erreboluzioa nahi-ta-ezkoa da zoritxarrez ezker aldera jotzeko; eta « ezker » izena erabilli ohi dutenen kontra ere bihar edo etzi beharrezkoa izango da.

*
**

Ezker-tar ekintza-gizona, bukatzeko, sorkuren kontra gogortzen danean (beti beraz, ezker-tarra sorkuraz ez baita izaera gogorrekoa) hastapenean nahimen hutsez, eta bere buruari bor-txa egiñez, ahaztutzen du egiaren funtsezko problema; eta, jokatibidez bakarrik, hartutako helburura laguntzen ez duena alde bat uzten: dala gertaera, dala teoria, edo beste. Eta talde batean sartzen da. Ekintza-gizonak taldetan egiten baitu bere lana : lantegietan, partiduetan, edo abar. Hots : antolamendu edo erakunde guziak helburu nagusi eta aldakaitz bat betetzekotan sortzen dira; ez egia billatzekotan. Horrela ekintza-gizona, ezari-ezarian, denborà igaro ala, egiarekiko soraio egiten da; eta azkenean egia dagoe-la ere ahaztutzen du : ijeñieroak zientzia abandonatzen du, dekoratzaillak pintura, ekonomistak soziologia. Ekintzaren legeek beharturik, adimena eta sendimena gorrerazten ditu. Hitz batez : ekintza-gizona eskuindar egiten da.

Ekintza-gizonak hartu zuen bidea, halere, nahi-ta-ezkoa zan; eta intelektualak hartu zuena, berdin. Nola gaindi, beraz, alkarren ukaera hau ?

Askatasunean, nik uste. Kritikatzeko eskubidea neholaz ere ez debekatuz : ez legez, eta ez ixilpeko trinkadurez. Askatasuna hau egiatzkoa egin behar da : Goldwater'en askatasun-nahiak hotz baiño hotzago uzten nau; baiña komunismoak ez du ere


eskubide hau zillegi uzten. Askatasuna ez da hitz soil eta huts bat; baiña askatasunik gabe ez dago nehorat joaterik.

Ekintza-gizonak arrazoin du bere jokabidean, ez da zalan-tzarik; eta intelektualak e.e arrazoi du berean. Egia du hunek ere ekintza-gizona, adiñarengatik eta ekintzarengatik beragatik, eskuindartzen ari dala segurutzen duenean. Hala da. Utz, beraz, biak jokoan : utz alkarri laguntzen, utz alkar osatzen. Ez ixillara intelektualala; ez geldiaraz ere ekintza-gizonaren lana, baizik eta oso xuxena ez dala... Alkar entzun ezkeru ongi ariko dira biak : tira-biran, baiña istorian ahal ditekean ondoenik dudarik gabe.

Ez bitez izan, beraz, intelktualak politika-agintari; baiñan ez bitez ere, « garbitasun-nahiz », politikaren « likiskeria » tik kanpo. Era berean, ekintza-gizonek, politikariek, ez bezate beren burua pentsaeraren maillan profetatzat har : entzun bizaiete intelktualei, eta ikas.

Horrela bai : ezkertar politika bat egin ahal izango da.

Gure Euskal Herriarekiko, bederen, jokabide hori proposatu-ko nuke nik.



Biarno euskaldunaz

BEHIN batez, Paue'n nintzalarik, denda batean erreparatu nuen marrazki zahar bat. Bi euskaldun agiri ziran, mahain batean buruz-buru edanean, illea luze, makilla bat eskuan, burua txapelaz batak eta sonbreroz besteak estalirik; eta beherean, marrazkiaren izenpurutzat, hauxe irakurri nuen : « Basques du village de Lanne — Vallée de Barétous » (hau da Landa herriko euskaldun, Baretoz'ko Harana). Harritu egin ninduen hunek, zeren-eta Landa herri hori Biarno'n baitago, eta ez Zuberoa'n. Marrazkia 1834-ekoa zan; eta, ez ahaztutzekotan, paper batean izkiriatu nuen dana : « Ed. Pingret, 1834 — Lith. de Thierry Frères, Pyrénées ».

Bitxi izan zitzaidan dana : gauza agiria baita « basque » izkiriaturuz (orain arte bederen !) « euskaldun » adierazi nahí izan dala. « Euzkotar » dalakoen ipui madarikatua orain dala gutxi-ko « euzkotar-kada » bat baita. Ahaztu ere egingo ahal da laister !

Xuberotar baten bidez jakin nuen, Landa'n badirala gaur ere euskaldun familia batzu; baiña kanpotikako familia omen dira, gaztigatzailleak jakiñarazi zidanez. Eta horrela alde bat utzi unen Landa'ko bitxitasun hura, axola haundiagorik erantsi gabe.

Ipar-aldean fama da, gaiñera, euskerak ez duela kilometro bat ere galdu bost milla urte huntan. Ez ahal zidan bada behin hazpandar batek esan, guztiz siñetsirik : « euskera galtzen ari ? Ia ! ».

Hau, halere, erakutsiko dudanez, beste ipui haundi bat izaki.

Irakurleak, bestalde, Etxahun'en berririk baldin badaki, Eskiula'korik ere ba dakike. Alegia, Eskiula gaurtxe ere euskalduna dala; eta betidanik dala euskalduna. Hots, Eskiula, Oloroe'tik zortzi bat kilometrotara, Biarno da betidanik. Eta baserriak

eta hauzoak biziki sakabanaturik dituelako, egun berean Oloroe' hiriburuko ateetan. Nihaurk izan dut aurten hunen froga bat, Sanpe Gainekoa:en ondo-ondoan eskiular batekin solas bat egitean. ko ateetan beretan entzuten' da euskera; hau da Biarno Garaieko

Eta, izan, Oloroe da (« Oloron » frantsesez, « Iluro » antziñan) Laskur'ekin (« Lescar » frantsesez), Biarno'ko hiri nagusia; eta diosesarik zaharrena e're.

Baiña huni buruz ere azalpen « erdaldun » bat agertu zan : Eskiula baxenabartarrek jendaztatu omen zuten sortzean. Eta ez dakit hunengatik ote danetz; baiña beti harritu izan nau Larrasket'ek; zeren-eta Barkoxe'ko eta Sarikota'ko euskalkia bai, baiñan Eskiula'koa ez baitu aintzakotzat hartzen sorkaldeko xubererari buruzko bere ikaskai ederean. Esandakoarengatik beharbada ? Gaur gaurkoz ez dakit. Baiñan ezagutu ditudan barkoxtar guziek esan didate gauza bera : Eskiula'ko euskera eta Barkoxe'koa liferenteak dira.

Azalpen « erdaldun » horiek ezagutuagatik ere, beti ari zan harra nere barrenean : bitxitasun gehiegi iruditzen zitzaidan hori guzia zerbait sakonagorik ez izateko. Eskiula'koak zer adierazten du ? Euskerak irabazitako bazter bat, ala oraindik galdu ez duen bat ? Alegia, Aramaio ere gaur Gipuzkoa'tik « aurrera » euskerak irabazitako muturtzat har zitekeala burura zitzaidan, eta Araba erdalduntzat jo zitekeala. Ez da horrela : Araba'koan ba dakigu ezetz.

Eta Biarno'n ez ?

Biarnes mintzaira ez da Biarno-ko lege-hizkuntza bakarrik izan, Xubero'koa ere baizik : 1539 baño lehenago biarnera zan Xubero'ko lege-hizkuntza, edo erresuma-hizkuntza; eta geroztik frantesesa... Nafarroa'k ere, Xuberoa'k bezelaxe, ez ahal zuen bada lehenago legetu gaztelera, Kastillak berak baño ? Euskalduntasun-marka bat dirudi, horrela, edozein erderari nagusitasuna eman eta erresuma-hizkuntza egiteak... eta euskerari... negar-kantuñoak !

Barneko harra beti ari, eta Pau'e'n berriz egokiturik, « Musée Béarnais » bat dagoela jakin nuen; eta hartara nintzan. Irten ezkeroztik, eta egun berean ere berdin, ahaztu dan euskal-eskualde zahar baten erakustegi bat ikusi nuela uste dut. Arrazari nagokiola, hango irudietako biarnotarrak ezagutu ondoren, nola uka danen aurridetasuna ? Biarno euskalduna agertzen da funtsez. Eta Biarno'ko euskaldungoaren jakin-min hori azkartu egin zitzaidan.

Zerbait aztertzea erabaki nuen; eta hasierako nere iritzia hau izan zan : Kanpion baten zai, Biarnoa bigarren Nafarroa bat dalà.

Biarno'k izan du, bai, kondairagille ospatsu bat : Marca. Baiñan Nafarroa'ko euskal kutsua, euskal gogoa, eta euskal jitea aurkitu eta ezagutarazi baditu Kanpion'ek, Marca'k aldiz, guganako gorroto biziak eraginda, euskaldun aztarnaren bat sumatu bezin laister, izkutatu egiten zuen; Biarno'ko kondaira erdaldunduz, eta « español » kutsua kenduz... (Huntan, egia esateko,

gure Garibai'ek ere ez zuen bestela jokatu, iparraldeko euskaldunen « frantsesetasuna » nabarmeneraziz...)

*
**

Joan dan u'tean (1963-eko urtean, hortaz) aizkolariak izan ziran Aspe'ko ibarrean. Ohitura zaharra omen da han ere. Biarno'ko dantza-taldeek, Xubero'koek bezelaxe, beste berdintasun askorekin batera, ba dute Euskal Herriko « ttuntun » deritzan soiñu-tresna. Monein'go dantzak famatuak izan dira oraintsu arte iparraldeko Euskal Herrian, eta axolarik ezarri gabe euskalduntzat jo izan dira.

Zer da, beraz, berriz ere bihurtzen naiz, Eskiula'ko eta Landa'ko egia ? Xubero'ek « irabazitako » bi herri dira, ala euskaldun Biarno Garaiak oraindiko galdu ez dituen bi eskualde ?

Lurbe'tik Atarrantze'rakoan (Aspe'tik Uhaitzandi'rako bidean, beraz), etxeen eta jendeen itxurari begiraturuz, ezin diteke esan Zuberoa nun hasi dan, eta Biarno zein herritan amaitu : teillatuetako arbelak eta gizakumeen txapelak, herri bakar baten axaleko ezagugarri, eten gabe dira agiri : bai Laruntze'n eta bai Atarrantze'n. Ikusle berriak zertan ez du Areta Xubero'kotzat jotzen ?

Laskun'go (« Lescun » erderaz) haran zabal eta zoragarrian (zelai eta tontor haiek ikusteagatik merezi du haraiño joateak), Ahuñemendi'ren pean, euskeraz agurtu nahi izan ditut hango baserriarrak; baiñan ezin. Ez dira euskaldunak ! Ezagun da beren aurpegietan arbasok euskaldunak izan zirela. Berak ez. Entzun ere ez dute nahi horrelakorik : muzindu ere egin zitzaidan galderagatik hango atso zahar bat : « nous ne sommes pas basques, non; nous sommes béarnais ici ». Biarnesak dira, ez euskaldunak...

« No soy vasco, soy navarro »... Hitz hauek eta haiek, nola ez aldera ? Hunengatik mingarriago. Lehenengo begiradan bederen, funtsezko fenomeno berberaren aurrean gaudela baitirudi.

Bizkaitarrak Gernikako zuhaitzaren azpian batzartzen ziran. Nork daki xuberotarrek berdin egiten zutela Lixarre'n, lizar baten ondoan lehendabizi; eta intxaurrondo baten inguruan gero ?

Eta nork daki (eta hunek harrituko du gehienik irakurlea) biarnotarrek berdin egiten zutela : Akoz'en aspetarrek, Latsa'ko iturriaren ondoan, « Tillabere » izeneko ezki edo tillura baten azpian; eta Eskures'en Vic-Bill'go agintariak, gaztaiñondo baten azpian ? Iparragirre'k ongi sumatu zuen zuhaitzekiko euskaldunen atxikimendua.

Nor da Biarno'ko santurik haundiena ? San Grat, Grat Santua, Lixos'tarra, « Gamixelu » baserrian sortua, eta euskaldun hutsa.

Nola ez aldera ere, bestetik, biarnotarrek beren « Fors » edo foruei izan dieten atxikimendua, eta geure herrian ezagutu duguna ? Ez ahal zan izan Laskun'go Joanes hura, Zumalakarregi txiki bat, hunek bezela ere laskundarrak biziaren gostuz foruen

alde bizia emanez; eta gipuzkoarrak baiño biarnotarrak berrehun urte lehenago gudukatu.ik ?

Foruen mania euskal-gogoak egin du. Biarno'ko hiru « val-lée » edo haran haundietan (Biarno Garaiekoak alegia) lurra ez zan nehorena, haranarena be:arena baizik. Aiton-semeak, eta beren etxalde zabal eta aberatsak, behereko « piémont » ean aurki zitezkean bakarrik; ez goiko eskualdeetan. Biarno Garaiean jendeen ohiturak eta izaera gutxiago bestelakatu ziran, eta Beherean gehiago : Nafarroa'n bezelaxe.

Hau dala-ta, berdintasuna nahiean, legearen aurrean herriko jende xehea aiton-semeen parekoa zan, gure Euskal Herrian bezela. Era berean, foruak galdu arte Biarno Garaieko gazteek ez zuten soldadutzarik egiten. Menjcoulet'ek eta Palassou'k egia diote : mendietan Biarno'ko gogoia ez zan guziz arrotzu : feudalismoa, esate baterako, « doi-doia da ezaguna » Aspe'n bigarrenaren ustez. Eta Biarno Beherean ere, Pettara'n edo Erribera'n bezela, feudalismoa nagusitu zanean, herriaren borondatearen eta herriko legeen kontra nagusitu zan. Biarno'ko foruen izpiritua eta geurena bat dira; eta berbera ere herriaren gal-tzea.

Gauza bera ere erresumaren askatasunaz. Entzun dezagun Faget de Baure, Paue'ko « Nafarroa'ko Parlamentoan », 1817'an Kontseillari : « Errege-gai guziei proposatzen zitzairen beren etorreran Foru zahar hori; eta gure abantaillak gorde-araziz, gure Lege Zaharrari menegitea zin-e:agiten zitzairen. Biarnota-}rok, beraz, agintza hori agintari-gai-engandik jaso ondoren, agintaritzat hartzen genituen. Beren ziña, beraz, geurea baiña lehenago zetorren. Beren aginpideak eta gure menpetasunak gure Biltzarraren deliberoetan zuten muga »... Egia zuen : Frain-tzia'n ez zan horrelakorik gertatzen, hola-hola bederen, Biarno'tik kanpora.

« Malato » zuhaitza gero eta usuago aipatzen da abertzale ikasien artean Euskal Herriko ezagugarritzat. Bego. Euskaldunek ez omen genuen gudurik egiten Euskal Herritik at; eta sorteriaren muga « malato » ak ezagutarazten zuen. Hala da kon-dairak dionez.

Nork daki ordea gure artean, biarnotarrak berdin jokatu izan dirala Biarno'tik kanpora joan ez nahi hortan? Adibide bakar bat aipatuko dut hemen.

1558'ko urtean, Nafarroa'ko abertzale askok, babes billa Biarno'ra bildurik, eta oraindik Nafarroa'ren askatasuna berriz lortzeko itxaropena ez osotara galdurik, bortxaz hartzea erabaki zuen. Ba zuteken biarnotarren laguntza, erregez bat baitziran orduan Biarno eta Nafarroa. Ozagaine'ko (« Osserain ») zubira iristean (hau da : Biarno'ren eta Nafarroa'ren arteko betiko mugara), Urzari'ko (« Ossau »), Aspe'ko eta Baretz'ko biarnotarrak (« Les Vallées » edo Biarno Garaiekoak beraz) beren Lege Zaharra baliaraziz, Biarno'tik at gudurik egin nahi ez, eta tenk egin zuten zubian. Eta hantxe gelditu ziran. Berrehun urte

beranduago, euskaldun baxenabartarren erabaki berberak galduko zuen, zenbait urtez, Harispe marexal famatua.

Ehortzeta aurreko hiletariak oraintsu arte gorde dira gure artean. Eta berean, berriz ere, Biarno'ko « angurra » eta « aurotz » dalakoak (aspetarren hitz berberak- darabilzkit) oraintsu arte gorde dira han.

Gure arteko « agoteak », « cagot » izenez ezagutzen dira Biarno'n. Eta hauen eta haien ezagugarriak eta kondaria berberak dira gure artean eta han. « Agoteak » orain dala ehun bat urte arte izan dira gurean ; « cagot »ak orain dala berrehun bat urte arte. Mespretxu berbera, eliz-ate berezi berberak, salapidetzat antzararen atzapar gorri berberak... Ohitura zaharrak eta ez oso demokratikoak... Hitz batez : jokabide berberak Biarno'n eta gure artean.

Horra hor, nik uste, Biarno'ko euskaldungoraen sahets-aztar-na batzuk.

*

**

Baiñan euskal hizkuntzak, euskerak, egin du Euskal Herria ; eta euskeraren heriotzak hilko luke. Zer dio, beraz, Biarno'ko kondairak, gure herri-mintzairari buruz ? Gaiñerakoa ez zait fitsik iduritzen beste hau gabe.

Lan zailla. Noizpait, betarik banu, sakonki egin nahiko nuke.

Ohar bat hasi baiño lehenago : esan dudan bezela, iparraldeko famak siñistarazi ligukeanaren kontra, euskera aspaldidanik atzera ari da nun-nahi. Askoz ere polikiago, hau bai, iparraldean hegoaldean baiño ; baiñan euskeraren muga geldirik dagoena, ez da iñundik ere egia.

Lehenengo atzerakada nabarmena erromatarren denboretan gertatu zan, euskaldun ziran akitandarren eremua ia osorik (Biarno Beherea barne) erdaldunduz.

Normandarren etorreraren ondorioz gertatu bide zan bigarren atzeraldi larria ; eta Konpostela'rako bidean barrena pellegriñen eragiñak azkartu : XI gn., XII gn. eta XIII garren mendeetan erdaldundu bide ziran Biarno Garaieko Urzari eta Aspe'ko eskualdeak. Oloroe'ko inguruetan, Aspe'n, Jaka'ko partidan, Zankotza'ko eta Garez'koetan, urte haietan nahasi bide ziran erdera eta euskera lehenengo aldiz ; mende askotan zehar halere erderak ez guztiz gaillendurik. Urte haietan, esate baterako, Urzari'ko eta Aspe'ko euskaldunez ari dira usu dokumentu zaharrak, hango-tarrak « vascón » deituz. Ez da dudarik, beraz : urte haietan, XIII garren mende arte gutxienez, euskera zan Biarno Garaieko hizkuntza.

Eta hirugarren atzerakada oraingoa da : 1789-tik hununtza gertatu dana, alegia.

Gauza jakiña da, eta dokumenturen bidez frogatu ditekete, Burgue (« Bergouey » erderaz), Erriti (« Viellenave de Grammont »), Ozagain (« Osserain »), Jestatsu (« Gestas »), eta Eskoitz (« Escos ») herriek, esate baterako, gaur arras erdaldunduak, joan dan mendean trukatu zutela beren hizkuntza. Ez oso aspaldiago beste batzuk : Ustasu (« Geüs »), Jeruntze (« Géronce »),

Meritiñe (« Meritein »), eta beste. Jendeak halere gaur, Amikuzeko eta Petarra'ko bazterretan, herri « biarnesak » dirala dio : hizkuntzaz bereizten ditu. Hizkuntzaren muga, horrela, gaur berean ere nagusi da; eta erresuma-ezagupideei berei nagusitzen zaie.

« Heben biarnesak dire oro », entzun diot nik Karrese'ko euskaldun bati (Karrese'n sortua bera, esan zidanez; baiña familian ikasia euskera, ez kalean). Berdintsu esan zidan beste batean Xalbaterre'ko (« Sauveterre de Béarn ») euskaldun jator batek : « ni biarnesa niz, bainan eskualduna »; azaldu zuenez, bistan da, ez Xalbaterre'n ikasia, Donapaleu'ko bere lagunekin baizik.

Ahazparne'n, aldiz, euskalduna eta « kaskoina » bereizten dira; eta Gipuzkoa'n euskalduna eta « kastellanoa ». Eskiularrek, ordea, biarnotarrak izanagatik ere, euskalduntzat daukate beren burua.

Gauza jakiña da bi « Vasconia » daudela : Ahuñemendiz iparraldean bata (Wasconie, Gascogne), eta hegoaldean bestea (Nafarroa, País Vasco Navarro, eta abar). Oihenart xuberotarraren kondairak hunela du izenpurua : « Notitia utriusque Vasconia »; eta Jaurgain-en bi liburu lodiek hauxe : « La Vasconie ». Sarrailh'en « Vasconia » zalapartatsuak, hortaz, ez du egin, hainbeste harrabotsen artean, kondairagille guziek betidanik ezagutzen zuten egia bat ezagutarazi baizik; berdin esan diteke Euskal Herriko zabalerez edo hedaduraz : Jaurgain edo Oihenart irakurtzea baizik ez da behar. Egia esateko Sarrailh'ek ez du ez ezer asmatu, eta ez astakeriarik esan : iragana etorkizun aurkeztu du. Hau da karkoa. « Vasconia »rekin Oihenart'engandik Sarrailh'engana pasa gera, « zan »-etik « date »-ra.

Biarno'ko anitz leku-izenek latiniñeraren itxura du, eta beste anitzek euskal kutsu nabarmena. Gaurko euskerak ez digu batzutan asko laguntzen hauek zer adierazi nahi duketen jakiteko. Baiña ba da beretan baitezpadako euskal eite bat, zalantzarik gabeko euskal kera bat. Lafon, Mitxelena eta Menéndez Pidal euskalariak ez dute huntaz dudarik batere egiten.

Biarno'ko leku-izen zaharrak erdera guziek bestelakatu dituzte : kaskoinak lehendabizi, frantsesak eta espainiolak gero; eta askotan trukatu ere bai. Gaurko Euskal Herrian bertan gauza bera gertatzen ari dalarik, zergatik ez lehenago Biarno'n? Euskal kidea ezagu ez bageneza, nork esan lezake gaur « Bonloc » Lekuine izan ditekeala, « Larceveau » Larzabale, « Sauguis » Zalgize, « Bigüezal » Bihotzari, « Puente la Reina » Larrainzubi, eta « La Négresse » Herausterri? Nork atxeman, beraz, euskal kutsurik Biarno'ko izen zahar askotan, jatorriz euskerazkoak izanagatik ere?

Pau'ko « Gave » deritzana, Ihuri da euskeraz; Labastide Villefranche » Bastide-Xarre; « Angous » Angastue, « Arancou » Errango, « Castetnau » Gazteluberri, « Came » Akamarre, « Geüs » Ustasu, « Ossau » Urzari, « Barétous » Baretoz; « Barlanès » Sarraltzune; « Lescar » Laskur; « Lescun » Laskun; « Accous »

Akoz; « Sarrance » Za rantz; « Eysus » Isuazi; « Audaux » Aldeoz; « Os » Aoz; eta abar, eta abar.

Biarno'ko Xalbaterre'n ba da Utsue-ko Ama Birjiña bat, Nafarroan bezelaxe. Eta Saroihandi'k aspaldian frogatu zuen, bokaleen arteko hizki edo letra batzuk era berera billakatzan dirala biarneraz eta zenbait euskalkiz; eta, bestetik, Biarno'aren erdalduntzea orain dala gutxi gertatutako fenomenua dala (« gutxi », hizkuntzen araberan).

Euskalarien iritziz dudarik ez dago : Ahuñemendiz iparraldera hitzegiten zan akitanera (Aturri ibaietik has, eta Garona'raiño) euskera mota zahar bat baizik ez zan. « Akitanera euskera zaharraren forma bat dala pentsatzen da eskuarki » (Lafon'ek). Biarno, beraz, erromatarren denboretan dudarik bate-
re gabe, euskaldun hutsa zan. Ebro'tik Garona'raiño gutxienez, Bizkai'tik Val d'Aran'eraiño, hizkuntza berbera baitzan nagusi; eta hizkuntza hori, zenbait hizkeratan zatiturik, gure euskeraren asaba baitzan : « l'aquitain n'est pas... une langue intermédiaire entre le basque et le gaulois, mais une forme ancienne du basque qui avait emprunté des mots au celtique », dio Lafon'ek.

Hunengatik Biarno'ko leku-izen zaharrek euskal funtsa dute; ikus, adibidez, normandarren etorreran hustu ziran « herri-ohi » en izen batzuk : Ardoz, Garue, Illea, Lengoz...; eta berriz ere toki beretan eraiki ziranenak : Laskur, Laskun... Mendiez bestaldera, Aragoa'n, gauza bera dugu : Exea, Aierbe, Berari, Beskoain, Biskarroz, eta abar. Canfranc'en ondoko Igoazar'ko kapera, beilarrien artean famatua, eta beste anitz, zer dira, izenari gagozkiola, euskaldungoa zahar baten zantzua baizik ?

Azaldu dan bezela, beraz, normandarren etorreraren ondotik hasten dira Biarno Beherean erdal izenak. Ez da ahaztu behar normandoak 841-etik 980-a arte egon zirala Biarno'n; eta Paue inguruko jendea bi mende horietan Biarno Garaiera aldatu zala, ikasitako erdera berekin eramanez.

* *

Mendebaldeko Biarno'n, ordea, askoz ere berriago dirudi erdalduntzeak; eta ez gaur berean ere burutua. Xalbaterre'ko eta Oloroe'ko inguruak, eta Baretoz'ko eta Joz'ko ibarrak, ez dira oraindik arras erdaldunak.

Hunela konpreni diteke, nik uste, Smet jaunak bere gramatika 1597an Biarno'n euskeraz egiten zala esatea : euskera Biarno'ko hizkera izan baitzitekean zenbait herritan bederen.

Bestetarik ere ez ote dago erdalduntzearen gora-beherak jarraitzerik ?

Haran hertsietara hizkuntza berri bat datorrenean, beheitik sartu ohi da goiko aldera, eta hiri nagusietatik herriska ttipien aldera; eta azkenean bakarrik nagusitzen da baserriez eta goiko eskualdeez.

Har dezagun Arga, Nafarroa'n, esate baterako. Zer dakusagu ? Eugi euskeraz ari dala gaur ere; Larrainzubi euskeraz ari zala orain dala larogei bat urte arte; eta Azkoien, aldiz, (« Peralta », lege-izenez) aspaldi ezkeru dala erdaldundua.

Berdin ere beste haranetan. Biduze'koan erderaz ari da Akamarre, baiña euskeraz Donapaleu; Errobi'koan euskeraz Bidarraigoian, eta erderaz Baiona, behean; Urumea'koan erderaz Donostia, euskeraz Goizueta. Eta abar.

Haran hestuetan bi hizkuntza alkarren ondoan daudenean, goiko eskualdeetakoak erakusten du zein izan dan haraneko mintzaira zaharra; eta hiriek eta behereko eskualdeek zein berria. Eugi'ren bidez dakigu Azkoioren euskalduna izan zala, Goizueta'ren bidez Donostia, eta abar.

Ez zaio hau euskerari bakarrik gertatzen : kaskoinerari, esate baterako, berdin gertatu zaio : Lurde (« Lourdes ») frantsesez ari da gaur, baiña Luz kaskoinez. Hots, orain dala ehun urte bakarrik, Bernadette Soubirous'ek ez zekien kaskoinez baizik. Bigorra kaskoina zan arrunt, frantsestu aitzin.

Biarno'ko haranak aztertuz, hortara, Biarno euskaldunaren beste frogabide bat izan dezakegu. Ez da ahaztu behar ere Uhaitzandi, Baretoz, Aspe eta Urzari'ko haranak jeografiak (eta kon-dai.ak ere) askotan eman dituela alkaturik.

*
**

Zuberoak ba du, ia soilik, Uhaitzandi'ko ibarra (« Saison » frantsesez). Behereko Ozagaine ezik (eta ez aspaldidanik) euskaldun hutsa egon da luzeera guzian gure egunak arte.

Biarno Garaiak aldiz haran bakar bat ez, baiña hiru ditu : Urzari, Aspe eta Baretoz; eta ttipi bat : Joz ibaia, « Josbaigt » dalakoa, behereko lurrek osatua.

Joz goikoa eta beherekoa, Joz osoa beraz, Biarno dira jeografiari baldin bagagozkio; eta berdin Eiloz'koa. Halere, Barkoxe (Joz goikoan) Zuberoa da gaur, eta euskalduna; eta Eskiula, Eiloz'en, euskalduna eta Biarno. Josbaigt dalakoa Biarno da, eta erdalduna. Zergatik hau guzia?

Has gaitezen Baretoz'tik.

Baretoz'ko harana, nahiz baretoztarrak xiberutarren etsai amorratuak izan mendetan zehar, oraintsu arte euskeraz ari izan dala dirudi. Beheitik gora ibaia jarraituz, herri hauek ditugu : Inhasi (« Féas »), Arhantze (« Ance »), Aramitze (« Aramits »), Areta (« Arette »), Landa (« Lanne »), eta hunen hauzo bat : Sarraltzune (« Barlanès »).

Illara hortantxe ere aurkitzen dugu Baretoz'ko harana gorago eta euskaldunago, Urumea'koa edo Arga'koa bezelaxe.

Sarraltzune'n eta Bentaberri'n bereziki, gaurtxe ari omen dira danak euskeraz; Landa'ko herrian ez danak, baiñan « zenbait familia » bai, gatzigatu didatenez (eta lehenago danak, Pingret'en marrazkiak pentsarazten duen arabera); Areta'n gutxiago, ezpada Erronkari aldeko leku-izenetan edo, gaur erdaldunen arteko muga billakatua. Aramitze'n, Arhantze'n, eta Inhasi'n aldiz, jakinarazi didatenez, iparraldeko hauzo eta baserrietan euskeraz ba dakite oraindik. Garbi agertzen da, beraz, Baretoz'ko hizkuntza zaharra euskera izan dala; eta ez oso aspaldian, zenbait tokitan euskera gaur berean ere aditzen da-ta.

Baretoz, alabaiña, beti izan da Biarno'ko hiru haranetarik bat.

Joz eta Eiloz'ko ibarretan gertaera be.bera dugu. Zubero'ko herririk gehien gehienak (danak, nik uste, hastapenetan) Uhaitzandi'ko ixuraldean ziran. Zein herri ez, gaur bederen? Ba.koxe batetik; eta Biskei, Larrori, Soraburu, eta Mitikile'ko hauzo bat. Ospitalepea eta A.rokiaga ere ez dira izan Uhaitzandiko herri, Xalbaterre aldeko ixuraldean baitira.

Lehenengo ustea, beraz, hau da : hasieran Uhaitzandi'ko herriek ez bestek osatzen zutela Zuberoa. Uhaitzandi'ko ez diran herriak, jeografiaz Biarno dira; eta euskaldunak ziralako, hizkuntzaren irizpidea ber.iz nagusitu, eta Zuberoa billakatu dira. Hain zuzen ere ba dakigu (ikus Vinson, esate baterako) azkeneko denboretan hizkuntzaren berezpidea ha.tua izan dala herriak eta eskualdeak partekatzeke. Hizkuntzaren muga beti gotorra izanik, harritzekoa ez da gaiñerako kondaira-bereizpideak ahaztutzea.

**

Baiña jeog afiaz gain, zer diote Zubero'ko eta Biarnoko kondairek? Xehetasunez aztertu behar da hau; baiña haizu bekit ideia batzuk bakarrik ematea.

Ozagaine'ko zubia eta Oillarburu'ko muñoak beti ezkerok izan dira iparraldeko muga, Zuberoa'ren barnean. Xalbaterre, bestetik, beti izan da Biarno, Oloroe bezela.

Barkoxe, ordea, ez da, dirudienez, beti Zubero'ko agertu; eta agertu danetan ere, Berorize bezela, mailla berezi batean izan da (Euskal Herria Espaiña'ko Erresuman bezela edo...). Zergatik?

1789 arte ez bide da Barkoxe ziurki zuberotartzat ematen (barka, otoi, barkoxtarrek, egun guziz xiberutarrak). Lahunzurnarte'ren herri-lerrokadan, XVI garren mendean, ez bide da Barkoxe agiri; eta Jaugain'ek argitarazi dituen beste batzutan ere ez, oker ez banago. Iritzi ausarta hunek sakontzca behar du; ba dakit, eta egingo dut Jaungoikoa lagun. Gaurkoz ez zait eragabea iruditzen; eta horrengatik jarri dut hemen, baldinkizun gisa.

Eskiula bestalde beti izan da biarnotarra, esan dudanez. Eta Barkoxe, Larrori, Ospitalepea, Arrokiaga, eta beste, ez ote dira izan antziñan biarnotar eta euskaldun batera : erresumaz Biarno'ko eta hizkuntzaz euskaldun alegia? Zuberoa Uhaitzandi hutsa izaki.

Xalbaterre'ko hauzo batzuk, eta inguruak, era berean, beti izan dira Biarno'ko; baiñan euskaldunak ere egon dirala iruditzen zait, eta orain dala urte gutxi arte egon ere : Abitain, Berraute, Sunarthe, Xarre, Ginarthe, Uskain, Sangladia, Azpilda, Angastue, Kamu, Arribe, Munein... Euskal kutsua darie izen gehienei; euskera ez da aspaldian iraungia.

**

Biarno, hortaz, orain dala oso mende gutxi arte, goiko eta mendebaldeko eskualdeetan bederen euskalduna egon dala iruditzen zait. Ez da nafarra izan, ez bizkaitarra, ez gipuzkoarra; baiñan euskalduna bai. Bere euskaldungoa Araba'koa baiña zahar-

txoagoa da; baiña Errioxa'ko eta Jaka-ko eskualdeetako bañño oraiñagokoa.

Zergatik ez proposa, beraz, orain moda dala-ta, Eskiula eta Aramaio « jumelage »tan ezkontzea? Araba eta Biarno arras erdaldundu aurretik hori egiteak ba du heriotza-kutsu bat; ba dakit. Baiñan hunela segitzekotan Araba laister emango da erdal-duntzat, eta Aramaio gipuzkoartzat; eta besterik diotekenak zoro-tzat hartuak izango dira...

Alabaiñan, ez dago gauza hauetaz ezer idatzirik.

Eta Euskal Herriko gazteriak (eta Biarnokoak agian!) ez ditu, hilleta-giroan, Eskiula eta Aramaio bakarrik uztartu nahiko; nahiago du, agian diot, Bilbao eta Lacq « jumelatzea », pizte-giro kartsuan. Hobe.

Eta zergatik ez ere Laskur eta Lizarra, biak Nafarroa'ko errege-hillobien egoitza?

Biarnotarrek berek azken hitza.



Azken heriotza dala-ta

BERRIZ irakurri dut Teilhard de Chardin'en « L'Esprit de la Matière » saiakera ttipi eta mamitsua. Eta ez dakit Teilhard'en pentsaeraren hildoa ez ote dan izkiribu hortan bestetan baiño aisago segitzen ahal; zeren-eta denboren atzean gerta gurek Azken Heriotzaren kezka egilea no: aiño astindu zuen bestetan baiño nabarmenago agertzen baita. Teilhard'en kakoa huntan datzala esan diteke.

« Omega » ez da, ez saiakera hortan eta ez besteetan ere, hozki eta lojika hutsaren arabera bakarrik sortzen; Azken Heriotza hori hiltzeko nahi-ta-ezko sorkari bezela baizik. Ez dut esan Teilhard'en pentsamendu-bideak duen barne-lojikaren kontra sortzen danik « Omega » : Teilhard'ek ba du barne-gotortasun trinkoa; baiñan Azken Heriotzaren amillondo ikaragarri hortatik nolapait ihes-egiteko beharrak eragiñik eta bultzaturik ere sortzen dala, bai. Eta hau, berriz ere, gizonaren egarria Absolutu egitea da.

Hunela mintzo da Teilhard : « Le monde cesserait légitimement et infailliblement d'agir — par découragement — s'il prenait conscience (dans ses zones pensantes) d'aller à une Mort totale. Donc la Mort totale n'existe pas ». Alegia : gizona gogaituta geldituko litzake; beraz, « Heriotza Osorik ez dago ». Fun-tsean, « Omega » ez da Teilhard'engan gure adimendua besterik. Ni oso teilhard-zale naiz : Teilhard da azken itxaropena. Baiñan Teilhard'ek « Omega » billakutzen du gure Absolutu-egarria ; mundua geure adimenduaren arabera plegarazi nahi du. Hots, egarri eta ikusmolde horiek (geureak, alegia) gure zibilizazioaren seme dira gehien bat. Gure adimendua, eta gure nahiak eta ametsak batez ere, ez dira Absolutu bat : gure adimendu eskasa, eta gure nahi eta amets zoragarriak baizik ez dira.

Ba du, beraz, saiakera horrek garbi mintzatze hori. Eta ba

du ere, esan dudanez, nabarmen, beste izkiributan baiño nabarmenago bederen (eta hunengatixek nik maiteago) nihaur askotan kezkatu nauen ideia nagusi eta izugarri bat : Kosmoaren Heriotza Osoarena. Ona:tu eziñik gaitzetsirik ere, Munduaren Akabera guztizko horren ikarak, noizbait ikutu zuen Teilhard, eta dar-dar utzi.

Jakiña da : Teilhard'ek ez du gertakizun izugarri horitan siñisten, uste baitu hain zuzen Heriotza Oso eta Guztizko horrek orain arteko billakaera edo eboluzio guzia uka eta ezezta lezakeala. Eta hunek goragalea ematen baitigu. Horrengatixek, dio, beste irteera bat behar da. Behar da : beraz, ba da. Unamuno datorkit gogora : nere egarria ematzeko beharko litzake; beraz, ba da. « ... entonces no es nuestro trabajado linaje humano más que una fatídica procesión de fantasmas, que van de la nada a la nada... Si del todo morimos todos, para qué todo? ». Eta, hortatik beraz : « ... Creer en Dios, ante todo y sobre todo, es querer que lo haya. Y así, creer en la inmortalidad del alma es querer que el alma sea inmortal; pero quererlo con tanta fuerza, que esta querencia, atropellando a la razón, pase sobre ella »... Ez dabilta alkargandik urrun, funtsean, gizonaren nahiaren eta egarriaren istimuan.

Ez da harritzekoa horrelako jauzi bat denek ez onartzea : Jean Rostand biologoak, esate baterako, goratik gaitzesten du jokabidea; eta munduaren sentiduari dagokionetan, Teilhard'en aurkako guztizkoa dala dijo.

* *

Goazen bada gu ere urrats eman-aurre hortaraiño bakarrik : horreraiño lasai joan gaitzetzke, bai Teilhard kristauarekin eta bai Rostand jainkogabearekin ere. Hitzegin bizaigu Rostand'ek : « Egunen batean gure Lurra ezeztatuko da, gaiñerako planeta guziak bezela. Agian gizona hemendik at joango ote da? Eta, zergatik ez? Agian beste planetaren bat aurkituko du, eta hortan ostatatuko da zenbait mendez »...

« Zenbait mendez »... Besterik ez.

Eta gero illuntasuna, gelditasuna, heriotza nun-nahi. Heriotza Osoa, Izartegiaren Amaia !

Batek edo bestek errèpikatu duke berekiko, nik uste : « To ! Berriz ere Kosmoaren Heriotzaz ari zaigu Teilhard, eta ez pertsona xumearen heriotza xumeaz. Berriz ere letra haundiak darabilzki; berriz ere Osotasunaren eta Absolutuaren nahiak ito du, gizonak gerala ahantziz eta ahantzaraziz. Teilhard'ek ez daki gizona gizon ikusten, eta bere giza-maillan aztertzen : beti gizadiaz ari da. Txingurriei buruz ere hitzegitean, segur naiz txingurrien « phylei »ez baizik ez lekikeala hitzik esaten. Ortzera begira jartzen danean, izarrak ez-baiñan galatsiak ikusten ditu urrenik ».

Ezin diteke hau arras uka : ba du gure jesuitak horrelako joera bat : alegia, multzoa aisago ikusten bide du bakarra baiño. Eta etsistentzialismoaren ikutua dugunok (Kierkegaard eta Unamuno « anaiok » : bihotz bihotzez anitz esker !) « haunditasun, »

guzien bildur izaten gera. Hots, ba dirudi, Teilhard'i buruz ari naizelarik, bildur ho.rek sustrai bidezkoagoak izan ditzakeala.

Halere, puntu huntan bederen (eta ez huntan bakarrik) Teilhard'en pentsaerak ez dio nehorenari ezertan zorrik, eta gizatasunean ere ez; arazoak eskatzen duen haunditasuna baiño haundiagorik deus aipatzen ez duela deritzat. Baiña gizona jainko bat ez izatea besterik da : gizona sorkari ttipia eta laburra agertzea ez da Teilhard'en falta; kontrara, Teilhard'ek goratu baitu gizona beste edono.k baiño gorago, gizadiaren parte dan aldetik bederen, Kosmoaren kako egiñez.

Gizonaren heriotzak, pertsona xumearen beraren heriotzak alegia, askotan eta sakonki kezkatu zuen Teilhard. Eta hori dalata, hau izkiriatu du Henri de Lubac'ek, haren ordenakide eta adiskide zanak: « (Teilhard'en) gogoetan, heriotza billakatzan da besteen artean muiñaren azter-gai nagusi; eta hainbestez, nun bere obra guzia jo eta erakuts baititeke, bitxigarri-nahirik gabe, heriotzaz egindako gogoeta zabal eta sakon bat bezela ».

Ez da aierurik, beraz, Teilhard'ek beste Heriotza Oso hortaz ere mintzatze hortan : Munduaren Azken Heriotza aipatze hortan, alegia. Berdiaeff'ek ere, esate baterako, (irakur « La Destination de l'Homme ») etsistentzialista izanik ere, hau dio : « Pertsonaren suntsieraren ideiak ez-ezik, Munduaren amaiaeren ideiak ere ikarutzen gaitu. Ba dago Giza-Apokalipsis bat; eta ba dago ere Mundu-Apokalipsis bat... Eta, gauzaren bitxia : bigarren heriotza hunek gudan sortzen duen ikara, gihauren buruaren heriotza pertsonalak berak sortzen duena baiño haundiagoa da ».

Alde batetik behintzat hala da. Gu guziok hiltzea, egia aitortzeko, geu hiltzea alegia, zeu eta neu, funtsez ez zaigu harrigarri iruditzen : gure bihotza asaldatzen da, nahi bada; baiñan ez gure burua. Nor gera ba gu, ez sekulan hiltzeko? Are gehiago : zer egingo genuke guk, gizajook, gure huntan mendetan barrena beti ere bizirik? Beti-ere bizi behar horrek, hain zuzen, dardaratu egiten du Simone de Beauvoir « Tous les hommes sont mortels » dalakoan; eta dardaratu egiten zuen ere Kierkegaard, hunek zioelarik : « ez dakit nik zerk ikaratzan nauen gehienik : noizpait hil beharrak, ala nehoiz ere ez hiltzeak ».

Gure hil-beharrak tristagarri izan dakiguke. Ez besterik.

*
**

« Izan dan, dan, eta datekan » guziaren Amai edo Suntsiera hori, Kosmoaren beraren Azken Akabera eta Heriotza Osoa, aldiz, adimenduaren muiñerataraiño zuzen sartzen dan ezpata zorrotz bat da; eta hortik gure izate guzia asalduz betetzea.

Entropiaren legeak argiturik, Azken Heriotza hori somatu zuen Teilhard'ek; eta illeak lastu egin zitzaizkion. Berdin zitzaion gertaera espantigarri hori bihar berean, hemendik ehun urtetara, ala milla milliun urte barru gertatzea. Eta adimenduaren arabera egia zuen. (Eta sendimenduaren beraren arabera ere, ez ote? Berdin ikaratzan da bihotza, egia esateko). Kakoa epearen laburtasunaz edo luzetasunaz kanpo baitago : muga bat noizpait

izatean, ala mugarik nehoiz ere ez izatean. Hunek du munta; ez noiz.

Noizpait, gugandik oso ur.un, dirudienez, Kosmoa, munduak oro, hil egingo dira; eta gutzaz azkeneko aztarrenak aspaldi ezkeroztik ezabaturik eta ahazturik egotean gertatuagatik ere, zer ansia du? Orduar:teko epea hunelakoa edo halakoa izateak, axolarik ez. « Orduan zer » galderak pisu berbera du.

Eguzkia, esate baterako, ez bide zaigu bereala itzaliko, bere berotasunean gora ari dala uste baita orain; baiñan bai, zalan-tzarik gabe, egunen batez : eguzkiari betikotasunik antzematen dion jakintsurik ez dago. Egunen batean bola eskerga beltz illun bat billakatuko da, Orion'go Zetaren ondoko eremu beltz ikaragarri horren antzera. Pentsatu ahal duzu, irakurle horrek, illunetarako joaira hortaz?

Muga urruti dalako problemaren sakona apalago senditzen dutenek, ez dute ez irudimen haundirik eta ez egia-behar bizirik erakusten.

« Gero zer? », bai; edo, « ordu hartan zer ». Zer da, illunpe horri buruz, izakiak oro malkotan asaldatze hau, zer da oraingo ezin egon eta ezin ikus hau? Denboren gibelean Lurrari eta galatsien multzoeti muga bat eta bukaera bat antzeman ezker, gizonaren barne-lasaitasuna lasaikeria billakatzen da. Egungo izaki guzien segida eta higidura eroa, ez bailitzake, besterik gabe, munstrokeria itsusi bat baizik; lokamuts luzeegi bat... kontzientzi-segida itsua huts beltzean ñir-ñir... Edo, beharbada (nork dakike? Ezerezerako bide gogorrean, izarren argia itzaldu ondorengo azken printza, kontzientziaren eta adimenduaren aldetikako pizte ixilla. Hau segida eroa! Lurrean gaur; han hemendik milliun bat urtetara; hamar milliun urte beranduago harago... Bai. Eta azkenean, egunen batez, piztu eta itzaldu horien lerroan, azken galatsiako azken Lurrari txanda egokitu; eta gero... azkeneko gizadia hil ondoren... azkeneko kontzientzi-erraiñuak iraungi ondoren... Denboraren haize bortitzak erauz eta fundi danak...

* *

Heriotza Guztizko hori somatu ezkeroztik, « Omega »ren ikuspenak bere adimendua argitu arte, Teilhard'ek ez du pakerik lortzen, ez egiazko argitasunik ardiesten.

« Omega »ren teoria anitzek siñisten ez badu ere, fedearen eta siñesteen maillakoa dalakoan; entropiaren emendatu-beharrak markatzen duen beherapena eta pausatutako-beharra ezin aldiz nehork gaur uka dezake, ez buruz ere arbuia dezake; Zientziak edozein fenomenutan aurkitzen duen legea baita.

Heriotza Osoaren ideiak, horrela, gaur gaurkoz, aisa menderatzen du « Omega »ren esperantza.

Hortaz, Teilhard irakurtzean, itsatsi egiten da gugan, sendo eta irmo, zalantzarik gorrienaren hazia; eta bigarrenaren bihia ihartzen. Eskierki iraungiko eta itzaliko da dana noizpait. Zer da, hortaz, sukar hau guzia? Zer dago eritasunaren atzean? Berriz ere heriotza?

Aizean hosto segaillen erara dardaratzen gera hutsaren

hutsuan. Gure Lurrari zuhaitzak bezela atxikitzen diogu. Teilhard'en hitzez mintzatzeko : « (gaur arratsean, lehenengo aldiz), gu gauden lur-mokorra berezirik ikustean, gure etorkitrik kanpora jalgi naizela iruditu zaizt, eta multzo hetsi baten gainean ari nintzala; eta danok hutsunen igeritzen ari giñala, alkarri hestu-hestu heldurik, harrapatu eta erori aitzineko bezperan bezela... Gizonak gizona du lagun. Gizadia, aldiz, bakarrik dago... Gizadiaren ertzak eta hegiak antzeman ditut. Beltza eta hutsa begiztatu ditut gaur Lurraren inguruan ».

Hitz eder eta unkiagarriak ! Nork ez du gaez, noiz edo behin, izartegiko illunari so jarririk, Teilhard olerkariak horren egiazki azaldu digun bakardade-txorabio hori senditu? Pilloturik gabe dirudienez, nora ari da gure Lurraren untzia? Nora ari da mendeetan zehar, eten gabe itzulika eta jiraka Lurraren egazkin borobil hau? Eguzkiaren ingurutik zertarako? Eguzkia ere jiratzten eta aldatzen da zeruan. Dana itzulikatzen da; baiña ezer ez doa inorot. Zabalaren hestua !

Horrela, gizonak zerua miresten duenean, Sartre'ren esaera gogorrek larritu:ik begiratzen du : beharbada « zerua hutsik dago ». Eta asaldatu egiten da. Kosmoa mirestean, betidanik (ikus Pascal'en hitz ederrak, esate baterako) izialdura darraio miresteari. Izialdura datzeko, hobeki mintzatzeko. Pakea eta asaldua alkarrekin datoz Izartegiko ixiltasunetik.

Hori dala-ta, hunela zion Jeans izarlariak, bizi guziaz ortzeko leku zabal illunetara begiratu ondoren : « Zertara biltzen da bizia? Neholaz ere ez dagokion Kosmo batera ia ustekabez erori; heriotzaren hotzak utzarazi artean, ondar-ale zatiño ziztrin bati bortizki heldu; teatro txiki batean oso ordu laburretan harropuztu... Halere badakigu, egia esateko, gure nahikunde eta desira guziak azkenean hutserako dirala; eta guk egindako guzia gure arrazarekin batera hilko dala, Kosmoa bizkitartean gu guziok sekulan izan ere ez bagiña bezelaxe geldituz »...

Egia haundiak ! Egia lazgarriak !

Bere hortan ere bildurtu egiten du Izartegiak. Zergatik? Gu guztiz ohartu ez arren, Heriotza Oso horren zantzua belarrirartzen digulako, nik uste. Berriz ere Jeans'en hitzez esateko : « Bere tarteen eskergarengatik ikaratzen gaitu Kosmoak. Ezin asmatuzko bere denbora-neurriek gizadiaren kondaira osoa begiztita labor bat egiten dute. Gure bakartasunaren sakonarengatik ikaratzen gaitu, gure bizilekuaren eremu-apurkeriagatik; ezen Lurreko ondartza guzietako ondar-ale baten millunen bat baizik ez baita gure ondar-aletxoak. Baiña batez ere, gauza batengatik zaigu Izartegia ikaragarrienik : gure antzeko bizi-moldetik at, edo aurka, agertzen dalako ».

Zenbatetaraño izango da beraz ikaragarria azkeneko egun hartan, dana aspaldi ezkeroz hil ondorengo hartan alegia? Gizagorputz bakar batek ezin azalduzko tristuraz, historaz, eta larriduraz, betetzen bagaitu, zer sendi ote dezake gizonak, gaurdanik beretik, Kosmo guzia egunen batean hillik eta illundurik somaturik, dana aspaldian nun-nahi geldirik eta ahazturik, bizidunen

aztarrenik txikienak ere nondik nahi barreiaturik, eta lokatzean nahasturik; munduak oro guztizitsu, guztiz beltz, eta guztiz hotz, betirako heriotzan finkaturik ?

Eta hortara a:i bide gera ! Bai gure Lurra, eta bai Izartegiko galatsia guziak, ezari-ezarian... Noizpait dana egongo bide da ixillik, dana illunpetan galdurik ; ikuslerik gabe dana Ezerezen pare billakaturik... « Egun batez — berriz Teilhard mintzo — Lurra, fosiltzar haundikote baten gisan, guztiz zurbildurik eta historik agertuko da. Ezertxo ere ez da bere gainean higituko. Ordu hartan, benetan, gorderik dituzke Lurrak gure hezur guziak ».

*
**

« Apokalipsis » liburuan « zerbait » somatzen du egun hortan Joanes apostoluak : « Katadera ditziratsu bat ikusi nuen gero, eta bat bere gainean; eta hunen aurrean Lurra eta Zerua suntsitu ziran. Eta beretatik deus ere ez zan gelditu. » Zerbait dakus Joanes'ek; zerbait desegiten baita arastorik mendrenik ere utzi gabe. Joanes'en ustez, Kosmo illun bat bederen ezabaturiko baita azken egun hortantxe, Jaungoikoaren aitzinean fun-diturik.

Baiña Kosmo illun hori, azken-urtego egunean oraindik ere Joanes'ek somatua, Heriotza Gutizkoaren hondakina, eta Ezereza bera, liferente izanagatik ere, Teilhard'ek berak alderatzen ditu. « L'Esprit de la Terre » dalakoan berriz ere : « Ces esprits s'illusionnent pour n'avoir pas été jusqu'au bout de ce que signifient ces termes : MORT TOTALE de l'Univers. Inconsciemment, nous en sommes persuadés, ils s'échappent avant d'arriver au fond des mots dont ils se servent. De cet « éclair », supposent-ils, une trace résistera, quelque chose sera recueillie dans une conscience, dans une mémoire, dans un regard... Or c'est ce dernier espoir qu'il faut supprimer pour égaler la notion (probablement aussi absurde que l'idée du Néant) de Mort absolue. »

Lehenengoan ba dago « zerbait »; bigarrenean ez. Baiña zerbait hori Ezerezen kidea da.

Horrengatik, Teilhard'en ustez, « zerbait » horren izanak ez du ezer aldatzen. Nahiz illunpe itoan (eta nolatan ulertzen ez dakigula), gorputz-meta itsu eta hotz batzuk nolapait bederen mogi ahal balitez ere, gaur « Laika » zakur famatuaren gorputza Lurraren inguruan itzulika ari dan modura, zer ?

Kontzientzia galtzen duenean da hilla gizona. Hunengatik diogu kontzientzia kamustuta dutenak erdi hillik daudela.

Harigarriak dira Kristo'ren hitzak Lazaro ikusterakoan : loa eta heriotza, bat. Berdin ere Mundua : gizona hil ezker, hilla litzake. « Lurraren Bizia » eta « Lurraren Izpiritua » bildu dituen izakia galtzean, hau da gizadia bukatzean, bere bizia, bere arima, eta bere kontzientzia gal litzazke Lurrak. Hau da : hilla litzake. Materia, bizia, eta oharmena gora joan ondoren, noizpait behera egingo balute, gure Munduak ez luke, haruntz ari, dagoenetik sentidurik izango; ezerk ez luke oiñarri zindorik. Dana igaro-

korra baldin bada, dana amets edo lillura alferra, dana azkenean illunpeen bazka... bete-betea gaituzute India'ko pentsaeran.

**

Nola ez aldera (pentsamenduaren iturburuaren aldetik baka-rik) Teilhard eta Buda, beren kezka nagusiaren bakoitzasuna erakutsiz? Teilhard'ek India'ko filosofiak eta erlijioak ausartki ukatu, eta gogorki gaitzetsi ditu; ba dakit : « oker » ibilli dira hindutarrak « Izpiritua » zertan datzan aztertzean; eta baita ere « dans l'appréciation des liens qui rattachent celui-ci (l'Esprit) aux sublimations de la matière ». (Le Phénomène Humain, 234 gn. horrialdean). Horrengatik esan dut : soluzioa ez, baiña problema bai. Izan, bi salbabide ditugu funtsean : edo Mundua ukatu, eta Heriotza Osoak bere trinkotasuna galtzen du arras (hauxe dugu India'ko soluzioa, budismoan eta budismotik at); edo heriotza hortatik gure buruak begiratzeko, hillezkor dan arima bat dugula siñisten da (eta hau mendebaltarren irtenbi-dea da).

Azter ditzagun.

Ezerezaren bildur horrek ikutu zuen bihotzean Teilhard. Eziña iruditzen zitzaion azkenean dana alperrik izatea. Eta huntan, esan dudanez, Teilhard mendebaltarra da arras. Dana noiz-pait suntsituko bada, dudarik ez dago, gure izate guzia asaldatzen da, eta karrasika esango genuke : « Ez !! ». Baiñan India'ko filosofietan ez da horrelakorik gertatzen : indutarrak gu baiño apalago dira; eta ez dute mundua nahi-ta-nahiez « gizatzen », gizona danen ardatz egiñik; bestaldera baizik. Eta nik beren moduan ikusten dut egia. Mundua eta izartegia ez dira gizonarentzako jostagaillu bat. Alegia : asaldatu egiten da gure barrena huntaz edo hartaz; baiñan hunek ez du ezer frogatzen; gizona ez baita Jaungoikoa.

Teilhard'en iritzi, Lurriak berak sortu dituen bizia eta ohar-mena salbatu egin behar dira; bestela Ezereza litzake dana, lillura hutsak suntsitzearen bidean; eta deihadarrez eta lantsu ari.

« Ez », dio Teilhard'ek. « Ez da posible hori » : « Omega »k deitzen gaitu, « Omega »k argituko eta altxatuko gaitu, « Omega »k bizi gaitu, « Omega »k bilduko gaitu arimaren aldetik (gure kontzientzia apurra bera ere gal ez dedin). Gaurko goraka horrela salba diteke, beheraka nehoiz billaka ez dedin. Itxaropen mogidura batez garaitzen du, beraz, Teilhard'ek Heriotza Osoaren izialdura.

Buda'k ez. Ezer funtsezkorik ez dagoela jakiteak, pakez betetzen du; ez asalduz, gu bezela. Dana da aldakortasuna; ezerk ez dirau. Dana hutsa da; edo itxura hutsa eta aldakorra. Alperrik da ezeri lotzea; alperrik ez : kaltegarri, eta atsekabe guzien iturri. « Dana hiltzen da, dana amaitzen da », dio ez dakienak. « Ez dago ezer egiazkorik eta sustraidunik; ziñez mintzatzeraz, ez dago, egon, ezer ere », dio dakienak, hau da : Buda'ren argiak argitu duenak.

Hori dala-ta, Tibet'eko lamaistek erabiltzen dituzten lau

« arúpa jhána » dalakoen artean, Ezerezaren betestea dute hiru-garrena. Ezertxo ere ez dan « eskualde hutsa » somatzen saiatzen dira lamak, arreta hartaratzuz. Eta eremu edo tarte hutsaren ikuste hunek, besterik gabe « nirvána » ematen ez badie ere, « nirvána »rako bidean biziki laguntzen omen ditu. Zergatik? Eremu edo lekune hutsaren ikuspen horrek, dagoen eta dagoekan guziaren fenomenutasuna sendiarazten dielako.

« Geranok oro « Omega »k altxatuko gaitu », dio Teilhard'ek. « Fenomenu hutsa da dana », dio Buda'k. Ezin ditezke biak alkargandik urrunago egon. Egia da. Gizona salbatzekotan, Kosmo guzia salbatzen du Teilhard'ek, goitik, danetan datzan barne-tasun edo izpiritu-maillatik. Buda'k, aldiz, beti gizona salbatzekotan (hots : fenomenuen kateatik askatzekotan) Kosmo guzia kondanatzen du.

Baiñan biak puntu beretik abiatzen dira : biek senditu zuten dan guziaren igarokortasuna edo alegiatasuna; biek zekiten Heriotza Osoa gertu dagoela, azkeneko denboretan gertatu arren. Azken bakardade hotz eta beltz harek zeuzkan lazturik bata eta bestea, Ezerezaren hegi-hegian, azkeneko hatsetan hagarandurik bezela, argi-behar gorrian kokaturik eta erdi zoraturik; Deus-Ezaren oihartzunak txorabiatu-rik, nardaturik eta batera gaillendurik ere... Teilhard'en goi-argia, Buda'rena bezela, gizon sakon guziena bezela, Ezerezaren amilburu izugarrietan sortu zau.

*
*
*

Heriotza Osoa, Ezereza, « Omega » : horra hor gizontasunaren neurria. Eta horra hor Teilhard, gizontasunak ematen duen izu zirraragarria guri sendiarazten. Horra hor neurria : horra hor gizon bat.

Baiña horra hor ere, nik uste, herrian eta kulturen irizpiderik segurena. Teilhard'ek eta Buda'k gizontzen dituzte Europa eta Asia; eta Unamuno'k Euskal Herria. Indiak ohoratzen du gizadia; ez Feniziak. Athos'ek, ez Krupp'ek. Ixiltasunak, ez zaratak.

Zirtzilkeria nagusitu zaigu, ordea; eta gure mundua gezur zalapartatsuz elikatzen da (omen!), lasaikeriarik lasaienean. Heriotza Osoa azkenean, beharbada... « Eta zer axola guri? », entzun dezakegu — « Tira, tira, motel : horrela gertakizunik ere, zer guri? ».

Zarata poxi bat eta, aurrera mutillak ! Transistorerik gabe nor doa gaur mendira, ahalaz jakiña? Hil egin behar mendietako ixiltasuna ! Zer gehiago behar, gure zibilizazioaren « goitasuna » neurtzeko? Gizona « homo economicus » billakatu da; eta batzutan gure gizatasunaz lotsarazi nahi gaituela dirudi...

Hau esatea « alienazio » omen da... Sosaren gora-beherak, bankuen balantzeak, eta inbertsioen teoriak ez... (Omen, berriz ere) « Heriotza Osoa » hitz soillak, pikuan egotea adierazten omen du. Ekonomiaz gau ta egun, jai ta aste, eten gabe arizatea, aldiz, egian finkatzea omen da...

Halere, sasi-pratikoi guziei gaitzi bazaie ere (eta tristagarriena ez da hori, axolarik ez zaiela baizik...) ba dirudi dana doala

hiltzera; eta galatsia guziak egun batean illundurik egongo dira. Teilhard, Buda, Unamuno, eta Kafka besterik dira, irakurle hori. Zeru izartsura begira zazu noizean behin. Ahantz itzazu arren di:u-kontuak eta gaiñerako lillura-bazka. Alienaturik omen gaude Europa'n... Eta egia da : baiña... beheitik !!

Ixil gaitzen, otoi. Utz soiñua:i. Entzun dezagun gau ixillaren ixilla; argi gaitzan Izartegiko illunak. Produzioa emendaturik ere, gizadia bakarrik dago, ondar-ale ezdeus bati heriosuhar atxikirik...

Telebistan, « bateau de plaisance » batean, eta Sporte'ko Alfa-Romeo'an bide datza zoriona...

Ez, irakurle. Ez.

Zorionak Beckett'i ! Ohore etsistentzialista guziei ere !

Egia dute hindutarrek : ixiltasuna baita kakoa.

Egoki diote sorkaldetarrek : « Nirvâna ixiltasuna da »...

Baietz !!



Euskotarrak utikan !

EUSKERAZ ez dakiten guziei, « erdaldun » esan zaie betidanik Euskal Herrian; eta, egun berean, euskera jatorrez « erdaldunak » baizik ez dira. Gaur arte hala izan da : hizkuntzak mamitu eta mugatu du euskaldungoaren hedadura.

Gure herria hiltzen ari da, ordea. Eta, (nunbait...), jendeak ez gehiegi tristatzekotan edo asaldatzekotan, Euskal Herrian sortutako edo finkatuko erdalduna izendatzeko, « euzkotar » hitz berria asmatu dugu. (Esan beharrik ez : ba dira gure artean ez « tristatzen » eta ez « asaldatzen » ez diranak, ba dakit; baiñan euskaldun izena lardazkatzen ez dutenez mintzo naiz liburu huntan guzian).

Asmatze beretik, bigarren euskaldun-mailla berri bat sortu dugu lehenengoaren ondoan. Lehenengoaren parean, zoritxarrez !

Jakiña da Euskal Herrian bizi diran guziek eskubide berberak dituztela gizon diran aldetik : arrazakoikeria guzien kontra nagoela esan beharrik ere ez dago, uste dut. Baiña Frantzia'n frantsesa da hizkuntza, eta frantsesaren defentsa egitea ez da « chauvinismo »tzat hartzen; era berean espainiolarena Espainia'n, katalanarena Kataluñan, eta txinerarena Txina'n. Aierubide Euskal Herrian bakarrik gerta dakiote zenbaiti, euskeraren alde agertzea. Horreraifño joan gera !! Kanpotikako etorritakoek eskubide berberak dituzte; baiñan euskaldunok geureak ere bai. Eta guk eskubide osoa dugu esateko : « Euskal Herrian zaudeten ezkerok, ikas zazute euskera; euskaldun zaitezte kulturaz eta bihotzez; bizkitartean atzerritar egongo zerate ».

Ez dago hortan « chauvinismo »aren aztarrenik ere. Sentidu huntan, beraz, dudarik ez da : oraindik euskaldundu ez diranak, ez dira euskaldunak, ez dira herritartu; eta gaizki izan ditezke Euskal Herriaren eredu. Herritasunari gagozkiola, beraz, bidezkoa

da esan dudana esatea : alegia, erdaldunak ez dirala euskaldunak, euskaldundu artean atzerritar irauten dutela; eta, sentidu huntan, bigarren maillako euskaldunak dirala euskalduntasunari buruz.

Euskal Herrian gaude. Gure hizkuntzaren kontra ari danak, ez du errespetu gehiago merezi Euskal Herrian, Espainia'n espaineraren kontra ari danak merezi dezakean baiño.

Gure mintzaira ez dakiena ez da euskalduna. Hau da dana.

Horrengatik, e. daldun guzientzako « nortean » erdal hitza guztiz egokia izanik ere, gure herriaren ustel-heiña estali nahiz edo, euskal kutsuko « euzkotar » dalakoa asmatu dugu, egia nahastu edo ahantzarazi nahi bagenu bezela.

Euskeraz ez dakitenak, ordea, euskera mintzabidetzat ez dutenak zehatzago azaltzeko (mintzaira bera lekuko), Euskal Herriak ez ditu sekulan euskalduntzat hartu, atzerritartzat baizik : nahi diran eskubideen jabe, bai; baiñan atzerritar.

Euskal Herriaren zedarrria eta ezagugarria hizkuntza egon da; eta egun berean ere. « euzkotar-kada » guzien kontra, euskeraz mintzo diranak ditugu anaia; eta « nortean », herritasun maillari so jarririk, erengusu baiño ez.

Nortean euskaldun bihurtu nahi izatea, ala nahi ez izatea, besterik da. Nortean batzuk, euskaldun billakatu aitzinetik (eta batzutan sekulan ez billakaturik ere...), abertzaletzat daukate beren burua, eta abertzaleekin bat egiten dute gure Nazio-gataskan.

Beste batzuk ez; eta « nortean »en maillatik « nortean-tzar »en maillara pasatzen dira : hauetxei dagozkie « maketo », « norteanazo », eta horrelakoak. Era berean ipar-aldeko « kaskoinak » eta « frantximentak », euskaldundu nahi ez diranean, « sudouestoais » billakatzen dira.

Berriki arte, « euzkotar » izen geza eta zorigaiztoko hori agertu arte, euskeraz ez zekien « euskalduna » (eta hau esatea birau haundia da), izenari edo deiturari gagozkiola ahal zitekeanik eta jatorrena izan arren, ez zan euskalduna. Eta kitto. Ez zegoen batera bitasunik. Euskeraz horrelakorik azaltzeko, gonbarazio baterako, aski lan ! Neuk ere izan dut orain, eta azkenean komillen artean eman dut « euskaldun » hitza...

Hitzik ezaz, buru-hauste zail bat, eragabekeria hutsa zitzaigun. Besterik gabe : euskalduna ez zan euskalduna, ez zan hartgatixek euskalduna. Gipuzkoarrak euskaldunak ziran, eta Nafarroa'ko Erribera'koak, esate baterako, erdaldunak. Egia dute, nere ustez, Erriberri'koek eta Gasteiz'koek : « Nosotros ya no somos vascos ». Euskaldun billakatu nahi izatea, ala nahi ez izatea : hortan da kakoa euskera galdu dan tokietan. Euskaldun egon nahi izatea, ala nahi ez izatea : hortan ere, galdu ez dan tokietan. Abertzaletasunaren kakoa ere euskaldun izan nahi hortan dago, euskalduna zerbitzatuz.

Euskal Herria errotik izan da beti euskaldunen herria. Euskera gabeko « Euskal Herria », Erdal Herria zitzaigun, Deserria, Atzerria. Euskal Herriaren alde jokatzea, sustraitez, huntara edo

hartara bai, baiña gure hizkuntzaren bitartez jokatzea zan mui-
ñetik beretik. Eta egia genuen : bai horixe !

Nundik kutsatu ote zaigu guri hizkuntzari axolarik ez eman
nahi hori ? Hizkuntza bat ez baita folkloreaken partetxo bat ;
hizkuntza bat ez baita inportarik gabeko bitxitasun bat. Ez.

Entzun dezagun Jean Lacroix filosofoa : « La linguistique
contemporaine... montre que chaque langue implique une vision
du monde qui lui est propre... Chaque langue structure la réalité
à sa manière, et découpe dans le réel des aspects différents ». Hizkuntza bakoitzak bere gisara tajutzen du munduaren egia.

Berdintsu dio ere Martinet hizkuntzalariak : « c'est la lan-
gue que nous parlons qui détermine la vision que chacun de
nous a du monde » ; alegia : gure munduaz bakoitzak duen ikus-
kera, hitzegiten duen hizkuntzak finkatzen du. Hizkuntza ez da
funsgabekeria bat.

Egia du ere Oteiza gure aberkideak, esaten duelarik : « un
idíoma es toda una poética ». Hizkuntza bat ez da hitz-sorta
luze oat baka:rik ; ez eta fonetika berezi bat bakarrik ere. Hiz-
kuntza bat munduaren ikus-molde oso bat da, analoji-zerrenda
organiko bat, olerki-ikuspen bat, herri baten arima.

Ederki zion aspaldian hau somaturik Bizkai'ko Batzarrak,
1864-eko Uztailaren 24-eko bere txostenean, « Colegio de Vizcaya »
zeritzanaren Euskal Katadera sortzerakoan : « donde concluye la
lengua de los pueblos, concluye su nacionalidad » ; hau da :
herrien mintzaira bukatzen danean, bukatzen da ere herrien
naziotasuna.

Hori da egia : hori erakusten du kondairak, hori bera sozio-
lojiak, eta hori be:bera ere betidanik euskal gogoak.

*
**

Euskal Herriko norteñoak euskeraz deitu nahiz, horrela,
« euzkotar » dalakoa asmatzean, euskaldunaren pentsaeran seku-
lan agertu ez zan arraildura bat agerrarazi dugu guk : « euzko »
eta « euzkotar-zale » berri eta bitxi horien iitziz, gauza bat
baita euskal hizkuntza, eta beste bat « euzkotartasuna » ; gauza
bat Eskual Herria, et beste bat Euzkadi. Gure buruaren kaltetan
jokatzekotan, hori baiño pozoi hilgarriago:jk ezin ziteekan inun
asma. « Euzko »ak, « euzkadiano »ak, « aberriano »ak, « vascon-
gadillo »ak, « euzkadillero »ak, eta gaiñerateko piztia arrotzak
gutartera ziran ezkeroztik, gure herriaren bihotza, odola dario-
larik, erdibiturik dago. Eta norteñoen multzoa ezabaiu artean,
odola darioke.

Bigarren « euzkotar » molde e:respetagarri hori dala bide,
beren iritzi okaztagarri eta norteñoztarrak entzun eta barreia-
razi nahian ari dira « euzko-zale »ak oro ; eta nihaurk ditut
laurrian ezagutuak, buruz buru eta izenez, gure herriko zakar-
hondakin horietarik batzuk. Nere Aberria Euskal Herria da ;
« euzko-zale » horiena (« euzkadiano »ena, « euzko-zaleak » erde-
raz baizik ez baitira mintzo...), « euzkadiano » horiena, diot,
« Euzko-Erria » !!! Berak diotenez (espainiolez diotenez, noski)
euskerak ez du hainbesteko premiatasunik...

Kanpoko zanpatzailleek eta bertako traidoreek lagunduta, zabaldu egin da « euzkozaileen » izurritea, gehiegi batere zalan-tzarik gabe. Euskal abertzaleetasuna askotan espaiñol berezkeria billakatu da; eta ez da harritzekoa etsaiek « espaiñol » eta « separataista » deitzea. Esate baterako : Lapurdi'n bizi diran « euzko »ak, bertako eta kanpoko guziek dauzkate espaiñoltzat; eta neuk ere bai, bidenabar esateko. Gure « abertxale » batzuk ezaguturik, edozein jakintsuk edo etnologok esango luke gauza berbera.

Euskal Herriak, kondairaren eta soziolojiaren maillan, nabarmen, agerian, zalantz-izpirik batere utzi gabe, nazio-ezagugarri bakar bat dauka : euskera; eta naziotasun-kontzientzia ematen dion sozioloji-eragille bakar bat ere : euskera. Euskerak egin du Euskal Herria : euskerak ez bestek. Euskerak bizi du Euskal Herria. Euskerak mugatzen du. Eta Euskal Herria piz badadi, euskerak piztuko du.

Politikaren maillan, eta erresumaren maillan, Kondairaren maillan beraz, Euskal Herriak beste nazio-garririk ba duela esatea, ez da egia. Hizkuntzaz kanpo Euskal Herriak ez du gaur, kondairaren maillan beti, aberri-norgarririk batere.

*
**

Etnologoeak besterik aurki dezakete, bai; aurkitua dute. Zenbait eskualdetan arraza bat agian, RH berezi bat. Baiña berezitasun edo naziotasun-ikur hau, liburuaren eta jakintza hotzaren maillan geldituko da. Eta guri bost axola zaigu etno'ojiako liburuetan gailen gelditzea. Guk Kondairan nahi dugu Euskal Herriak garaitzea, herriak kondaira-maillakoak baitira. Guk ez dugu erakustegietan garaitu nahi, Eskual Herriko agintean baizik.

Ar:azak (eta gaur ez dago euskal arraza bat) ez du batasun-kontzientziarik edo nazio-kontzientzirik ematen. Euskaldun baten aurrean ote geran jakiteko, ez du nehork Hirtzfeld'en indizea galdetzen; edo dezimetro bat poltsikutik har, eta ainguruak eta nolana hiko neurriak alderatu ondoren, esaten : « Ba zekiat orain. Hauxe duk euskalduna. Ba dizkik antropolojiak ezagutarazi dituen zerak. Hauxe diat, beraz, nere anaia »... Edo, alde-rantziz : « hi ez haiz nere anaia : hire sudurra ez duk behar bezin luze; eta odola ere ez behar bezelakoa. Utikan ! »... eta hartu-emanak hausten. Euskal Herrian ez dago (nik uste...) ez horrelako arrazakoirik, eta ez horrenbestetaraiñoکو zozorik.

Euskeraz ez jakiteak, aldiz, egiazko harresi bat eraikitzen du euskaldunen eta erdaldunen artean; eta jakiteak aldiz, harresiak goitik behera aurtikiz, anaitasun giro nabarmen bat sortzen du euskaldunen artean. Euskaldunak lekuko.

Hizkuntzak du munta soziolojian; arrazak eta gaiñerakoek ezer gutxi.

Zer esango « euzko » folklorea? (euskaldun folklorea eta « euzko folkloreakeria » ez baitira gauza bera).

Folkloreakeria ere kutsatu zaigu-ta. Hunat hemen gure eskas-tearen beste froga bat. « Euzko »en iritiz mailla berean dira

hizkuntza eta dantzak (ageri danez, jauzika mintzo dira lantegian eta merkatalgoan !)

Folklorekerian datzaten « euzko »en ustez, euskaldun izatea eta turismo-jazkerak, bat dira. Idi-probak nahi-ta-nahi ez gorripatu behar bide ditugu, abarkak nahi-ta-nahi-ez jantzi, bertsolariak gau ta egun entzun, mendi-bazterrak irrintziz nahi-ta-nahi ez bete, eta lamiñetan siñistu.

Ez.

Ezagutzen dugun « euzko » folklorea, askotan « euzko folklorekeria » baizik ez da; eta turismo-aitzekia huts bat ere usu. Gure arteko dantza-taldeak eta « abes-batzak », euzkotarrez joserik daude, taldeak etsaiak berek erutzen eta ordaintzen ez dituztenez. Zergatik ote? Gure etsaiak ez baitira gu bezin tentelak.

Folklorea ez da herri baten nazio-sostengu bat. Anka 124°27'-etaraino taldetan altxatzeak ez du, nik uste, behar bezelako abertzale giroa ekartzen; eta nazio-kontzientzia sortzeko gutxiegi iruditzen zait. Dana dan gauza bat aztertu behar dut : 118°31' baiño gorago ez dudala nere anka nehoiz altxatu, eta hartatik ere lasai nagoela.

Euskaldunek egiten duten folklorea, bestalde, euskal folklorea da bederen; « euzko »ek erderakaden artean egiten duten anka-althatze « euzkadiano » hori, aldiz, beti iruditu zait zikiroen dantza : irendu ondoren, aketirenak kolorez jantzi, eta jauzi... Herriaren arima arrisku larritan dagoëño, zikiroen akelarre hutsak dira dantzak. Pozik egotean egiten da dantza. Ez gaur, beraz.

Eguneroko mintzabidea da hizkuntza, egun guzietan eta egun guzian zehar herri oso batek alkarrekin moldatu duen adierazbidea. Folklorea, euskalduna danean ere (gero eta gutxiagotan, beraz) urtean behingo bitxigai bat baizik ez; edo-ta iñauteri festa bat.

Soiñeko zaharrak gorde ditugu folklorea; ez da dudarik. Baiña soiñekoa ez da soiña; eta folklorerik jatorrena eta egiazkoena pestaburuko soiñeko zahar bat baizik ez da. Soiñeko dan folklorea parte guziek adierazkizun berezi eta jakingarri bana izan arren, soiñeko bat da, eta date.

Eta « euzko » folklorekeria, turismo-iturri bat baizik ez.

*
**

Demokrazi-senak ezagutarazten omen gaitu, « euzko »ek diotenez.

Turistei hau siñistaraztea... bego !! Baiñan, arren, hori geurk siñistu ez. Demokrazi-sena horrek ez gaitu gu beste nehor baiño hobeki berezten. Euskaldunok demokraziaren jatorrizko sena hori baldin badugu (eta ni bederen izateaz ez nago batere ziur...) ez digu berak nazio-batasunik eman. Urlia edo Sandia euskaldunak ote diran jakiteko, nehork ez du galdetzen : « Zu demokrata zera? »; eta arrapostuaren arabera erabakitzen : « Hau euskalduna duk; edo hau ez duk euskalduna ». Zer da demokrazia, bestetik? Bide hortatik abiatu ezkerro, gaiñera, euskaldunik famatuenak, euskaldunetarik kanpo utzi beharko genituzke...

Gaiñera, noiztanik dira aberkide edo herrikide, faxista guziak, jansenista guziak, edo etsistentzialista guziak? Gogaide izatea eta aberkide izatea, ez dira gauza bera. Sorterriak egiten ditu aberkideak; ez ideolojiak. « Euskaldun fededun » esaera, illara hortakoxe ipui bat da.

Euskalduna euskaldun. Hau bai. Ez dut besterik antzematen nik.

Ez dute ez fedeak, ez demokraziak, ez folkloreak, Euskal Herria egin : ez barne-aldetik, ez kanpotik. Euskaldunok betidanik euskaldunarengan ikusi dugu anaia bat. « Euskalduna zera zu ere? » : hunek duen berotasuna eta anaitasun-giroa neurtu ahal izateko, ba... euskalduna izan behar da hain zuzen!

Euskerak ez bestek elikatu du Euskal Herria. Bere galtzearen neurriak erakusten du ongienik Euskal Herriak koloka ote duenez oiñarria. Zergatik, edo zertan, hizkuntzaz kanpo, ez dira gaur Euskal Herria Biarno eta Errioxa? Irakurleak besa.

**

Euskerarekiko maitasuna dugu, era berean, abertzaletasunaren termometrorik segurena : egiazko euskaltzaleak egiazko abertzaleak dira, eta alderantziz. Gauza ezaguna da aspaldiko euskaldunek (eta gaurkoek berek ere askotan, ondikotz!) euskera rekiko izan duten nagitasuna. Gogorazi besterik ez dut egingo Euskal Herrian edozein hizkuntza izan dala erresuma-hizkuntza, euskera ezik; eta, horrelatsu, euskaldunok, orain arte bederen, berotasun handiagorekin defenditu dugula edozein erresuma, geurea baiño. Abertzaletasunik eza bietan agertzen da, nik uste, mailla berean. Ez du gure abertzaletasunaren beroak euskera iraunarazi, gure bakartasunak eta jakintzarik ezak baizik. Erriberakoak et amikuztarrak berdin ! Aitortu egin behar egiak.

Hunengatik, abertzaletasunaren faltarengatik alegia, Europa'ko etniarik gehienak askatu diralarik, kateapean datza gurea, zatikaturik, usteldurik, eta erdi hillik.

« Abertxaleen » eta « sortxikero » en jokabidean agertzen da ongienik, espainioltasuna eta frantsestasuna noraiño zaizkigun sartu. Arrotz-moldeek, guk uste baiño sakonkiago gainditu gaituzte. Gure herritar anitzek askatasuna nahiko luke, (omen...), xuxen zertarako nahi duen ez badaki ere. Euskal Herri ziñezko eta euskaldun horren beharrak, euskaldun gutxi astindu du oraingoz; eta norteñoetarik ezta batto ere.

Egoki zion huni buruz Arana Goiri'k : « erderaz ari dan euskalduna, Aberriaren bihotzean sartuta dagoen ezpata bat da »; eta beste batean : « abertzale dan Euzkadi'ko erdaldunak, euskeraz ikasten du; abertzale ez danak, aldiz, euskaldun izanagatik ere, ahaztu egiten du ». Irizpide xuxena, nik uste. Euzkadi euskalduna izan dedin benetan nahi ez duena (eta nahiari buruz egintzek dute konda). ahal danik eta « separatistena » izan arren, Euzkadi'ren eta Euskal Herriaren etsai okaztagarri bat da.

**

Horiek hola, abertzale izateko eskubiderik ba ahal dugu? Galdera larria; galdera harrigarria beharbada, irakurle hori.

Baiña galdera beharrezkoa. Gure aukera ez baita oso zabala : Euskal Herri euskaldunari euts eta atxik, eta Euzkadi lib:ro baten bidez heriotzatik begira; ala Euskal Herri euskalduna hil eta chortz. Biotatik bat.

Hau erabakitzeko, hizkuntza bat zer dan aztertu beharra dago.

Hizkuntza bat hitzegiteko tresna bat da, gogo-adierazpide bat, mintzabide bat. Eta hau ez bada, eragozpen bat da. Mintzabide dan aldetik eta neurrian balio du eta laguntzen du; eta eragozgarri dan aldetik eta neurrian ere, galerazten du eta kalte eka.tzen. Aipatua dut jadanik, oker ez banago, Martinet hizkuntzalariaren azalpidea : « la fonction essentielle de cet instrument qu'est une langue, est celle de la communication ».

Pertsonak agindu behar, bestetik : hizkuntza bat mintzabide danean, pertsonaren zerbitzuko da; mintzabide ez danean, aldiz, pertsona jartzen da hizkuntzaren zerbitzuko. Lehenengo kasuan hizkuntzaren alde joka diteke; biga renean, hizkuntzaren kontra jokatu behar da. « Behar » hori ez zait oharkabez espakatu.

Haizu duguia, beraz, Euskal Herriari eutsi nahi izatea? Baiezkoan, euskera euskaldunen egiazko mintzabide billaka badi-teke, alegia, bai; ezezkoan, ziñezko mintzabide ez billakatzeko-tan, ez.

Hertsia da ateka. Batetik, egiazko abertzalea izateko, Euskal Herri euskaldunaren alde borrokatu behar da; eta, bestetik, euskaldunen zerbitzuko jarri behar dira euskera, eta Euzkadi'ko erresuma berria bera; bata eta bestea euskaldunen tresna bai-tira. Ez alderantziz.

Folklorekeria dala bide, ezin diteke gure herria eragozpen zaion mordoillo baten zerbitzuko izan. Abertzaletasunak bide medar eta neketsu bat baizik ez digu zillegi uzten : euskera egiazko mintzabide zoli eta aberats bihurtzekoa; euskera gaur-kotzekoa, euskerari benetako balio bat ematekoa. Ez dugu bes-terik.

Euskera bere hortan kondematua dago; eta berez ez balego, euskaldunen alde jokatzeko, geurk beharko genuke kondematu eta arbuiaitu.

Gutziz beharrezkoa iruditzen zait problema horrela aurkez-tutzea; zeren-eta zozokerien kopuruak estaltzen baikaitu.

Euskaltzaleon artean ba dugu zoritxarrez anitz bigun, ame-tsetan eta hodeietan bizi. Eta illunik ezin entzunik, deihadarka hasiko dana : « Ez, ez, ez ! Hori ez ! Geurk hil beharko euskera ? Ene ! Pentsatu ere ez horrelakorik ! »

Beste ameslari batzuk hunela mintzo zaizkigu : « Mendi-gaillurretako baserrietan bederen iraun dezala euskerak ». Ez. eta ez milla aldiz, nik erantzun. Ezin diteke hori. Eta posible balitz ere, ez genuke zillegi. Zokoetako euskera arlote guzien kontra, agirian altxa nahi dut nik, euskera zokozale horren heriotza nihaurk eskatzeko.

Hizkuntza pertsonengan bizi da. Mendi-gaillurretan bizi dira-nek ere, kultura iristeko eskubide osoa dute; eta euskera eragoz-

garri baldin bazaie jakintza lortzeko, hil bedi euskera. Hobe esateko : hil dezagun. Pertsonaren loratzea debekatzen duen euskera ahul eta ez-ikasi horri, mendi gaillurretan beretan eustea ez dugu zillegi. Berriz diot : hizkuntza bat hiztunen ezpainetan baizik ez da bizi; edo... hiztunen lepora! Hizkuntzak ez du — eta ezin izan dezake — hiztunek berek baiño eskubide bat ere gehiago, ezta horiek ez duten eskubiderik batere. Hizkuntza pertsonaren zerbitzari baita, eta ez jabe, zokoetako euskera ez dut inola ere nahi nik. « Jalgi hadi plazara », zion gure Etxepare'k; eta nik hau errepikatzen : « ... ala hil hadi ! ».

Beste ameslari batzuk hunela mintzo zaielikigu : « Euskalki guziei eutsi behar zaie. Tamal haundia litzake erronkariara (edo xiberera, edo nahi dana) galtzea ». Abertzale zintzo batek; ordea, ezin dezake horrelakorik esan. Aukera garbi dago batetik : bat salbatu, ala danak galdu. Eta bestetik, eta hauxe da kaka; erronkariarrek erronkariara, eta xiberutarrek xiberera, eta abar, gaur, gauzak beren hortan, eragozgarri dituzte. Ez diete ezertarako balio, edo ia. Beren euskalkia baizik ezagutzen ez dutenek, kulturatik at bizi behar dute, mundutik at, eguneko gertakariez aparte. Gaiñerako euskaldunengandik berengandik, berex. Nola proposa diteke, beraz, irakurle hori, erronkariarrek, edo xiberutarrek, edo edonungotarrek, beren euskalkiei euste arren, pikuan bizi ditezten? Lotsagarri litzake.

Ez, euskaltzaleok.

Euskera gaitu, osatu, batu, gaurkotu, zorroztu, eta aberastu egin behar dugu. Hau da eginkizun premiatsu bat. Ezin gaitezke beti gure huntan egon : hitzik ezean, ideia bat azaltzeko itzulika, edo ideia lardazkatuz eta nahastuz honda; edo zenbait euskalkitan erabilli dugun hitza era txarrera har ditekeala pentsa. Hogeigarren mendean ezin gaitezke gutxi gora-beheretan ibil : ideiak osoki eta egoki azaldu behar ditugu. Ez da hau behar-bada-menturaz-noizpait-edo aztertzea komeni izango litzakean geroko eginkizun bat, ez. Ezin hunela segi : hunela segi behar badugu, neuk eskatuko nuke, berriz diot, euskeraren heriotza eta Euskal Herriaren ezabatzea.

Bukatu egin behar dira kaskarinkeriak. Sobera pairatu du gure hizkuntza maiteak kanpoko etsaingandik eta bertako ino-xoengandik. Ixil bitez txotxoloak eta txoriburuak : ba da garaia! Nagusi bekiñu zintasuna. Hitzegin bezate euskerari buruz euskaltzale ikasiek, eta ez bezate ezjakiñek txintik ere atera. Izan gaitezen euskaltzaleok, jakintzaz eta burubidez, abertzale-familian gogorenak. Txorakeriaz aski da.

Euskera benetan eta laister euskaldunen zerbitzuko jar; ala euskera gihaurk hil. Horra hor aukera.

* *

Euskera euskaldunen mintzabide nagusi billaka dedin, ordea, Euzkadi bat behar dugu, bere buruaren jabe; eta Euzkadi hortan erresuma-hizkuntza egin behar dugu euskera.

Erresuma-hizkuntza ez diranak oro, galtzekotan dira; eta alderantziz : diranak oro, loratzen eta hedatzen.

Juduek egin dutena geurk ere egin dezakegu, eta egin egingo dugu. Islandiarrak eta albanitarrak gu baiño gutxiago dira. Nork eskatu du, halere. UNESCO'n edo nun-nahi, be:en « mikro-nacionalisme » horri uzteko, eta beren erresuma-hizkuntza ttipi eta ziztriñak alde batera abandonatzeko ?

Erresuma bat lortu artean, beti izango ge:a ttipisko, mikro-abertzale, « cavernícola », « paysan », eta sendimendu itsusien jopu. Erresuma bat eginda, aldiz, dana ongi ikusiko da.

Islanderak eta albanerak hainbat balio dezake euskerak; eta errespetu be:berak ere, dudarik gabe, askatasunarekin batera etorriko zaizkio giro eta eskualde guzietan.

Prestatu egin behar, beraz, egun hortarako. Zeren-eta gaur berean erresuma-hizkuntza izateko gai ez bada, euskaldunona da errua hein batean bederen. Ongi zion Atsular'ek : « baldin egin baliz Euskaraz hanbat liburu nola egin baita latinez, frantsesez edo bertze erdaraz eta hizkuntzaz, hek bezain aberats eta konplitu izanen zen Euskara e:e; eta baldin hala ez bada, euskaldunek berek dute falta, eta ez Euskarak ».

Eskolak, ikasguak, aldizkariak, merkatalgo eta lantegitzako bulegoak, herriko-etxeak eta administrazio-idazkaritzak oro, Euskal Herriko bizi guzia hitz batez, euskeraz egiñarazi behar da. Hunela, eta ez bestela, salbatuko dugu euskera; eta ez euskaldunen « bihotzei » mintzatuz, « Deixonne'ren legea » baliatuz, edo beste hunelako tentelkerien bidez.

Gure herriak, beste edozein herrik bezelaxe, nazioko mintzaira hartu eta harrerazi behar du aberriaren mintzabidetzat. Presta dezagun gurea, eta eman dizaiogun euskaldun jendeari behar bezin azkarturik.

Jakintza-gai batzuk ikasteko beti beharko da erdera baten edo beste:en laguntza; eta on litzake horrengatik, nere ustez, herri guziek erdera bakar bat hautatzea, danentzako berbera.

Gaiñerantzeko jakintza-gaietan, eta eguneroko bizimoduan areago, ez da ezer berezirik behar : euskera gaurkotu ezker, gauza litzake : teknika-hitzak ez dira, esate baterako, usu entzuten. Euskera goragoko urrengo maillara pasa ezker, gauza izan diteke mintzabide gisakoa izateko; juduerak juduei, islanderak islandarrei, eta abar. balio dieten arabera.

Baliotasun hori lorturik bai. Hortara abertzale izan gaitzke, eta abertzale gera. Zeren-eta eskolak, prentsa, merkatalgoa, bulego ofizial guziak, dana, Euzkadi'ko erresuma libroak ez bestek ekar baititzake. Hunengatik diogu goratik : « Gora Euzkadi Askatuta ! »

Eta hau bihotzean bederen esaten ez duena, berariaz ala oharkabean, Euskal Herriaren etsaia da, nik uste. Askatasunera ez daramakiten bideek, maltzurkeriaz ala xinplekeriaz harturik eta jarraiturik ere, Euskal Herriaren heriotzara daramakite-ta.

Bide bakar bat dugu : juduek, tuniziarrek, arjeliarrek, eta den-denek, erakutsi daukutena : Euzkadi'ren askatasunetik igitzen da bidea.

••

Orain artekoa anitz izanda ere, ez da guziagatik aski.

Lehenengo urteetan, zalantzarik ez, nahiz eskola guziak euskeraz jarri (eta lehenengo egunetik beretik danak euskeraz jarri beharraz ez da dudarik batere egin behar !), eta nahiz Euzkadi'ko erresuma-hizkuntza euskera jarri legez; nortekoak eta frantximentak ez dira behingoz, eta egun batetik biharamunera, euskaldunduko. Ba dakigu.

Hala ta guziz ere, espainera eta frantsera jenezidioaren beso diranez, erauzi egin behar dira errotik gure herritik, kupidarik batere gabe; eta ez dugu erdal arrasto mendrenik ere utzi behar Euskal Herrian. Euskera erresuma-hizkuntza bakartzat jarri behar dugu. Bikoiztasuna (mintzaira-bikoiztasuna, alegia), urrats bat izaten da hizkuntza zaharraren galeran : hizkuntza batetik beste baterakoan, bikuntza-aldi hortatik igaro ohi da.

Euskalduntzea, beraz, zenbat urtetan? Ahal danik eta gutxi-enetan. Juduak eredu.

Erderari (frantsesari eta espainolerari, beraz) gudu hotz eta kupidagabe bat egin beharko zaio. Bi hizkuntza horien etsai amorratuak izatea, birtute bat izango da gure Herria euskaldundu artean.

Arte hortan (batzutan dirudienez...) Europa Alkartua sortuko da, eta Europa guzirako hizkuntza bat aukeratuko da erresuma-hizkuntzez gain europarren arteko, hartu-emanetarako, eta goiko kulturako lanetarako.

Beren arteko europatarrek zein hizkuntza hautatuko ote duten ez dakigu. Ba dakigu, ordea, euskaldunok zein proposatu beharko genukean, nere ustez : esperantoa. Irakurleen hurriarengatik, gonbarazio baterako, euskeraz argitara ezin ditezkean liburuentzat; atomo-teknikarentzat, midikuntzarentzat, eta abar, zer hoberik? Areago Europa'ko Parlamentoarentzat : zer egokiagorik, erdikoagorik eta txalogarriagorik, iñungo erresuma-hizkuntza ez dan esperantoa baiño?

Hain zuzen ere, ez dugu euskaldunok erresuma-hizkuntza hertsiri lotzeagatik ito nahi. Aberrikeriak eta nazionalismoak ezabatu nahiz, hain zuzen, esperantoa proposatzen dut Europa'ko hizkuntzatzat. Ongi konprenitzen dugu euskerak, albanerak, txekerrak, eslobenerak, eta abar, hizkuntza tipiak dirala; eta espainerak, frantserak, italierak, eta abar, tipiak dirala ere inglesaren eta txineraren ondoan. Erresuma-hizkuntza guziek falta dute esperantoak duena : zabaltasuna. Frantsesak ez dute espaineraz hitzegin nahi, euskaldunok ere ez, eta txekotarrei ez zaie hungarera atsegin. Izan bedi beraz esperantoa danon bigarren hizkuntza.

Frantsera eta espainera, gisa danez, Euskal Herritik arras erauzi ondoren ere, Frantzia'n eta Espainia'n dukete hedadura zabala.

..

Euskal Herriaren piztea, herri guzien piztea bezela (Irlanda ez da berexkuntza bat : Irlanda'k ez zuen irlandar egon nahi, katoliku egon nahi baizik), hizkuntzaren piztetik hasiko da. Eta bestela ez da hasiko.

Askatasunaren bidez salbatu dute juduera juduek, ez da dudarik. Baiñan askatasunera heldu aitziznetik ere, gogor saiatu ziran judutar intelektualak judueraren alde, erresuma-juduera prestatuz eta finkatuz, hitz berriak sortuz, irakaskintza-mailla guzietan sartuz, eta abar. Nun gera gu oraiño, iraku-le maite hori? Lekutan!!!

Dirudenez, gure Ben Yehuda ez da oraindik jaio. Españeraz edo frantseraz hitzegiteko goragale sakon hori, euskaldun gutxi senditu du gaur arte. Euskaldun « abertzale » asko, euskeraz jakin arren, barra-barra ari dira erderaz, behar gorrikerik gabe; jeneziden hizkuntzaz baliatuz, jenezidioan parte hartuz. Eror bekie horrelakoei betiereko laidoa!!!

Hori baiño la:riagorik ba dugu. « Abertzale » (??) batzuk, askok, gehiegik, jeneziden lana osatu dute etxe-barnean bertan, euskera alde bat utziz, eta haurrei erderaz hitzeragiñez. Horrelako traidoretzarrek (beste edozergatik garai batez, euskaldungo-ari nagokiola, errespetua merezi izan bazuten ere), Euskal Herriaren aintziznean arras dute galdua; eta, alde hortatik, ukulluko zakarrak baiño kiratsago eta higuingarriago zaizkigu. Beren ize-nak ahalke-bide dira; eta hemen bat ere ez aipatzea onena, liburuaren usaiña kiras eta likis ez dedin. Jakin bezate haiñek, beren jokabide zatar eta lotsagarriak ezin gañdituzko higuña emango diela bihar gure ondorengoei. Etsairik zitalenek ez zuter gure kondaira hainbestez zikindu. Irents bitza beren « euzko » saldukeriak berak.

Amai bitez ere « abertzaleak » eta euskeraz ikasteko hainbat kemenik izan ez duten « euzko-zaleek ». Agintariei gagozkiela bederen (herriari buruz problema guzia agintean baitago), erdaldun « abertzaleek » (?), eta mezatara igandeetan, besotik helduta, amorantearekin doatzien « kristauek », kutsu berbera uzten ditate : farisauek uzten zutena, farisau-kutsua.

Amai bitez, azkenik, erdaltzale euskaldunak, euzkoak, eta euzkotar kastak oro. Abertzalea dana euskaltzale da. Eta euskaltzale dana, euskaldun egiten da.

Nork euskaldunduko du Euskal Herria, « abertzale »-izena hartu dugunok guztiz azkarki eta gogorki gaurdanik beretik jokutzen ez badugu? Biharko Euskal Herri euskaldun hori, geurk mamitu eta nortu behar dugu aurrenik gure buruetan eta gure etxeetan, jendeek siñes gaitzaten.

Bestela irri egingo digute, nik « euzko »en lepora bezela. Eta bidez egingo!

Zugaitza frutuak ezagun.

Euskaldun txapeldunei bi hitz

BAROJA'ren « txapelaundi » eta « txapeltxiki » dalakoak usu dira orain euskaldunen artean aipatuak.

Baiña Baroja'ren hitzaldi « catastrophicum » famatuak akats larri bat du : espainolentzat idatzia dala, espainolez, eta erdalkeria eta espainol-modua lerro guzietan dariolarik.

Ba dakit nik Baroja'rer. ezpaleko bat nekez joka zitekeala denbora haietan jelkideen alde, orduko « bizkaitar » haien eskuintasuna gauza ezaguna baita. Are gehiago : beren eskuintasuna nabarmenago baitago askotan beren euskaldun abertzaletasuna baiño. Baiña, hunengatik edo hargatik, Baroja espainol bat izan zan, eta ez euskaldun bat.

Nobelari bikaiña izan genuen Don Pio, zenbait aldetatik bederen; alabaiña, berak maite izan zuen « txapelaundi »-tasun hura ez da nerea, ez da gurea, ez da nehundik ere euskalduna : « boina-grandismo » baizik ez zaigu guri. Arrotz, erbesteko, eta erdalzale zaigu; eta antiklerikalismo zaharkote baten teman finkatua. Tamala da; Baroja balio haundiko euskal idazle bat izan baitzitekean.

Nola uka, halere, « txapeltxiki » asko dagoela gure artean ? Hau dala-ta, euskaldun txapelaundiei dei berri bat egitea guttiz beharrezkoa iruditu zait : « a los Chapelaundis del Bidasoa » ez, Euskal Herriko txapelaundiei baizik. Garaia baita gure idazleak eta artistak euskaldunak eta txapelaundiak izateko, biak batera : guttiz txapelaundi ideietan, beraz; eta guttiz euskaldun kulturaz eta hizkuntzaz. Ez, anitzetan, bezela, maingu eta begibakar : edo, euskaldun bai, baiña txapeltxiki, eta alde askotatik iñoxo eta zozo; edo-ta txapelaundi, bai, alde batzutatik, eta ideia berrie-

kiko zabal, Unamuno eta Baroja bezela; baiñan denbora berean euskalduntasunaz lotsaturik.

*
**

Mende askotan zehar, gelditasunaren filosofiak elikatu du Europa'ko pentsamentua. Arteko-Mende guzian barrena, balore horiek (gelditasunezko baloreak) ez ziran eztabaidatu : ukatu-eziñak ziruditen guziek, betidanikoak eta betirakoak. Galileo'k hortaz « per si muove » hura errepikatu zuenean, guk uste baiño bortizkiago inñarosi zuen Arteko-Mendearen ezagugarri dan segurantzia bare hura.

Gauzak hargatik piskanaka aldātu ziran.

Gure Lurra izartegiko ardatza edo ninia ez dala jakin genuen lehenik. Mundua zazpi egunetan sortu zala esateak sentidurik ez duela nabarmendu zitzaigun gero; eta sei milla urte ezkeroztik ez, baiña milloika urte ezkeroztik sortu zala somatu genuen. Gure gizadia bera, azkenik, eboluzio edo billakaera luze baten fase edo urrats bat baizik ez dala ikusi dugu.

Galileo'ren ondoren, orain dala ehun urte Vaticano'ak Darwin ere deabruzat harrerazi nahi bazuen, gaur ez du Teilhard de Chardin goraki gaitzetsi nahi. Zenbait gizar tetan, noski, aieruz ikusia da, gorrotoz ere batzutan; baiñan halere ezin ofizialki arbuia. Mundua aurrera doa; eta gutxien aldatzen diran erakunde atzerakoiak berak, bizi beharrez, gero ta nabarmenago ari dira billakatzen. Hori dala-ta, gelditasunezko filosofia hura itzaltzen ari da. Beharrik !

Billakaera-filosofia bat nagusitzen ari zaigu danoi erraieta-raiño. Eboluzioaren ibaiean ikusten dugu gure burua eta dagoen guzia. Mundua jiraka eio koloka dakusagu; ez tinko eta zindo. Higiera gaillen. Gelditasunaren filosofiak, Teilhard'en hitzez esateko, ez gaitu batere betetzen : « Théologiquement parlant — dio — on me pardonnera d'observer qu'à l'intérieur d'une certaine conception aristotélicienne de l'Univers il est simplement impossible à aucune véritable vision universaliste de se développer à l'aise » (ikus « Pour voir plus clair »).

Hori gertatu da munduko filosofiari buruz.

Eta, era berean, gizonaren kezka ere dinamikoago egin da.

Mende askotan, ezin pausatzeak inñarosten zuen gizonaren bihotza; gaur, ezin aitziziñatzearen ideiak asaldatzen gaitu, guztiz pausatu beharrak. Betirako bizi lau eta legun batek sakonkiago nahasten du gure barrena, beharbada, noizpait bizia arras bukatzeko ideiak berak baiño. Berriz ere itzultzen naiz lehenagoko saiakera batera, eta nere lehenengo liburuen kezka nagusira... Bego : nere tema daiteke. Baiña Teilhard'ek egia baldin badu, konberjentziaren azkenak ikaritzen gaitu (neu eta gaurko gizonik gehienok, nik uste) gure barrenari galdetzen diogularik : eta, gero zer ? Ezin aurrerago ? « Omega »rako bidaia lantsu eta neketsu izanagatik ere, bukatzea zaigu bildurgarriena. Aldae-rarik ez ? Deus ez, beraz ? Eta karrasika diogu : « Betor ezin iristea !! »

Behin eta betirako gauzak edo teoriak, besterik gabe, buka-

tuak, burutuak eta aldatu eziñak diran aldetik eta neurrian, faltsutzat ere hartuko genituzke. Pausa eta amai giro duten neurrian, hain zuzen, integrismo guziak arbuiazen ditugu, eta berdin politikazko diktadura guziak. « Hala esan zuen Urliak : beraz hala da » diotenak, besterik ezer entzun gabe ere, oker dabilzala esango genuke.

Ez da harritzekorik. Ez baitago ezer geldirik, mundua aldatzen baita funtsez, dana aldatzen baita.

Izaeraren sustraia bera aldaera hori baizik ez da; edo aldaera edo billakaera horren atzean ezer ote dagoen galdetzeak sentidurik ote duen ez dakigu xuxen.

Intelektuala egiaren jopu, egiari atxikia, izan behar du.

Izan gaitezen, beraz, eta hau esatean euskaldun pentsaeragizonaz ari naiz bereziki. zabalak, aitzinaioiak, mundu berriaren eta ideia berri guzien adiskide. Saia gaitezen gazteak ulertzen, belaun berriaren aitzindariak aditzen, giharen seten kritika onez-onetara entzuten, eta azkeneko aurkikundeak eta gertaerak gure egiten.

Euskaldun intelektualok : izan gaitezen datoren munduaren aitzindari, eta ez betirako joan beharra danaren illetari.

Euskaldun intelektualok : izan gaitezen « txapelaundi ».

**

Baiñan intelektualek hainbat, edo gehiago, Euskal Herriko artistek merezi dute nere laguntza apala.

Segidakoan, beraz, artistei mintzatuko natzaie batzutan; baiñan berei esandakoa danontzako egoki izan diteke.

Ideiek eta arteek (eta huntan arira nator berriz) izatearen adierazpen hutsa baitira, aldatuz joan behar dute denboren arabera. Berdin ere bizieran zehar intelektualek eta artistek. Orain dala ehun urteko Filosofia edo Artea, orduan egiazkoak izan baziran, horregatik berregatik ezin izan ditezke beren hartan gaurko munduari dagozkion filosofia edo artea, beren egiatasuna ukatu gabe. Gaurko margolari batek, gonbarazio baterako, orain dala ehun urte bezelaxe pintatzen baldin badu, besterik gabe esan diteke sasi-artista bat dala; eta gaurko letradun batek aspaldiko arazoez baizik izkiriartzen ez badu, berdin « sasi-intelektual » bat dala.

Hori dala bide, gaurko bidearen billa atzera begira ari diran euskaldun intelektualak eta artistak, oker dabilza nik uste. (Bidenabar esateko, erderaz idazteko gure ohidura zaharrari jarraitzen diotenak, oker dabilza : jakobinismoaren izurritea bi mendez jasan dugu Europa'n. Baiña hori ere (beharrik!) pasa da.)

Kopiatzea ez da behin ere Arte izan; ezin diteke izan. Estetikaren sendimena (edo Eder-Men zera hori) dutenek, bereala somatzen dute, obrak salaturik, nor ari dan egiaz eta nor faltsuki.

Munduko kritikolari guziek, horrela, alkar aditu gabe, artista berberak txalotzen dituzte, eta sasi-artista berberak gutxiesten Bidezkoa da : egiazko Artea (edo Pentsamentua, beste maila

batean) gizarte-giro bakar baten seme baita. Eta, hau bezelaxe, aldakorra.

**

Erosotasun billa abiatu ik, izatearen etengabeko ganbiamendu edo bilakaera hortan, bi mailla berez ditzakegu : adimenari dagokiona bata, eta sendimenari dagokiona bestea. Gauzak aldatzen diran ezker, bietan aldatzen da ere ausnarkizuna edo aztergaia.

Baiña mailla bietan erronka agertzen eta itzaltzen diran formak, ideiak eta arte-moldek, gizarte-fenomenu berei dagozkie. Nahiz barne-egarria edo funtsezko hartu-emanan nundik norakoak diran antzeman ez arren, bi mailletan denbora berean agertzen diran ideiek eta arte-joerek ba dute funtsezko batasun bat, ba dute mendearen kutsu berbera.

Ez da menturaz, esate baterako, Picasso eta Kafka Europa'ko kondaira-giro berean sortzea; eta Dachau, Hiroshima, KATHYN eta Gernika giro hortan berean gertatzea.

Funtsezko lotkia hori, nola aurki eta agerraraz? Besterik da hau. Baiña Picasso eta Kafka, funtsean batera ari dirala bistan da : alkarren berririk izan gabe ere, txekoa aspaldidanik hil arren, anaia bizkiak ditugu. Gure gizaldiko sustaiean, biek zarrakaera edo krisis ikaragarri bat (eta berbera!) somatu dutela agirian dago.

Mundu berari buruz ari dira Picasso eta Kafka. Horrelatsu ere Newton'ek eta Leibniz'ek, alkarren berririk izan ez arren, matematika berberak asmatu zituzten urte beretan. Nola ez gertatuko matematikak baiño beroago eta gizatarrago dan Artearen maillan?

Egia, bat eta bakarra izanik, harrigarria litzake egiazko artistek, bide liferenteetatik abiatu ere, gauza berbera ez adieraztea; zantzuak nabaitzen ez duen « bigarren mundua », eta jende xeheak ere ezagutzen duen « lehen mundua », mundu berbera baitira.

Are gehiago. Bien artean desbide edo alkar-ukaeraren bat gertatu ezker, batak ala besteak (ala biek...) egia erakutsi ez dutela esan diteke ausarki : gaur ez dago, esate baterako, Mozart bat; eta ezin izan diteke. Eta gure arteko norbaitek horrela aurkeztu nahí balu egungo mundua, oker dabillega esan ahalko genuke. Marx hemeretzigarren mendean sortu zan, eta hamairugarrenean aldiz Akino'ko Tomas; ez alderantziz. Artean gauza bera.

Arte-molde bat egiazkoa eta hedatua izan bazan orain dala berrehun urte, mundu hartako lekuko da. Ezin izan gaurkoa ere.

Gaurko munduak gaurko molde bat eskatzen du; eta hor dugu, funtsean nabarmen bat izaki, Picasso, Schönberg, Kandinsky eta Sartre.

Gerta diteke, eta gertatzen ere da, gaurko artista izeneko batek edo bestek lehengo molde zaharrak defenditzea. Eta hunek bi azalpen izan ditzake : edo « artista » hori ez da sasi-artista bat baizik, eta ezer senditzen ez duelako ohidurari jarraitzen

dio; edo, bestela, gazterik ere zaharra da : ez da gaurko gizon bat, joan dan mendeko lekuko bat baizik. Arkaismoak, Artean eta Politikan, ez dira falta. Eta Euskal Herrian ez gutxiago : karlista, esate batezako, lehengo modura ari dan atzerakoi amorratu bat da, gure zahar bat, sentonik sentonena, guk ezagutu ez dugun mundu baten aztarna. « Montejurra » aldizkariak, orain dala berrehun urtetako eskuinda, rek argitarako agerkaria dirudi.

Hortaz : mailla batean gertatzen danak, bestean gertatzen dana ere ulertarazten lagun dezake. Honegger eta Kafka, Picasso eta Bartok, Oteiza eta Unamuno, haurride dira, eta alkarrekiko ere lekuko. Bartok'ek inarosten duena, Picasso'ren alde ere aisago jartzen da.

Soziolojiak eta Literaturak, Kondairak eta Arteak, mundu berbera azaltzen digute. Gotikua ona da ordu hartako lekuko jatorra danean ; eta kopia hutsa danean ez da Artea : gaur gotiku egitea faltsukeria hutsa litzake. Mundu hura hil baitzan, ez baitugu jadanik hura senditzen.

*
**

Gure mende huntan « errealismo » deritzan joera hori nagusi da ; eta, garbi aitortu ez arren, mailla bat onartzen da bakarrik : Ekonomiarena eta Teknikarena. Utilitarismoa nagusi da, eta utilitarismoaren ikaspidea Lojika da : bi ta bi lau ; hau eta hori, hura da.

Ba dago, halere, intuizioari dagokion jakin-bide bat.

Bi jakintza-bide daude. Eta biak dira zuzenak, baliodunak, eta egokiak, oso liferenteak izanik e.e. Edozein bidetatik joanda, mundu berbera atxematen dugu. Eta gaur, gisa danez, gaurkoa.

Bergson'en laguntza gabe, zorotzat hartuko genuke gure burua beste jakintza-bide bat ere, arrazoiñen bideetatik at, ba dagoela siñisten eta siñistarazi nahi dugunok : « Nous distinguons nettement la métaphysique de la science. Mais par là aussi nous leur attribuons une égale valeur. Nous croyons qu'elles peuvent, l'une et l'autre, toucher le fond de la réalité ». Bergson'en ustez, Metafisika intuizio-kontua da. Ba dago filosofo famatuaren iritziz intuizioa, adimen-zizta baten erakoa ; eta hau da artistek, mundua aztertzean, baliatzen dutena. Hau aski da, jakiña, Bergson hartzuk « olerkarizat » hartzeko...

Nork siñistaraz horrelakorik jende « errealistei » ? Positibistak, eta Ekonomiaz eta Teknikaz kanpo ezer egiazkorik ez dagoela uste duten beren ume diranak, txapeltxikirik txikiak dira (eta, berriz diot, aitortzen dutenak baiño hamar aldiz ugariago dirala uste dutenak...).

Gure Euskal Herrian positibistak ditugu nagusi. Hauxe da, hain zuzen ere, gure herriaren beherakaren beste frogakari bat. Gure herriak egia-mailla bakar bat ikusten baitu, ez besterik : « lehenengo mundua », zentzuari dagokiona, estadistiketan neuritzen dana, mundutar kondairan prezatzen dana. Eta mundu hortan ez dago ezer « bi ta bi lau » hori baizik.

Ba da, nere ustez, nabarmen, bigarren mailla hori, « bigarren

mundu » hori : egiazko Arteak, Olerkiak, Erljioak, eta abar, osatzen dutena. « Errealista » horiek farre egiten diete, jakiña, esanez : « hemen sosa, eta utz alde bat ipui horiek ». Horra hor gure herriaren minbiziaren kakoa.

Egia esateko, « errealismo » dalako itsutasun mota hori, « txapeltxiki »-keriarik nabarmenena da.

Pratikukeriak zapaldurik ere, guttiz amor ematen ez duten euskaldunek berek, « teknikeria »ren eta « ekonomikeria »ren kutsua dute ezagun. Eta horrengatik nun-nahi aditzen da : « Nik ez dut nobelarik irakurtzen. Nik egia nahi dut, eta biografiak eta kondaira irakurtzen ditut soilki »... Esakuntza horrek erakusten du ongi gure arteko materialismoa eta teknikeria. Berdin esan liteke : « Ez dut nik pinturarik ikusten; nahiago ditut koloretako fotoak, egiazkoagoak diralako ». Edo, hildo beretik : « Ez dut nik Debussy'ren « *Après Midi d'un Faune* » entzun nahi; ba dut hortarako, udarako illunabar batean harturik, magnetofonobanda luze bat »... Arteari gagozkiola, ezjakintasan hutsa dira horiek oro; eta nobela batean (nobela batean, diot, ez nobelatxo batean) pasadizu baten siñisgarria edo siñistu-eziña baizik ez nabaitzea, aski da « txapeltxiki » horri Artez hitzegiteko esku-bidea ukatzeko eta kentzeko.

Gure aberkideen artean, ordea, holakotan gera oraindik. Eta, hau dala-ta, txalorik beroenak igorri nahi dizkiet hemen Oteiza'ri, Txillida'ri, Aresti'ri, Kastro'ri, eta hau senditu dutelako, xuxen (ala ez hain xuxen beharbada) aurrera jo duten euskaldun artista eta idazle aurrerakoi guziei. Zorionak ! Merezi duzute, bai, benetan, euskaldunen errespetua, eta oraindik jaso ez duzuten omena.

*
**

Zozo izatea eta apal izatea biga. Zozoago eta harroputzago.

Izan gaitezen, beraz, geran baiño apalago. Aitor dezagun, guk ez sendituagatik ere, ba dagoela (edo ba dagokeala, bederen) beste mundu bat, artistek benetan senditzen duten « bigarren mundu » hori : Artearena, Estetikaren intuizioarena.

« Lehen mundua » izenez aipatu dudana, danok ikusten eta ezagutzen dugu, eta estadistiketan eta mundutar kondairan agertzen da : Urlia hil da, Berendia ezkondu da, Fabiola'k hau edo hura esan du, *Détroit*'en oporra dago, *Eliz-Biltzar* nagusia aurrera doa, aurten 437401,3198 tonelada gari bildu dira *Kofrakistan*'en, *Di Stefano*'k bi goal egin ditu igandean, eta abar. Mundu hunen egia ukatzerik ez dago. Horrengatik deitu dut nik (eta ez naiz lehena) « lehenengo mundua » : gogoeta guzien aurreko mundua beraz; edo lojikaren bidez azter ditekeana.

« Lehen mundu » hortan sar diteke beraz, funtsean, Zientziaren mundua; alegia, entseatzearen bidez aurreratzen diran Jakintza atal guziek osatua. Mundu hau eta « praktikoi »ena, noski, ez dira berbera. Baiña teknikaz eskolatzean, esate baterako, positibismoaren kutsua itsasten zaie ijeñeruei eta gaiñerako teknikoiei; eta, hau dala-ta, aisa izaten dira teknikoiak eta ekonomikoak bizibide hauetaz bizi diranak. Tekniku diran neurrian, poli-

tikariak ere berdintsu; eta « teknokrata » deritzatenak zer esanik ez : hauetxek ditugu « lehen mundu » hortako piztiarik amorratuena eta ikaragarriena !

Ba dago, estadistiketan ezin sarturik ere, « bigarren mundua » : beste planeta bat, beste izate-mailla bat : Olerkiarena, Arterena, Trazendentziarena; bestea bezin egiazkoa, bestea bezin « e realista ». Eta « bigarren mundu » hunen zantzurik ere bazuk (gehiegik...) senditu ez badute ere, mundu hori ba dago. Askotan aipatzen da maitemindu edo amurustu berrian diranen eder-giro zoragarria. Eta hala da egia. Maitemindu dana, eza gutzen ez zuen edertasun-izartegi oso batek dardarazten du. Eta hau irriz irakurri duketenei, nihaurk ere egiten diet irri; eta nere barrenean ziñez urrikaltzen.

Hauxe gertatzen zaio Oteiza'ri, eskierki, gure eskasia ikusita...

Gure txapelaundiek, beraz, hasteko, edo hasi aitzin hobeki, bigarren plan edo mailla hori dagoela senditu behar dute (edo ez senditzekotan, siñistu bederen). Bigarren mundu hunen berririk ez duena, edo kontra zaiona, nola izan diteke artista, nola izan diteke txapelaundi ? Nola ez du irentsiko gure herriko dirukeria lotsagarriak ?

Oraindik ere pintura bat ikusi, eta modeloaren antza ote duenez begiratzen baizik ez dakiena, Artearen mugatik at bizi da oraindik. Eta nobela batean pasadizu edo istorio bat baizik antzematen ez duena, berdin. Arteaz mintzatzeko boza ken dakie horrelakoei; eta itsu bati koloreei buruz bere iritzia emateko ahalmena baiño ez litzake. « Thérèse Desqueyroux », « La Métamorphose » eta « L'Etranger » irakurri, eta pasadizuez besterik, oso berririk eta oso sakonik, nabaitu ez duena, ez da oraindik gai Arteaz edo Literaturaz hitzegiten hasteko ere. Txapeltxikia da; eta sendi artean, ixiltzea dauka.

Nik neuk, egia aitortzeko, azkeneko artista askoren obrak ez ditut oraingoz senditzen, ez dute nere barnea inarosten, eta txapeltxikitat daukat nere burua. Horrengatik esan dut gorago gure artista aitziañakoiak « xuxen ala ez hain xuxen beharbada » ari dirala; ez baitakit guztiz segurki.

Baiña lehenagokoetan Artearen zirrara senditu dudalako (Débussv. Bartok, Braque, Sisley), apalik aitortzen dut Oteiza eta Txillida, gureak bakarrik aipatzeko, artista egiazkoak eta sakonak izan ditezkeala, gaurko gure artistarik haudienak agian; nahiz nere sendimenaren kamutsak ez hau erakutsi. Gehienik, beraz, ixildu egingo naiz horrelakoak juzgatzean; edo apalki eta begi onez bere alde mintzatuko.

Ez dut horietaz botorik. Eta gisa zait ez izatea.

Gaurko mundua mundu berri bat da, lehenagoko guziak garai batean berri izan ziran bezela; berriago zaigu menturaz bestetango gizonei baiño, gure mendeen gauzak errotikago aldatu diralako. Soziologiak eta Kondairak hau jakinarazten digute. Nola onar diteke, beraz, euskaldun olerkia, nobela, irudigintza,

margolaritza, eta baita filosofia, politika, pentsamendua, eta nahi dana, lehengo moldeen arabera egitea zillegi eta komeni ditekianik ?

Gure herrian egiten danaren parte haundi bat bederen, horrengatik, oso txarra dala esan ditek; seguratu ere egin ditek. Eta ez esnobismoz, ez : eskierki, segurki da txarra. Gure artean bizirik dirauen atzerakeria hil arte (eta ez Artean bakarrik, alajaiñetan !) ez du Euskal Herriko Kulturak ezer haundirik egiterik izango.

Estadistiketan sartu edo agertu ez arren, « bigarren mundua » ba dago, ageriko munduaren erraiñu eta irudi gisa. Eta Soziolojiak edo Kondairak denboran zehar munduan eta gizaduan aurkitzen duen berritasuna, Arteak ere aurkitzen du.

Artean eta Literaturan, beraz, molde zaharrez ahaztutzea da lehenengo urratsa. Ez — berriz diot — esnobismoz, edo modari lotu nahiz. Ez. Artean eta Kulturari ez dago modarik : mundutarren asmazio da moda; mundutar esnobistek ez bestek pentsa dezateke Artean esnobistentzako lekuri dagokeanik. Berritasun bila abiatzen geranean, barne-mogidura batek debekatzeko digu Virgilio'ren kera kopiatzea; eta barne-mogidura horrek berak zorrotzu behar ditu gure zulakaiztak eta lumak, eta pintzelak legundu.

Mundu berri bati, Arte berri bat dagokio. Gure munduari, eta geure Eskual Herriari ere, Arte berri bat dagokio gaur. Zein eratakoa ? Ez dakit hau. Baiña ba dakit nolakoa ez dan izan behar, ba dakit nolakoa ezin izan ditek : euskaldun intelektualen artera Lope de Vega bat Literaturan, Rossini bat Musikan, Rodin bat irudigintzan, agertuko balira, ni hastapenetik jarriko nintzaieke kontra. Horien mundua ez baita gurea. Zergatik ez ? Lehengoa izan zalako.

Berritzea, egian egonik berritzea alegia, zail da. Hau bai. Oraindik ezagutzen ez dugun era berri hortara gure mundua adierazteko, bi dohain behar dira : gure mundua egiazki senditzea eta ezagutzea lehendabizikorik; eta artista izatea, bigarren mundu horrekiko jitea izatea, goi-etorri hori izatea, bigarrenik. Biak batera. Lehenagoko moldeak kopiatzeko, aldiz, aski da kopiatzeagatik ez barne-nazkarik nabaitzea (sendimen gutxikoa izatea, beste hitz batzutan); eta hitzez-hitz, kopiatzeko, gaurko munduarekiko itsu eta gor egotea.

Beste eragozpen bat ere ba da : anitz laido eta irain iresteke gertu egon behar da. « Dekadente » hori batez ere.

Aspaldiko joerei utzirik, « dekadente » egiten omen gera.

Baiñan egia esateko, Robbes Grillet'ek ongi adierazi duen bezela : « on est toujours décadent par rapport aux choses du passé ». Hunela da. Eta Guido Piovene'k ongi dio ere : « on appelle en général humain celui qui représente l'homme tel qu'il ne l'est plus ».

Bestalde: da egia. Molde zaharrak dira « dekadenteak », ez berriak. Agureak ari dira beheraka, ez gazteak. Eta hau beti,

eta ezin bestez. Ez gera berrizaleok kikildu behar, atzerakoiak baizik.

*
**

Baiña ba dago gizonarengan aldatzen ez dan ze bait : gizonaren gizatasuna, hain zuzen. Efa hunengatik Homero baiño olerkari haundiagorik ez omen da izan, eta nekez izango (egun hauetantxe esan du hori Maurois'ek ere). Shakespeare'ren tragediak, edo Goethe'ren « Faustus », oraindik ere gizonarengan bizi dira. Hamlet gugan dago. Alda ezin ditekean ze.baitez mintzatu dira idazle haundiak. Mende baten lekuko ere izan ziran, bai; baiña betiereko gizonaren lekuko bereziki. Hargatik ahaztuak izango ziran; baiñan hunengatik ez. Bach ez da sekulan ahaztuko, eta Domenico Theothokopoulos ere ez.

Halere, hauxe ukatu nahi izan dute, nik uste, gaurko idazle eta artista batzuk. Gizonarengan ezertxo ere funtsezkorik eta aldagaitzik ez balego bezela. Huntan urrutiegiraiño joan dirala uste dut.

Robbes Grillet da danetan aipatuena.

Batez beste, egokia eta zorrotza iruditzen zait bere kritika. Salatzen dituenak egia dira; eta aisa sinistarazten digu « nobela berrri » bat, « nouveau roman » bat behar genuela.

Baiña hizkuntzaren kritikakoan, gehiegi dio; eta, nik uste, ukatu egiten du mintza-mena bera, eta gizonaren funtsezko batasuna.

Hizkuntza bat, sustraiez, olerki-mundu bat da; eta hunengatixek, herri bakoitzak ba du, hizkuntzan gorderik, bere olerki-mena. Euskal Herriak euskera galduko balu, ziñez esan liteke arimaz aldatuko litzakeala. Ez da dudarik.

Nazio-hizkuntza bat, nazioko herriaren egiña da : ezinbestean, bere herri guziaren egiña da. Hain zuzen ere, belaunetz belaun osotuak, hizkuntza guzietan gorderik edo estalirik datzaten absolutuak erauzi nahi izateko, hizkuntza osoa ukatu behar da. Hizkuntzak analogiaz sortzen dira. Moztutzen hasi ezker, ez enborra bakarrik, baizik andua eta erroak ere erauzi behar. « Nouveau Roman » dalakoak, hortaz ixiltzera eramango ginduzke. Giza-kutsua (eta absolutuen aztarnak, eta mitó-mota guziak, zer dira gizonaren eta giza-keraren aztarnak baizik ?) erauzteko, hizkuntza ukatu behar da. Objetibidade osoari eusteko, mututu egin behar dugu.

Pinturan ere horrelako zerbait gertatu zan, Matisse'ren kontra, forma eta kolorea ukatu nahi izan ziranean. Pintura bera, margolaritza bera, pintatzeko ahala bera, ukatu zan.

Berritasuna billa abiatu ere, nik uste, ez da Artea bera ukatu behar, tresnak eta mintzabideak berritu nahi amorratu hortan.

*
**

Eta Arte egiteko gizatasuna ukatu beharrik ez dago. Diximulatu beharrik ere ez dago neke ustez. Muñean gizona beti da bat.

Berriz Homero aipatuko dut : hizkuntza « garbitu » behar

izan gabe, Homero olerkari egiazkoa izan zan : garai hartako lekuko, eta betiko gizonaren ezagutzaille sakon. Halere, dudarik ez dago, orduko helenerak ba zeuzkan, hiztegian guztiz nahasturik, aspaldiko denboretan mito eta absolutu izandakoetatik kutsatutako esaerak eta hitzak. Hitzen etimologia-bide hauetatik, oso gauza interesanteak aurkitu zituzten aspaldidanik Marx'ek eta Nietzsche'k. Homero'ren denbora haietan ez ote zan horrelakorik gertatzen, eta helenera « zuri-zuria » ahal zan, giza-kutsurik batere gabea ? Ez dakit. Baiñan harritu egingo ninduke. Eta, hargatik ere, idazle haundi bat izan zan.

Mauriac ez da batere nobelari « berria »; baiña nobelari bikaiña da. Zergatik ? Olerkari dalako, egiaz mintzo dalako, bihotz sendibera haundi bat duelako, gizonaz eta gizonen katramillez gizonkero mintzo dalako.

Beste bide batetik ere, Kafka zirrargarria dugu. Baiña Kafka'k berak, dakusana hozki eta xehe-xehero azalduz ere, ez du ez gizona eta ez hizkuntza ukatzen : gaurko munduaren illunpe beltza nabarmenarazten du batetik (huntan lekuko da), eta gizonaren nora:ik ezaz mintzo da bestetik (eta huntan betiko gizonaz ari da).

Esnobismoan erori gabe, beraz (esnobismoa, esan dudan bezela, kopiatze hutsa baita) sendi dezagun lehendabizi gure mendearen taupada larria; eta saia gaitezen gero, europar jokatzekotan, euskeraz eta euskaldun gisa, gure munduaren « bigarren izate » hori ezagutarazten eta maitarazten. Izan gaitezen hortarako ausartak, egiatiak, eta bekokia zabalekoak. Izan gaitezen txapelaundi.

Gisa da herri xeheak, bukatzeko, hizkuntza baten balioa ez ikustea. Baiña lotsagarria da erosokeriagatik (edo hizkuntza-kontuan norberaren erdaltasuna eta belaskeria onarraraztekoan...) gure Herri-Kulturan hizkuntzak duen pisua ukatzea. « El pueblo vasco tiene que vivir, y para ello tiene que adaptarse al ambiente de cultura en medio del cual vive; y para esa adaptación le estorba el vascuence »... Ez, Baroja jauna : euskera ez-baiña Espaiña zaigu sobera.

Asko aurreratu dugu aspalditxo huntan : gure erdal idazleak berak hasi bide dira euskalduntzen : Artetxe, Santamaria, eta abar. Zorionak ! Baiñan urrun gera oraindik. Eta txapelaundi guziak euskaldunak izan arte, « boinas grandes » eta « grands bérets »en aurrean baizik ez gera egongo. Hots : maingu eta totel.

Huntan ere aspaldidanikako gure arraza-erlotekeriari utzi behar diogu. Joan dan mendeen Europa'ko aurrerakoiek hizkuntza txikien kontra borrokatu zuten; oraingoan, gero eta nabarmenago, alde jarri dira.

Ez gaitezen berriz ere euskaldun intelektualak eta artistak, hainbeste aldiz bezela, ehun urtez atzetik ibil...

Eskoletako beti-lehenak

IKASGU guzietan izaten dira eskolako nota-biltzailleak, eskolako beti-lehenak.

Astero ematen baldin badira notak, astero-astero biltzen dute halakoek betiereko paper-mota berbera : 1/14, edo 1/34, edo 1/67. Berriz ere lehenak, berriz ere lagun guziak baiño hobeki, berriz ere jakintsuenak itxura denez.

Neuk bederen — eta nerekin huntaz mintzatu diran guziek, uste dudanez — « betiko lehen » horietakoak ezagutu ditugu : klase hainbat « jeinu »; klase edo ikastalde guzietan atxeman baititeke horrelako « fenomeno » bat, beti eta ikasgai guzietan zintzoena, langilleena, eta jakintsuena.

Irakurleak ere, noski, ezagutuak dituzke horrelako jakinduria-putzuak... Beraz, ba dirala azaltzen eta siñistarazten ez dut denbora gehiago igaroko.

Ikasgu guzietan betiko-lehen horiek oso goratuak izaten dira ikasleen aurrean : « Horra hor Urlia — esan ohi da —. Horra hor zuek segi beharko zenutekean (eta segitzen ez duzuten...) bide zuzena ».

Halere, egia jator aitortzeko, eskoletako beti-lehen notazale horiek, gurasorik gehienek bekaizkeriaz beterik aipatuagatik ere, eskolakideek gorroto eta mespretxatzen dituzte.

Errazena litzake esatea : « inbidiaz, bekaizkeriaz, dituzte begitan ikaskideek. Ez dira gauza « lehenak » egiten duena egiteko; eta hortatik dator ezin-ikusi eta bekaizti egon hori ». Errazena litzake, maizenik aditzen dana birresatea litzake, eta nahi dan guzia. Baiñan ez nago batere ados iritzi horiekin. Nik neuk, ikasle txar bat izan nintzalako eskierki, eskolakideen alde jarzeko joera zahar bat dut nigan : sorkura bat agian...

Aitortzen dut (aitortu beharra baitago) batzutan bekaizke-

ria hori egiazkoa izan ditekeala. Baiña beste askotan, gehiengotan, ikasle alproja et traketsen alde nauzute ni, segidan azalduko dan bezela. Eta ba da sorkuraz beste:ik ere...

*
*

Eskolan lehena ez izateak ez du ezer txarrik adierazten (ezta onik ere, kasu !); lehena izateak, aldiz, asko eta... txarrik erakutsi ohi du. Hunat hemen nere lehenego puntua.

Zenbait ezagugar.i antzeman uste dut nik eskolako beti-lehen horiengan, eta azaltzera noa. Barka nazatela guraso agurgarriek, eta izkuta bizaiete libu.u « kaltegarri » hau beren seme-alabei; baiñan egia zaidana, bego hemen senditzen dudan erak; eta — krisailluena bete dedin — agirian ager bedi. Nere eskolakideen gor.otoak, bestalde, ez nau gehiegi bildurtzen : ezen beti-lehenek ez baitute huncelako libururik irakurtzen. Beraz, ez dute nere iritzia ezagutuko.

Aurrenik, bestek jarritako legea eta ikasteko era errespeta-tzeko joera sakon bat aurkitu uste dut « beti-lehen »engan.

Eskolako beti-lehenak, eskolako « ñotaxaleak », ez du zalan-tzan jartzen, esate baterako, bere ikasguan jokabidetzat edo egiaztat harturik dagoen deusik.

Meza egunero entzun behar bada, egunero entzuten du meza beti-lehenak; eta entzun behar ez bada, ez du sekulan batto ere entzuten. Espaiñolek Ameriketara amerikarren arimak salbatze arren joan zirala esaten baldin bazaio, siñistu egiten du; eta lo-roek bezela horrelaxe esaten du. Eta eskolan azaltzen baldin bazaio, Fraintzia eskualde aparta bat dala, itsasertz luzeak eta ederrak dituelako (« un pays gâté par Dieu »), halaxe hartzen eta siñisten du berak.

Nere ikas-denboretan, esate baterako, onartu eziñezko « ipui » asko ikasten genuen Aldapeta'ko nere ikastetxe izanda-koan. Eta beti-lehenek ez zuten kontra fitsik ere esaten (eta ez senditzen !!)

Adibide batzuk emango ditut.

Gogoratzen zait, gonbarazio batez, han ikasitako Kondairan eta Jeografian (espaiñol frankista batek idatziak biak, noski) Euskal Herriaren aztarnarik ere ez zala agertzen. Hau aipatzen zuen soillik, lerro labur batzutan, eta letra txiki-txikitan : « El Problema Vasco ». Ez, jakiña, gure askatasunaren arazoa aipatze-ko edo... Ez. Euskal Etniaz ari zan (ez izen horren bidez, esan beharrik ez), herri bitxia gerala esanez (« lengua isla », eta abar) espaiñarretan espaiñarrentzat aipatuz.

Ni egondako ikastetxean frankismoak agindutako ikuspena zan ezin ikutuzko Egia urte haietan (1938-1946); eta, horri zegokionez, eta letra txikia zala-ta (eta Euskal Herrian egonik...) lerro « espantagarri » haiek ikasi gabe uzteko agindu ziguten. Bada-ezpada ere, berekiko ziotekean, ez aipatzea hobe !

Ha:ritu egin ninduen jokabide horrek. Doi-doia nekien nik

hamabi urterekin euskaldunak herri bat geranik, eta ezer. Zer-bait lañotan somatu bai, nik uste : zergatik zigortzen zituzten euskaldun doiñua zuten ikasbideak ? Utzi-behar harek, beraz, kutsu samiña utzi zidan : zergatik utz halako puntu jakingarri bat ? Eskolakide zintzoak eta esanekoak, gaizki oroitzen ez ba-naiz, lasai gelditu ziran : bost axola. « Hobe — esan zuen gure beti-lehenak — hortara ba dugu gutxiago ikastekorik »... Esan beharrik ez : donostiarra naiz, Donostia'n giñan, eta euskaldu-nak giñan gehienok : hizkuntzaz ez bada, deituraz eta jatorriz behintzat.

Folklorearen maillan, beste adibide bat emateko, abertzale-tasunik gordiñenean dirudienez, « euskaldun » (?) kanta ikara-garri hau erakutsi ziguten 1943-ean, Donostia'ko Marianistetan; eta hau baiño euskaldunagorik ezta alerik ere ikasi ez genuela ziñegin nezake :

« Ya se llega la trena,
manso-manso-manso,
ya se llega la trena
al estación »...

Euskerazko kantarik bat ere ez zitzaigun erakutsi zortzi urte hartan. « A la mar fuí por naranjas », eta horrelako erbesteka-dak aldiz, ehunka. Nola ez sendi, beraz, egia ofiziala baizik ez zala hura ? Ikasle onak, zintzoek, eta beti-lehenek, hori guzia zipitzik esan gabe onartzen zuten. Esanekoena fraille ere egin ziran.

Oroitzen naiz ere Ecuador'ko García Moreno diktadoreaz oso ondo hitzegiten zigutela, eta Franco'z zer esanik ez !; eta Voltaire'z eta Victor Hugo'z, esate baterako, ezin gaizkiago. Gazte giñan danok, noski; baiña ba ziran liferentziak. Ikaslerik « er-duenek » nazka txikienik ere nabaitu gabe onartzen zituzten horrelakoak. Traketsago eta nahastaleago giñan batzuk, aldiz (be-harrik !), nekez, eta aieruz batez ere, entzuten genituen danak.

Guri txapela gorria eta alkandora urdiña jantzarazi, eta mi-litar-modura ibillarazten ginduztenean, eta ez dakit zein frankis-tada kantarazten, ni bederen, eta beste batzuk eiki, kontra gi-ñan : kontra itsuan, baiña kontra. Eta nola jakin ez arren, be-hin ere ez urdiñez jantzi, eta ez falanjista itsusirik kantatzea gertatu ez zaizkidala esan dezaket. Neure buruz hori ? Familia-ren eragiñez ? Bietatik ba diteke, nik uste.

Gauza horiek guziak, eta hau gehiegi ez luzatzeko aipatuko ez ditudan beste millak, nihauri bederen, eta baita beste batzuei, higuin sakon bat eman ziguten. Ez genuen garbiki ikusten; bai-ñan ez da dudarik eskolako denboretan, eta aro illun hartako urteetan bereziki, ba zegoela giro kirats itsusi bat, iresteko aski zailla.

Zer pentsa, beraz, dana lasai onartzen zutenez ?

Eskolako lehena izateko, ordea, jokabide zuzena izan behar zan: alegia, hori guzia ixil-ixillik irentsi behar zan.

Egin zutenek, beraz, gazterik izan arren, ez zuten iritzi zorrotzegirik erakutsi...

Bistan da : ikus-modu « ofizial » haiek onartzen ez genituenok gaizki ibilli giñan; eta onartzen zituztenak, berriz, ongi ikusiak izan ziran. Orduan bertan ere hasi giñan batzuk « praktikuak » ez izaten : gure irten-tenorea besteena baiño ordubete beranduago izaten zan. Beti zigorturik, beti kontra...

Hau guzia, funtsean, oso gauza larria zan. Orduan ez genuen ulertzen, jakiña. « Zintzotasun » hura, zintzokeria zitzaidan; eta « zintzo » enak, gaitzi zitzaizkidan errotik.

« Zintzo » eta esaneko izatea, eta beti-lehena izatea areago, ikastetxean zegoen ofizialtasun hura onartzea besterik ez zala iruditzen zait gaur. Ikastetxe bateko araudia egokia harrapatzea, ba da beti legetasunaren onartze-modu bat. Denbora itsusi haieran, agerian da, naba:menago.

Eskolako beti-lehenak; beraz, ez du irizpide zorrotz bat izan behar, arras kamustuta baizik. Bestela nola izan ditek lehena ? Esaten zaiona, orduan eta beti, lege eta egia egiñik aurkitzen du; eta « aurrera » joateko (lehen izaterako bidean barrena, beraz) dagoenaren onartzetik hasi behar du.

Onartze hortan datza baiña eskuintasunaren kakoa.

Eskolako beti-lehenak, horrela, gaur, eta denbora zailletan askoz ere garbikiago, kontserbadore hutsak dira, eskuindar hutsak. Erreboluzio-egile guziak ikasle « txarrak » izan dira; eta berekoï eta « praktikoi » guziak, aldiz, ikasle « onak ».

Gisa da.

Eskolako lehen hura, urteak pasa ala, probetxu-gizon egiten da. Gaurko hau eta antziñako hura, urte batzuk gorabehera, gizon berbera dira. Probetxuko gizona ez da « istillutan » sartzen, eta eskolako denboretan ere ez ! Funtsean, eskolakotan, eta gero mundu zabalean, dagoen legetari zuzen deritza : ikastetxeko araudiaren alde zegoen orain dala hogeï urte; eta gero, mementoan agintzen duen gobernuaren alde jokutzen du — besterik agian esan arren —. Gizon berbera dirau denboran zehar.

Eskolako beti-lehena, geroko ordenu-gizona da. Edo, hobeki esateko, betikoa egoten da urteetan aurrera. Ikastetxe barnean eta ikastetxetik at bera da beti.

*

Eskolako beti-lehenari, bigarrenik, ez zaio axolarik egia ezagutzea ala ez ezagutzea.

Irakasleak agindu duena ikasten du, eta ezta lerro bat ere gehiago. Zertarako ikasiko ote luke ba, maixuak galdetuko ez dionik ezer ? Agindu zaiolako ikasten du, esanak betetzen dakielako. Eskolako beti-lehenak, berriz ere, « praktiku »aren sena erakusten du (omen...).

Gogo berarekin ikasten ditu Asia-ko ibaiak, Txindasbinto'ren gorabeherak, silojismoen motak, eta Lope de Vega'ren « auto sacramental » dalakoen lerrokada osoa. Danak berdin.

Eskolako lehenak nota ona en billa dabil, lehenengo postuaren billa; ez egiaren billa.

Eta hunengatik agintzen zaion guztia gogo berarekin ikasten du. Ikas-gaia berdin zaio. Beti-lehenak bere burua agertu nahi du, ez izan; bestek lehenengotzat hartzea nahiago du balore-mailla bati lotzea baiño. Beti-lehenak itxura nahi du.

Beti-lehena eskuindarra da ar.unt : mundutarra, itxurazalea, eta berak uste baiño askozaz ere zozoago.

Beriz, beraz, probetxuko gixon baten aurrean gaude : gazte oraindik; baiñan denborak probetxuko gizon billakatuko du.

Nola jokutzen da probetxuko gizon hori, nagusi izatean ? Zein bidetatik abitazen da, eta zein bide baztertzen du ? Agirian dago gizon « pratikoi »ari jakitea ala ez jakitea berdin zaizkiola. P.obetxuko gizon danak, sozial-aipamen bat behar du, soziedadean mailla gora bat behar du : kondairak, Erlijioak, kontzientziak, eta zuzen jokatu beharrak adieraz dizaiotekeanak, bost axola berari. Mundutar garaitzapena nahi du berak : ez hau edo hura jakin, ezagutu edo obratu. Probetxuko gizonak « lehenak » agertu nahi du berriz ere, eskolan bezela. Ez du izan nahi, agertu nahi baizik. Espantuzalea da. Ez dute ez aginteak, ez jakintzak, ez musikak, kilikazten; « Ecos de Sociedad » derizaten zozo-illaretan agertzeak baiño. Bizkaieraz esateko, « andigurakoen aupetza »ren izenez ezagu ditekean zozokeria bilduma... o:tzeko ardatza zaio.

Neskak, emakumeak, itxurako gauza guzietara sorkuraz lerratuak, gizakumeak baiño ikasle « hobeak » izaten dira usu; eta eskuindarrago ere bai. Alde guzietatik puntu berera goaz.

Ikasle « onak » eta gizon «pratikoiak » gauza berbera dira. Eta ekuazio hau idatz genezake :

eskolako « beti lehena » + 20 urte = probetxuko gizona.

**

Eskolako lehenak, hau ere bere ezagugarri ohia da, oso « langillea » omen da. Baiña hau ere ez da batere egia izaten.

Azter dezagun bere « lana ».

Zertan edo zertaz ari da beti-lehena ? Asteroko notari buruz balio dizaiokean zeregiñetan lan amorratutan; eta kitto. Ez du ez jokorik egiten, ez jostaketetan parte hartzen, ez deus irakur-tzen. Oso langillea dirudi...

Irakasleak koloretan mapa bat egitea — eman dezagun — agindu baldin badu, beti-lehenak arratsalde guzia pasako dizu lanean jo-ta-ke. Baiñan gero, bere bizi guzian ez du egingo ezta mapa bat ere gehiago. Mapak eta jeografia bost axola zitzaizkion eta zaizkio, eta mapak egiteko su errabiatu hura, itzalia da. Irakasleak agindu zion : hau bai. Hunat hemen kakoa. Beti-

lehenak, esate baterako, Literatura'ko etsamiña pasa ezker, Literaturaz akabo : bizi guzian ez du gai ho.ri buruzko liburu bat ere irakurriko, nahiz-eta ikastaroan hameka irakurri eta ikasi bazituen ere.

Ez da, beraz, langille : maixuaren esanen betetzaille amorratu bat baizik. Esan ohi dan bezin langille balitz, beti ibilliko litzake lanean, eta lanarengatik beragatik lanean. Ez da ordea horrelakorik gertatzen. Hain zuzen ere, eskolako lehena baiño alperragorik ez dago nik uste; ez baitu kolperik ere ematen ezpada notarengatik, gailen agertzeagatik beraz. Nota inporta zaio, nota du akuillu; ez lana. Ez da langille bat, nota onen biltzaille nabarmen bat baizik.

Gauza bera ere gizon « pratikua ». Dirua irabazteko lanegiten du zoro batek hainbat; zeren-eta dirua iruditzen baitzaio mundutar garaipenerako nahi-ta-ezko bidea; alegia : munduko lehen postuaren oiñarria. Baiña dirurik eman ezin dizaiokean ezertan ez du fisik egiten. Ez da urteetan aldatu, ez : ikastaroko berbera dago gero ere. Eta ekuazio hau ere idatz diteke :

eskolako beti lehena » + 20 urte = « homo economicus ».

*
**

Beti-lehenak letra txiki guzia ikutu gabe, begiratu ere gabe, ikasten du. Gaizki oroitzen ez banaiz, gure eskola-liburuetan baziran, letra txikitan, hunelako ikasgai batzuk : « La inmortalidad del alma », « La existencia histórica de Jesucristo », « El marxismo », « El evolucionismo », eta abar. Eskola-lehenak, eta gaiñerako ikasle « prestu » guziek, gogoz uzten zituzten ikusi ere gabe, lehenago esan dudanez. Beste batzuk, aldiz, ikasle txarragoak dudarik gabe (eta neu horien arteko), letra haundiarri kasorik ez, eta txikia soillik irakurri ohi genuen ! Txiki hura baitzitzaigun askotan irakurgarriena. Sisebutoren pasadizuak letra haundi-haunditan aipaturik ere, guretzako Zumalakarregi edo Lutero'renak munta gehiagokoak diran nago ! Hori dala-ta, huts-zerrenda ederrak eta ugariak bildu genituen...

Zer erakusten dute jokabide hauek ? Letra txikiaz jaramonik egin gabe ikas dezatekean « jakintza-putzu » horiek, sendimen kaxkar bat, adimen kaxkarrago bat, eta egiari buruz egarri-arrastorik ere ez dutela erakusten dute. Nun dira, beraz handitasunaren ikurrak ?

Probetxuko gizonak (hau da « homo economicus » eta « homo practicus » deritzatenek) hortaraxe jokatzen dute. Egunkariak, edo eguneroko kasetak, egunen batean azalduko balu, ezen gizona, dudarik gabe aurrerakoan, pithekanthropo huts bat dala, eta arima hillezkorrik ez duela; eta erlijio guziak, horrengatik, dudarik batere gabe eta funtsez ipuiak dirala; eta, dudarik batere gabe ere, Jaungoikoa ez dagoela; probetxuko gizonak, diot, ikastetxeko ohidurei jarraiturik, ez lituzteke berri larri horiek mendrenik ere asaldatuko. Ez horixe. Hori guzia letra txikia

irudituz, egun hortan berean — siñistuta egon, irakurle — Moltsa'ko kotizazioak irakurriko lituzke lasai asko !!

Begien aurre-aurrean, eta lehenengo horrialdean argitara zernahi emanagatik ere, eta letra gorritan nabarmenarazirik ere, berdin : ez luteke hori ikusiko. Irakurrira ere, ulertu ez ! Beste hizkuntza bat izango zaie beti. Horrek guziak ez baitu ez sosik ematen eta ez kentzen. Gizarte-herronkari ez dagokiona, hutsa !...

*
**

Bere kaskagorkeriagatik beragatik, eskolako beti-lehena haur edo mutil harroputza da.

Dan baiño bizkorrago balitz, maixuak ikasazten dituenak baiño gehiago ba dagoela ohartuko litzake; eta bere sasi-gaillentasuna askoz ere apalago agertuko litzaioke. Baiña markatutako ikaskizunez kanpo ezer ezagutzen ez duelako, harrotu egiten da; eta horrela, apaldu eta umillarazi beharko lukean bere mugatasunak berak, harrotzera uzten du. Zozoak baiño harriagorik ez.

Berdin gertatu ohi zaio bizieran nere gizon « pratikoi »ari, hau da, probetxu-gizona deitu dudanari : diruaz kanpo deus ere sumatzen ez duelako (hots : hein batean itsu dalako) hanpatu egiten da; eta zozotasunak berak ematen dion segurkeria, nagusitu egiten zaio.

Ongi zion Alain filosofoak : « Le doute serait la couronne du sage »; hau da : zalantza bide da zuhurraren koroa. Eta, bestaldera osatuz, hau erants lekiok : zozoaren koroa zalantzarik ez izatean datza.

*
**

Berekoikeria da, bestetik, beti-lehen horien beste ezagugarri ageri bat.

Beti-lehen horien kaskoan, esan dudanez, jakiteak ez du munta, lehenengo agertzeak baizik. Barka bekit berriz gogoraztea.

Beraz, hunat hemen zikoizkeriaren eta berekoikeriaren iturburua : eskolakideei gauzak azaldu ezker, bere buruaren kaltean ari izango litzake beti-lehena. Zer egin ? Lagundu beharrean, edo gauzak besteri azaldu beharrean, beti-lehenak ez du ezer ere azaltzen, eta laguntza-mota guziak ukatzen dizkie bere lagunei. Problema baten ihardespina edo-soluzioa aurkitu badu, izkutatu egiten du beretzat : ez egiaren zerbitzuko egoteko, bistan da, edo apaltasunarengatik, edo lagunei ikasteko gogoia irazekitzeko. Ez. Lehenengo postua ez galtzeko baizik.

Lehena azaltzeko hirritsak, horrela, laguntasunaren giroa hiltzen du. Eta ikastaldeko beti-lehena sobera sariztatuz, berekoikeria sariztatzen dugu usu. Eta gezurra dirudi beste sari-bide egokiagorik oraingoz ezin asmatzeak.

*
**

Borondatearen edo nahimenaren indarra aipatzen da, azkenik, eskoletako sasi-jakintsu kasta hunen alde. Nahimen-indarra behar omen da lehena izateko : behar omen da, eta behar ere da.

Nahi dut oraingoan.

Baiña nahimenaren indarra, beste kapitulu batean esan du-
dan bezela, ideietan sortzen da. Nahi-indar hori izateko, jakin-
nahia hezi behar izaten da batez ere, ideien maillan bereziki hau-
ta edo aukera bat egin behar izaten da, une batean bederen; eta
hortik aurrera moztu, pikatu, piska bat itsutu ere, eta ideia ber-
riei sarrera debekatu ia-ia behar izaten da.

Bistan da, beraz, irudimen hurria dutenek erraztasun haun-
diagoa dutela lehenengo postua irabazteko eta atxikitzeko, iru-
dimen ugaria dutenek baiño.

Letra txikiari uzteko gauza diranak, esaten zaiena esan zai-
en eran siñisteko gai diranak, beren buruz ez-baiñan besterenez
pentsatzeko « ahala » sorkuraz dutenak, eta abar, ia besterik ga-
be, beren ideien iturri agorturik dagoelako, ia batere ahalegindu
gabe izan ditezke (itxuraz, jakiña) nahimen handitako gizon.
Eskolako lehenek, era berean, eta berdin gero adiñera ezker-
o beren seme diran « homo economicus » eta « homo practicus »
dalakoek, erraz lortzen dute ideien sarrerari tenk egitea; joko-
tzen diran bezela jokatzeko, beren burua hezi ez-baiñan beren
burua libro uztea aski baitute...

*
**

Ageri dan bezela, beraz, haurtzaroko eta gaztetango eskole-
tako sasi-jakintsuak, eta geroko gizon « praktikoi »ak, ez dira,
funtsean, ezagugarrien azterketari dagokionez, eskuindarren tal-
deko parte bat baizik. Sail huni ekiteak ez du merezi, beharbada
sobera esan baitut jadanik beren kontra. Bego, beraz, puntu hau
bere hortan.

Baiñan aitortu bat egin behar, bukatu aitzin.

Gregorio Marañoñ'ek behin-edo-behin aitortu bide zuen, erdi
lotsaturik (eta hau bere alde du), eskolako denboretan bera ere
« beti-lehen » horietako bat izan zala; eta ez bide zitzaion hau
oso ohore iruditzen, izkutagarri bat baizik.

Hortara ezkeroz, nere aitorketa egin beharko dut nik ere.
Eta, gauzak garbi esateko, barkaziorik eskatu beharrik ez dut;
gutxitan, oso gutxitan, eta haurtzaroan bakarrik, izan bainaiz
lehen horietako bat; baiñan ez « beti-lehen », bakanka baizik.
Eta, hain zuzen ere, ni lehena izan nintzan denbora haiek irudi-
tzen baitzaitzkit gaur hutsak eta hitsak.

Arira itzuliz, beraz, besterik esan behar dut : Marañoñ'ek
agian besterik uste izan arren, kutsu haundia utzi ziola eskola-
koan « estraña » izateak. Marañoñ ikaslea eta Marañoñ erakaslea
gizon berbera. Azken urteetan Marañoñ'ek egindako politika-
jirabirak eta ideia-aldaketak lekuko... Deserrian agertzerik ez bai-
tzeukan, Espaiña'ra itzuli zan : Marañoñ gizon « praktikua » zan...

Agitz harrigarri zaio zenbaiti, esate baterako, Marañoñ erre-
publikazaleak Degrelle'ri hitzaurre bat egin ziola jakitea; edo
bere semea frankista porrokatua izatea.

Neri ez. Marañoñ'ek, eskolan eta eskolatik at, berak uste bai-
ño bertago ibilli zan beti-lehen dalakoengandik.

Eta esaten zan baiño aixa eskuindarrago izan zan, beraz.

Hau da kakoa.

Eta, baldinkizun hunen bidez, Marañoñ'en bizia argi agertzen
da, nere ustez.

Eta beste askorena.

Egia dute sikologoek : haurretan billatu behar kakoa.

Kontuz, beraz, ikasle onekin !



Marilyn'ek bere burua hil du

BERRIKI, xuxen noiz ez dakidala, horixe izan zan eguneko berria : « Marilyn'ek bere burua hil du ». Gazterik, urte batzutan zehar mundu guziko emakumerik miretsiena, bekaiztuena, eta famatuena izan zanak, bere buruaz beste egin zuen.

Mito bat hiltzea, eta bere ordez beste bat sortzea, gisa da, bizi-lege da; eta eten gabe gertatzen da Kondairan : Pétain'enari De Gaulle'rena darraio, Coppi'ri Anquetil, Txirrita'ri Basarri.

Baiña emakume batek nahi eta opa ditzakean guziak Marilyn'ek beretzat bildurik (hori uste du anitzek bederen), ez zan batere ongi ulertzen bere buruaz beste egite harrigarri hori. Benetan, pentsarazi egin zuen gertaerak bolada hartan; eta egun ere gogoeta egiteko on da.

Ez dakit nik Marilyn Monroe'ren biziiaz izkutukirik ezer. Eta ez noa hemen, bestalde, bere biziaren berri ematera. Baiña zinemalariari buruz kaleko batek jakin dezakeana baiño gehiago jakin ez arren, zerbait esan dezakedala uste dut.

Heriotza beti etortzen bide da ez-ustean eta ez-orduan. Joanes XXIII-garrena hil zanean, gonbarazio baterako, katoliku asko (katoliku aurrerakoi guziak, hobeki esateko) barne-min haundi batek jo zituen : « orain hain zuzen — zioten — orain, Elizari beste giro eta itxura berri bat ematen abiatu giñalarik hil zaigu ». Eta ama gazte bat hiltzera : « orain hain zuzen, haurretandik amarik gabe haur gizajoak ». Eta gazte bat hiltzen danean, hau entzun ohi da gutxi gora-behera : « Tamala da gazterik hil behar hori ! Dana izankizun utzi, eta partitu behar ». Haur bat baldin bada, azkenekotz, zernahi azalpen billatuagatik ere, beti gelditu ohi zaigu harra barrenean : « nork azal dezake heriotza doillor

eta kupidagabe hau ? Zeren errudun izan zitekean haurtxo musu-gorri hura, patu itsuak jorik eta zurbildurik, itzulpiderik ez duen bide lazgarri hortan barrena abiarazteko ? ». Haur baten heriotzak ez du izan, eta ez izango ere, sentidurik batere, ezpada munduko nahaste funtsezkoaren siñale agiri bat dan aldetik.

Eta ez dezagun ezer esan gihaturen heriotzaz : « azken bakar-dade » horrek illeak lastuagatik ere, ez baitu adierazkizunik batere, bestek eta kanpotik ikusia baizik.

Ortzea han dugu, goian, goi-goian, urruti, txit urruti, urrutiegi; eta gure oiñazetik ikaragarienek eta bizenek esan-nahi guzia galtzen dute galatsien pakearen aitzinean. Milloika izarrak galatsia bakoitzean, eta milloika galatsiak izartegian. Nolako abiadura ixilla ! Nolako indar itsuak ! Nolako mundu hotzak eta mugagabeak ! Nahi-ta-nahiez bezela aurreratzen bide da dana, itsumustuka, estropozoka, galera eskergen eta oiñaze izugarrien artetik, funtsezko desordenu ikaragarri batean. Aipatu ohi dan jakinduria bezin nabarmen agertzen da, bere mogimenduetan eta billakaeran, Izadiaren barne-indar itsu eta bortitza.

Giro hortan, zernahi esan arren, gizonaren heriotzek eta bizierek ez dute pisutasunik batere; eta birau bat esatea dirudi horrelako gertaera xumeek Jainkoaren beraren arreta bil dezatekela predikatzeak. Umiltasuna, hortara, ez zait bertute zail bat iruditzen, zentzuari datxekon oharreza baizik : gure ezereztasuna agieriegia da, dagokion modura ez pentsatzeko.

Beltz agertzen da mundua gizonaren heriotzarekiko, doillor, zital, errukigabe, gogor. Eta gure deihadarrak ortzeko ixiltasun azkengabea galtzen dirala dirudi; iraungitzen dan argizagiaren azken ditzira, gau haizetsuan bezela.

Halere, gorago aipatutako gertaera guzietan, bestek ekarria dirudi heriotzak, ez barnetik sortua. Gizona bere patuaren bitina agertzen zaigu; ez bere buruaren. Kanpotik heldu bide zaio hondamena.

*
**

Marilyn'en kasuan, aldiz, ez dirudi heriotza kanpotik igorri-rik heldu zaionik. Ez, Berak berariaz hautatua dirudi biziaren akabera. Marilyn'en heriotzak, horrela, gaiñerakoek ez duten zentzugabetasun kutsu berezi bat hartzen du.

Gorago aipatuetan, bestela betea izan zitekean biziera bat, ustekabea eta nahiaren kontra eteten bide da. Marilyn'enean, berriz, itxuraz bederen, berariaz aukeratutako unean eteten bide da. Lehenengoetan, bizierak ba bide luke bestela sentidu bat; baiña heriotzak kendu bide dio. Bigarrenean mundutar garaitzapenak berak kentzen bide dio hain zuzen, Marilyn'ek bere bizieraren amaia hautatzen duen ezker.

Eta hau da larriena. Jenderik gehienek gure mendean irakasan ikusten dute beren burua : ezin uka. Eta huni erasten diote bizieraren sentidurik eza. Gaztaroan oraindik dana itxaropena izan diteke, itxarokizun hobe, gertakizun dan ezker, arte hartan ezer obratzeko aukerarik izan ez baita; eta hortatixek ukae-

rarik ez izatea. Bizia onartzen da, eta gazteria aisa da irriz. Bateneko kezkek eta larriak geroko esperantzan leguntzen dira. Eta, horregatik, gizonak ez du gaztetan etsitzen.

Gero bai. Lillurak desegiten di anean (eta lillurak obratzeaz ezabatze) dira; edo beti eziñen maillan mingostutzen...) etsipena sortzen da, gero eta sakonagoa, gero eta beltzagoa. Ezariezarian igarotzen da denbora, eta hunekin batera urtzen eta geltzen di a gaztetango ametsik ederrenak. Bizieraren hoztasuna nagusitzen da, eta etsipenarekin batera uste illun hau : « Ezin. Alperrik da. Huts egin dut. Joan egin zait aukera ».

Horra hor geroztik, berantetsirik, beste gizon bat, gizon « zahar » bat.

Geue biziak etsitzen dugu gizonak denbora joan ala. Baiña gehienok, ametsak obratu ez ditugulako etsitzen dugu.

Marilyn'ek ez : Marilyn'ek mundutar garaitzapena lortu ondoren etsitzen du.

Ametsak ez obratzeak tristatu egiten gaitu; baiñan obratzeak heriotzara emanen bide du. Huntan da liferentzia.

Eta, zergatik ? Arrapostu hau dator gogora dudarik gabe : gaurko gizona funts-funtsez dabil oker, arras oker ! Ez da soluzioa bakarrik, ez : gaurko zibilizazioaren kezkek eta problemak sasi-problema eta sasi-soluzioak dira. Azpikoz gora itzuli behar dira danak.

Gehienon bizian, guretzat garai batez egoki jo genuen xedea, gero eta urrunago agertzen zaigu : hartarako baiña aisa apalago ikusten dugu gure burua. Gero eta apalago, egia esateko; gero eta hutsago, gero eta ezteusago. Hori dala-ta (ustez baiña apalago gure buruaren kausitze hortan), nola uka, denborarekin batera ezabatzen eta desegiten dirala gaztaroko anitzen desira urdiñak ? Hauetan, iruditzen zait, gisa da etsitzea : nahi izan genuena ez baitugu lortu.

Eta huntan gera gehien-gehienok. Gutxi baita, oso gutxi, gaztetan begiztatutako helburu garaietaraino irits ditekian.

Gehienok, hortaz, millatetik bederatzirehun eta laurogei-ta-hemeretzi xuxen, gure ametsak mamitzeko gauza izan ez gerala. etsitzen dugu; gure ametsak mamitzeko eta egiñetaratzeko gauza izan ez gerala.

Ez dute halakoe, halere, ongi begi-aturik, munduaz etsi, beren buruen eta beren bizien eskasiaz baizik. Beren etsipena ez da munduarekiko etsipen oso bat, beren buruekiko etsipen mota bat baizik. Beren zorte etsiak nardatzen ditu, ez Munduak; beren bizi kaxkarrak, ez Biziak.

Erdizka bakarrik etsi duten herien artetik ateratzen dira erreboluzio guzien egilleak. Asetuak ukakorrek dira, eta gose diranak aldiz baikor.

Erreboluzio bat egin nahi duenak, bizian eta munduan siñisten du oraindik : « beste era batera mundua, edo gure aberria, edo gure lantegia, antolatu ezker — dio — mundu hau atsegingarria lizake; gure aberri, giza-herri bat eta ez zulo zikin hau;

gure lantegia, lantoki bat, eta ez ifernu.» Edo : « Gu gaizki bizi izan gera — beste batek esan — baiña gure semea zoriotsu izango da ».

Esaera horietan ba dago, funtsean, munduarekiko baikortasun sakon bat. Halakoez on derizte munduari.

Ba dago, noski, heriotza; eta hauxe da oztopo-harri zail bakarra. Koska eskerga bat, jakiña; baiña tatxa bakarria halarik ere. Eta aski zaio zenbait heriotzari leku ixil eta urrun bat baizik ez uztea : hillerriak elizaren ondoan ziran lehen; hiri-inguru urrunetan gaur. Askia bide da esatea : « gauzak hala dira, bizia hala da ».

Eta nik, eta bestek, horrelakotan lasai gelditzerik ez dugu.

Ba da, beraz, nahi izan zutena eskura ez duten gizonetan bederen, tristura sakon bat, baiña baita baikortasun sendo bat ere : osasun haundiagoa izan banu, dirua izan banu, beste herri edo aro batetan jaio banintz, emakume gehiagorekin hartu-emanik izan ahal baneza, naizen baiño argiagoa, edo aberatsagoa, edo ederragoa, izan banintz; ixtripu madarikatu hura gertatu ez balitzait, nere gazte-denboran gudurik edo diktadurik gertatu izan ez balitz.... eta abar, eta abar. Baldin hau edo hura izan banu ! « Baliz »ko ola da, bai; baiñan itxaropen nabarmen bat agiri da : Bestela !! « Nik ez dut xantzarik izan; baina bestela... »

*
**

Marilyn'en pasadizuak hori guzia lurteratzen du, eta egia nagusi batzuk gogorazten dizkigu; zeren-eta heriotza hori, ase ondokoa, eta gertaera bitxi huts bat baizik ez izanik, fenomeno sakon baten seiñale bat da. Salomon'en kondaira, esate baterako, oso ezaguna da : jakinduria guzia, aberastasuna, milla ohaide, eta nolana hiko mundutar garaitzapenak izan ondoren, etsipenik larriean erori zan.

Zenbat emakumek ez luke pozik hartuko, amaia ezagutu aurretik behintzat, Marilyn'en bizimodua, edo mundutar arrakastia ? Zenbat gizonek ez Salomon'ena ?

Biek halere, denboran hiru milla urtetako arteak berezi arren, ametsen obratzearen etsipen larria eta jasan eziña nabaitu zuten, eta era desberdinetara ezagutarazi.

Suezia'n gertatzen dirala suizidiorik gehienak aditu dugu, bai, eta Suezia dala herririk « aurreratuena » ere bai. Baiñan ondorea argi eta garbi nabarmenduta ere (alegia : mundutar garaitzapenaren hutsa eta laburra) ez dugu egiazki aintzakotzat hartu nahi. Ez dugu gure baikorkeria galdu nahi. Ez dugu illunpetan murgildu nahi.

Gure zibilizazioaren xedeak, ikus ala ez ikus, aitor ala ez aitor (eta Kierkegaard'ek ongi dio ez dagoela etsipen gaistogorik oharkabean pairatzen dana baiño) hutsa dira, eta suizidio ra daramate. Gure zibilizazio guzia huskeriatan ari da, huskeriaz elikatzen da, eta hutsak ez bestek bete ditzake.

Zer pentsa produzioaren mitoaz ? Planifikazio, ekonometria, produktibidade, teknokrazia... : horra hor gaurko mitoak. Nahita diot « mito », zentauroek bezelaxe gezurtaritzen baitute gizona.

Ez dut huntaz esan nahi, noski, gizonaren alde jokatzeko, ekonomia ikutu behar ez danik, ez : hori astakeria litzake. Gisa da, zuzena da, beharrezkoa ere da ekonomia gizonen onetan zuzentzeko eta zapalbideei uko egiteko borrokatzea : sozialismoaren bidez gaiago baita gizona bere egia eta baita bere egiazko sakontasuna nabaitzeko.

Baiña gizonaren diñatasuna billatzea eta sasi-jainko beritan siñistea bi gauza dira. Produzioaren seta, absolutu billakutzen danean (eta billakaturik dago askoren kaskoan) trufa bat da. Gizonaren problema askoz ere sakonagoa iruditzen zait Ekonomiarena eta Produzioarena baiña. Arren !

Soziojiari buruz, eta Kondairari buruz ere, produzioaren gora-beherek anitz gerra, istillu eta mogimendu azaltzen dute. Egia da. Baiña pertsonari buruz, nik uste, ez dute gauza haundirik azaltzen. Giroek eta aroek anitz puntutan mugatzen eta baldintzen dute gizona, ez da dudarik. Baiña gutxien balio duten gizonak mugatzen eta markatzen dituzte batez ere.

Marxismoak, horrela, egiaren parte haudi bat duke Kondairari baldin bagagozkio, hau da masa-gizonari; baiña denbora berean pertsonaren funtsezko arazoari buruz (nahiz masa-gizonak ez biziki senditu), hau da : bizierak sentidurik ote duenez jakin nahiari buruz, alienazio hutsa da. Funtsezko problema ez baita ez produzioaren emendatzea edo antolamendua, eta ez horrelakorik fitsik; Marilyn'en heriotzaren kakoa jakitea baizik. Mundutar garaitzapenak eta asetzeak heriotzara eramaten dutela-ta, ez ahal da aliénazio eskerga bat gizonaren xedea eta helburua produzio ugari batean ipintzea ? Agirian baitago (eta hunetan ez dut eskuintasun arrastorik ere izan uste) gizonaren biziak beharbada senditurik ez duela, eta produzioaren Absolutu zoro hortan gortzeak eta itotzeak askoz gutxiago.

Bi eragozpen aipatu behar ditut halere nere kontra.

Marilyn'ek gain-behera hasi zanean hil bide zuen bere burua, ez ospearen gaillurrean. Bego. Eta, zergatik ezin jetsi hori ? Zergatik ez du gizonak lasai onartzen bere jaustea edo akabera ? Nondik sortu zaio gora-nahi sakon hori ?

Eta, bigarrenik, gure produzio-motaren hondakin bat omen da gure pentsakera hau. « Aurrerakoi » askok ezin dezake entzun ere Unamuno'ren edo Kierkegaard'en izena. Lefebvre marxistak, esate baterako, ia trufaz hartzen ditu etsistenzialistak. Diotenez, Mendebalde'ko « ukakortasuna » lehenagoko munduaren aztarna da : geroko bizieraren itxaropena galtzean, munduaren egiazko itsutasuna ikustean, izatearen segurantzia ezabatzean, zerua hutsik dagoela nabaitzean, amets eder batetik esnatu berriari omen gaude, eta negarrez ari omen gera oraindik. Baiña gure gaitz hau pasako omen da ; eta egunen batean gizona lasai biziko omen da, batere tristurarik gabe, eta hargatik ere heriotzatik harantz ezer ez dagoela zinki siñisturik.

Ez dakit. Etsistenzialismoa — eta huntan egia bide dute — erlijio-giro bat ondoratzean sortu da : gaurko filosofoen beltzura hortik azal ditek. Urtarrillaren bostean « erregeak » ez datoze-la jakitean, biziki tristerik ibilli nintzan ni bederen... eta haur guziak nik uste.

*
**

Baiña hori da kakra ? Ortzea illunez betea dago, eta jakinduria beteago. Bizieraren esan-nahia illunpetan dago ere.

Eta, gauzak hortara, ez naiz orain lotsatuko : produzioari buruzko teoria guziak on zaizkit, baiñan ez dute inñundik ere konponduko, eta ez argituko ere nere iritziz, gizonaren funtsezko problema; ez baitute ikutu ere egiten.

Gure zibilizazio osoak, beraz, Ekialde'koak eta Mendebaide'koak, itsutu eta egiatik baztertu egiten gaitu.

Ez dut esan nahi, noski, kapitalismoaren menpean, edo Inkisizioaren mendeetan, gizonaren diñatasuna eta munduaren sus-traia hobeki agertzen eta zaintzen ziranik : ez, eta milla aldiz ez. Baiña gure zibilizazioak ahantzarazi nahi bide digu gizonaren egiazko heña, eta hau eta bihotzaren nahia (Unamuno'k behin eta betirako « El Sentimiento Trágico de la Vida »n ongi azaldu zuen bezela) ezkontzerik eta alkar-hartzerik ez dagoela. Eta Buda'k, produzioaren gora-beherak errazak ziran denboretan (ez xuxenak, kasu !) etsipen berbera nabaitu zuen.

Gizonaren barne-urrazapena gure absurdutasunean datza. Baiña gero eta izkutuago dago arraildura.

Lehengo gizonak, zibilizaziorik ez zuelako, Naturalezarekin buruz-buru zituen hartu-emanak. Bere kezkek eta atsekabeak Naturalezarekin edo Izadiaren aitzinean senditzen zituen, eta horregatik, jakinduria txikia eta teleskopiorik ez izanagatik ere, ba zuen Jainkoaren ikutua (edo Mugagabearen, edo Ezerezaren sena).

Gaurko gizonak, aldiz, zibilizazioak, eta gizadiaren kopuruaren emendatzeak berak, Izaditik alderagiten diolako, jakinduria handia eta radio-teleskopioak izanagatik ere, ez du Absolutuaren ez sena eta ez egarria. Eta haunditasun-señale dauka hau....

Antziñan gizonak Jaungoikoaren bildur ziran; gaur Poliziari hartu diogu. Lehengo Izadiaren maillako burruka, gaur Ekono-miaren maillako burruka billakatu da; eta lehenengo gizonek heriotzari buruz eta heriotzaren arabera antolatzen bazuten arabera (hein batean bederen, zeren-eta egia hori ez baita batere ziurra), gaurkoek heriotzarik ez balego bezelaxe antolatzen dute. Itsusi gertatzen dana, beraz, ez-ikusiaren bidez ahaztutzen da; eta kitto.

Sagaratuaren sena erauzi nahi da (eta ez marxistek baka-rrik).

Erljioaren maillaren orde, Politika ipiñi nahi bide da.

Baiña barkazioak, pausa-aldiak, gero eta luzeago eta zabala-go ari dira egiten. Eta gauza jakiña da ixiltasunean eta egonean aspertu egiten dala jendea, eta hutsaren txorabioa berriz senditzen.

Izadiak, espanturik egin gabe, hor utzi digu, gure zibilizazio irriberaren barne-muinetan beretan iltzaturik, egiazko problema : heriotzarena. Eta asetuen suizidioa, bereziki, hor dugu, zemaiz lazgarri baten modura, tinko, hotz, legor, zai.

Marilyn'ek bere burua hil zuen.

Zer, hortaz, irakurle ?

Erantzunik gabeko galdera, ba dakit. Baiñan halere, begirazu gaur izartegira, eta aitoren zazu : ez ahal deritzazu alienazio hutsa produzioaren itxaropen berri horri ?

Ba dago, bai, huntan, gogoeta egiterik !!



AURKIBIDEA

<i>Kristautasuna eta mundutar garaitzapena</i>	1
<i>Oraindik ere Karlismoa nagusi Euskal-Herrian.....</i>	17
<i>Eskuindar eta ezkertar.....</i>	27
<i>Intelektualak eta ekintza-gizonak.....</i>	41
<i>Biarno euskaldunaz.....</i>	49
<i>Azken heriotza dala-ta.....</i>	59
<i>Euskotarrak utikan !.....</i>	69
<i>Euskaldun txapeldunei bi hitz.....</i>	81
<i>Eskolako beti-lehenak.....</i>	91
<i>Marilyn'ek bere burua hil du.....</i>	101
